

Me mo Ri án At ze rá

1936ko Gerraren
eta ondorenaren testigantzak
Zumarragan eta Urretxun

Testimonios de la Guerra de 1936
y la posguerra
en Zumarraga y Urretxu



Argitalpena/Edición: Urretxuko eta Zumarragako Udalak
Egilea/Autor: Memorian Atzera
Transkripzio laguntzailea: Andoni Albisu
Diseinua eta maketazioa/Diseño y maquetación: Memorian Atzera
Inprimaketa/Impresión: Antza inprimategia
Kopurua/Cantidad: 500
ISBN: 978-84-697-8467-9
Lege Gordailua / Depósito legal: SS-1361-2017

Hitzaurrea:

Prólogo:



Memoria, bakearen aliatua

Hitzaurre hau idazten ari naiz, hain justu, Gipuzkoako Foro Aldundiak frankismoaren biktimei Lurraldearen Urrezko Domina eman dien egunean. Ekitaldian bertan gogoratu zuen Francoren diktaduraren memoria berreskuratzeko ahalginea ezinbestekoa izaten ari den Francisco Etxeberria antropologo forentseak indarkeriaren esperientzia bizi duten biktima guztiak ez dutela berdin jokatzen: batzuek hitz egiteko beharra dute bizirik irauteko, kontatzekoa, eta beste batzuek, isiltzekoa eta ahaztekoa.

Frankismoaren biktimen memoria berreskuratzeko horrenbeste urte behar izana ez da harritzekoa; gure herria diktaduraren hatzparretan bahituta egon baita hamarkadetan. Beldurraren erregimena ezarrita, biktimak bere oroitzapenak isiltzera behartuta egon dira bizirik jarraitzen.

La memoria, aliada de la paz

Me pongo a escribir este prólogo el día en que la Diputación Foral de Gipuzkoa otorga la Medalla de Gipuzkoa a las víctimas del franquismo. El que está siendo uno de los artifices imprescindibles de la recuperación de la memoria de la dictadura franquista, el antropólogo forense Francisco Etxeberria, explica en ese mismo evento que las víctimas que sufren la experiencia de la violencia, en su motivación por sobrevivir, suelen actuar de modo diferente: algunas necesitan hablar, contar, y otras, callar y olvidar.

No es de extrañar que haya tenido que pasar tanto tiempo para recuperar la memoria de las víctimas del franquismo; nuestro pueblo ha estado secuestrado en las garras de la dictadura durante décadas. Instaurado el régimen del miedo, las víctimas se vieron obligadas a acallar sus recuerdos

Alabaina, desbideratutako errekan urak nola, biktimen oroitzapenek aurkitu dute poliki-poliki berezko ubidea, memoriaren jarioa urarena bezain halabeharrezkoa baita.

Hasi gara frankismoaren biktimen memoria berreskuratzan, askatzen, eta aldi berean gure aurrekoen bihotz urratuen zauriak sendatzen. Neurri batean, biktimen bilobei tokatu zaigu geure aitona-amonen memoriarri arnasa ematea, eta guztiona da hura zabaltzeko erantzukizuna, haien borroka eta sufrimendua, eta baita adorea eta eskuzabaltasuna ere ahaztu ez daitezen.

Nik neuk asmo horrekin idatzi nuen 1996 urtean *II. Errepublika Urretxu eta Zumarragan (1931-1936). Gerra Zibilaren atarian*, besteak beste nire etxekoena memoria berreskuratu nahian: aitona-amonena, osabena, aitarena. Bulkada sainhestezin batek eraman ninduen isilunez, tristezaiz eta minez gordeta zeuden hainbat eta hainbat gertakizun desestalzera. Jose Antonio Arozena Pildain urretxuarren urretsak eta nireak bide berean elkartu izana patuaren gauza izan zen, ziur aski. Bere ahaleginari eta eskuzabaltasunari esker, liburuan jasota geratu dira Gerra Zibilean hildako urretxuar eta zumarragarren izen-abizenen zerrenda eta haien heriotzaren inguruokoak. Bide batez, baliatu nahi dut aukera hau Arozenaren lanak merezi eta oraindik erakundeek eskaini ez dioten aitortza egiteko. Ume zenetik eta bizitza osoan, ez zuen bakerik izan hildako bere bizilagunen memoria berreskuratu arte: "Ezin ditut ahanzturan hiltzen utzi" esan ohi zidan.

Horrenbestean, bere ekarpenak nire historia personala proiektu kolektibo bat bihurtu zuen. Aurreneko aldiz, Gerra Zibilean hildako eta desagertutako gure bizilagunak isiltasunetik eta ostrazismotik irten ziren, eta beren familiak aitortuak eta minean arinduak sentitu ziren. Eta nik liburu hura "urte ikaragarri haietan gogo biziz sinetsi, ezinbestean maitatu, tingo borrokatu, isilean sufritu, eta bizitza galdu zuten gizon-emakumeel" eskaini ahal izan nien.

2014 urtean *Gerra Zibila eta frankismoa Zumarragan* liburua eman zuten argitara Antonio Prada, Maialen Aranguren eta Ana Peña. Zalantzak gabe, aurreko liburua osatzera etorri zen argitalpena. Egileek "biktima guztiei" eskaini zieten liburua, garaiko indarkeria gaitzesteko bidean beste urrats bat emanez.

para seguir con vida. Sin embargo, al igual que el agua del río desviado, los recuerdos de las víctimas poco a poco han vuelto a su cauce natural. El fluir del agua es tan inexorable como el de la memoria.

Ya hemos comenzado a recuperar y a liberar la memoria de las víctimas del franquismo, al mismo tiempo que a sanar los corazones heridos de nuestros antepasados. En cierta medida, nos ha tocado a las nietas-os de las víctimas insuflar aire nuevo a la memoria de nuestros abuelos-as, y es responsabilidad de todos difundirla, para que su lucha y sufrimiento, y también su coraje y generosidad, no caigan en el olvido.

Yo misma escribí en el año 1996 *II. Errepublika Urretxu eta Zumarragan (1931-1936). Gerra zibilaren atarian*, entre otras razones queriendo recuperar la memoria de los míos, de mis abuelos, de mis tíos, de mi padre. Un impulso ineludible me llevó a destapar tantos y tantos recuerdos impronunciables, por la tristeza y el dolor. Seguramente, fue cosa del destino que los pasos del urretxuarra José Antonio Arozena Pildain y los míos se encontrasen en el mismo camino. Gracias a su esfuerzo y su generosidad, han quedado impresos los nombres de nuestros vecinos fallecidos en la Guerra Civil, así como las circunstancias de sus muertes. De paso, me gustaría aprovechar para poner en valor el trabajo de Arozena, insuficientemente reconocido, a mi entender, por las instituciones locales. Desde niño, y durante toda su vida, Arozena no desfalleció hasta rescatar la memoria de aquellas víctimas: "No puedo dejarlas morir en el olvido", me solía decir.

Gracias su inestimable aportación mi historia personal se convirtió en un proyecto colectivo. Por primera vez, los fallecidos y desaparecidos, vecinos todos ellos, pudieron salir del anonimato y del ostracismo, y sus familias se sintieron reconocidas y aliviadas en su dolor. Y, así, yo pude dedicar mi trabajo "a todos y todas aquellos hombres y mujeres que en aquellos terribles años creyeron firmemente, amaron sin condición, lucharon con coraje, sufrieron en silencio y perdieron sus vidas".

En el año 2014, Antonio Prada, Maialen Aranguren y Ana Peña publicaron el libro *Gerra Zibila eta frankismoa Zumarragan*. Sin lugar a dudas, un trabajo que vino a completar el anterior. Sus autores dedicaron la publicación "a todas las víctimas", repromando así todas las violencias que causó el conflicto.

2018 urtea hastearekin batera, lan berri honek ikusi du argia gurean, Aritz Ormazabal, Haritz Berasategi, Alex Areizaga eta Idoia Agirre enekinez. Bertan jaso diren lekukotasunak oraindik amaiera ikusten ez zaion errelatoaren kate-begi berri bat dira. Biktimen biziak, sentimenduak, beldurak, ilusioak, itxaropenak eta borrokak hitzetan nahiz iruditan jaso dituzte, are gertutasun handiagoa eskainiz, konplizitatea eta enpatia sortuz.

Gerra Zibilaren eta frankismoaren errelatoa osatzeko, etorrisko dira garai ilun haietako gertakarietan are gehiago arakatzeko bidea emango diguten eleberriak, poemak, filmak, ipuinak..., izan ere errealitatea fikzioari gailentzen zaion arren, irudimena behar izango da gure aurrekoen biziak zinez asmaezinetan barneratzeko. Izan dadila liburu hau datozen belaunaldietako ikerketa eta sormen lanetarako lehengai eta inspirazio-iturri, besteak beste, eta Etxeberriaren hitzei jarraituz, memoria ez baita etsaia, bakearen aliatu baizik.

Antxiñe Mendizabal Aranburu

Zumarraga, 2017ko abendua



Con el nuevo año 2018, ha visto la luz esta nueva recopilación de testimonios de las víctimas del franquismo de la mano de Aritz Ormazabal, Haritz Berasategi, Alex Areizaga e Idoia Agirre. Los testimonios que se recogen en este documento son un eslabón más en el camino por conformar ese relato inacabado de nuestra historia. En esta publicación las víctimas dan testimonio de sus vivencias, sentimientos, miedos, ilusiones, esperanzas y luchas. El DVD que incluye la publicación servirá además para acercarnos a su imagen, y crear mayor complicidad y empatía.

Con el tiempo, verán la luz novelas, poemas, películas, cuentos... que servirán para conformar el relato de la Guerra Civil, que nos permitirán indagar en las vivencias de aquellos oscuros años, porque en verdad, y a pesar de que la realidad siempre supera a la ficción, hará falta imaginación para adentrarse en las inimaginables experiencias de nuestros antepasados. Espero que este libro sirva para posteriores trabajos de investigación y sea fuente de inspiración para muchos creadores, porque, en verdad, y haciendo más las palabras de Etxeberria, la memoria no es nuestra enemiga, sino un aliado para la paz.

Antxiñe Mendizabal Aranburu

Zumarraga, diciembre de 2017

Aurkibidea / Índice

Orrialdea / Página

Sarrera / Introducción	12	88	Margarita Plazaola
Antton Osinalde	24	91	Mari Ros Berriotxoa
Luis Mari Segurola	27	94	Marivi Ulacia
Aranburutarrak	28	97	María Peinado
Benita Yurrebaso	31	98	Martina Ulacia
Mariano Aperribai	32	101	Moises Mazmela
Bernardi Aldasoro	33	103	Felipe Usabiaga
Concepción Maiztegi	36	105	Mertxe Ariztegi
Elixabete Gallastegi	38	108	Miguel Sasieta
Eugenio Mallea	41	112	Miren Itziar Ansorregi
Eustakio Arsuaga	44	114	Armando Arizmendarreta
Begoña Aizpuru	46	116	Miren Zabaleta
Felipe Areizaga	47	118	Nikaxi Iparragirre
Fermin Lasu	51	120	Norberto Dominguez
Juana Mari Zinkunegi	53	123	Pablo Areizaga
Iñaki Ibarzabal	54	126	Pepi Udabe, Gloria Areizaga eta Pilar Bidarte
Isabel Fernandez de la Reguera eta Patxi Blain	56	129	Rosario Kortabarria
Miren Itziar Txintxurreta	58	131	Gema Zabaleta
Jesusa Larraza	60	133	Kasto Ormazabal
Jesusa Salegi	62	136	Leandro Iraeta eta Bittori Zubeldia
Joxe Mari Aizpurua	65	138	Isabel Agirre
Joxe Mari Kortabarria	66	140	Pedro Areizaga eta Mikaela Agirre
Joxe Mari Antia eta Begoña Zumalakarregi	68	144	Xexari Areizaga
Juanita Berasategi	70	146	Pablo Izagirre
Juanito Urzelai	71	148	Maria Rosario Belaustegi eta Ana Mari Zabaleta
Carmen Etxaniz	74	151	Josu Gabilondo
Casilda Cantero	76	153	Inés Retegi
Laura Pikasarri	78	156	Pilar Elorza eta Bixente Aranguren
Lorenzo Albisu	80	158	Pedro Salvatierra
Maria Jesus Plazaola	82	160	Melecio Mansilla
Begoña eta Luis Mari Garin	84	162	María del Carmen Gonzalez
		164	Mari Carmen Beraza



Sarrera Kontestualizazioa

Introducción Contextualización

Urretxu eta Zumarragan 1936ko gerrako zertzeladak

Jarraian datorren kontakizuna Zumarragako eta Urretxuko Udalek kaleratutako bekaren barruan egindako elkarriketako testigantzekin osatu da. Elkarriketa hauek ez daude kontrastatuta.

Espaniako Gerra Zibila 1936ko uztailean hasi bazen ere, gure herrietara urte bereko irailean iritsi zen bete-betean. Gerra hasi eta hurrengo bi hilabeteetan, Zumarragara eta Urretxura asturiarrak, kantabriarrak eta galiziarrak iritsi ziren, besteak beste, nazionalen kontrako borrokara; anarkistak, sozialistak edo errepublikarrak ziren, eta herriko egunerokoa asaldatu egin zuten, fronteetatik iristen ziren albisteek bezainbeste. Ez ziren gure herriek jaso zituzten kanpotar bakarrak. Iheslariak ere iragan ziren guretik, Nafarroan edo Gipuzkoan jada nazionalek okupatutako herrietatik eta ingurukoetatik ihesi zihoaZen pertsona eta familiak, oro har.

Apuntes sobre la guerra de 1936 en Zumarraga y Urretxu

La presente narración ha sido escrita teniendo en cuenta los testimonios recogidos durante las entrevistas realizadas dentro de la beca concedida por los ayuntamientos de Zumarraga y Urretxu. Estos testimonios no han sido contrastados.

Aunque la guerra comenzó en julio de 1936, no fue hasta finales de septiembre cuando llegó de lleno a Zumarraga y a Urretxu. Durante los dos meses posteriores, a nuestros pueblos llegaron asturianos, cántabros y gallegos, entre otros, a luchar contra los nacionales. Eran anarquistas, socialistas y republicanos, y según los testigos, alteraron el día a día vecinal tanto como las noticias que llegaban del frente. No serían los únicos. En aquellas semanas, muchas personas, familias en su mayoría, recorrieron nuestras calles huyendo de pueblos ocupados por las fuerzas nacionales, o municipios cercanos.

Urretxuko eta Zumarragako gazte eta familia askok ere iheri eman zioten: frontea hain gertu ez zuten herrietara, Bilbao aldera, landa eremuetako senideengana, Frantziara edo Europara, Ameriketara... Basoan edo baserietan ezkutatu zirenak ere izan ziren. Beste batzuk, defentsarako antolatzen ari ziren batailoietan sartu ziren: bakoitzaK bere ideien araberako batailoira jo ohi zuen, ahal zuen heinean. Nazionalistak izan ziren gehienak, eta Loiola izeneko batailoiean sartu ziren herriar asko.

Beloki inguruan lubakiak egiten hasi ziren, abuztu aldera. Zakuekin osatu zituzten, Argixao edo Zumarraga aldera begira jarri. Aizpuru eta Landaburu baserrien ingurueta ere defentsa postuak jarri zituzten. Irimon ere parapetoa eraiki zuten defentsarako, gurutzea inguratuz. Testigantzek diotenez, zakuak eta alanbre biribilkiak erabili zituzten horretarako, 30 biribilki alanbre gutxienez. Lurpeko zuloak ere ba omen zituen ondoren egurrekin estali zuten trintxerak. Gordeleku bat zen, metro bat inguruko zanga bat, eta persionak sartzeko moduko espazioak zituen. Hilabete horietan mendietan ibili ziren milizianoak tiroka aritzen zirela oroitzen dute testiguek. Herritarrek koltxoiaK jarri ohi zituzten leihotan, balak geldi zitzaketelakoan.

Irailaren 19an, carlistak eta soldadu falangistak gure herrien atarira iritsi ziren, oro har, Gabiria eta Ormaiztegi aldetik, Beasaindik etorrera. Gabiria inguruetaK tiroketak eman ziren egun haietan, ihesi zihoaZen eta erasotzaileen artean. Gaua han eman zuten soldaduek, eta hurrengo goizean ekin zioten Zumarragarako bideei: Goiko-Txabola, Argixao eta Santa Lutzi ingurutik iritsi ziren. Eguna Argixao ingurueta eman zuten, Belokiko trintxerakoekin tiroak elkartrukatz, eta iluntzean jo zuten Belokiko defentsa postuaren aurkako erasoa.

Erasoa jo zutenean, tiroketa hareagotu egin zen. Belokiko trintxera Argixao aldera begira zegoen, Zumarraga aldera, eta erasotzaileek atzetik harrapatu zituzten bertan zeudenak, ustekabeen. Batzuek ihes egitea lortu zuten, Aizpuru baserriko defentsa postura, baina beste batzuk han atxilotu zituzten. Emiliano Valverde urretxuarren kasua izan zen hori, eta herrikoak ez ziren beste bizpahiru lagunena. (Valverderen eta berarekin harraputako istorioa aurrerago azalduko dugu).

A su vez, muchos jóvenes y muchas familias huyeron de Zumarraga y Urretxu. Huyeron a pueblos más alejados del frente; a casas de familiares en zonas rurales, hacia Bilbao, a Francia o Europa, a América... También los hubo quienes se escondieron en el bosque o en caseríos. Otros marcharon a enrolarse en los batallones que se estaban creando para luchar contra las fuerzas nacionales. Cada cual optaba, si podía, por el batallón más cercano a su ideología. La mayoría de los que marcharon eran nacionalistas, y muchos de ellos se enrolaron en el batallón Loiola.

Durante ese tiempo, se cavaron trincheras en los alrededores de la cima del monte Beloki. Protegieron las zanjas con sacos, posicionándolos cara a Argixao. Se establecieron, así mismo, puestos defensivos en las cercanías de los caseríos Aizpuru y Landaburu. En Irimo también se construyeron trincheras, rodeando la cruz. Según los testimonios, se utilizaron sacos y rollos de alambre, "30 rollos de alambre por lo menos". La trinchera era una zanja cubierta por maderas. Era algo parecido a un agujero, formado por una zanja de más o menos un metro de profundidad, con altura suficiente para las personas. Los testigos recuerdan cómo los milicianos disparaban desde los montes. Los vecinos ponían colchones en las ventanas con la esperanza de que pudieran parar las balas.

El 19 de septiembre, los carlistas y soldados falangistas llegaron, principalmente desde Gabiria y Ormaiztegi, a las puertas de nuestros municipios, procedentes de Beasain. Durante esos días, en Gabiria se cruzaron algunos tiros entre los atacantes y los que se batían en retirada. Tras la noche, llegaron a Zumarraga, por Goiko-Txabola, Argixao y Santa Lucía. Pasaron el día ahí, e intercambiaron tiros con los milicianos y *guardias* que se encontraban en Beloki. Fue al anochecer cuando atacaron las líneas defensivas de Beloki.

Al comenzar el ataque de las tropas nacionales, el tiroteo se intensificó. La trinchera estaba colocada cara a Zumarraga, pero los atacantes sorprendieron a los defensores por la retaguardia. Algunos consiguieron huir al puesto de defensa situado en el caserío Aizpuru, pero otros no lo consiguieron. Ese fue el caso del urretxuarra Emiliano Valverde, al cual apresaron junto a otras dos o tres personas en la misma trinchera. (Esta historia la detallaremos más adelante).

Aizpurun bigarren defensa postua zuten milizianoek eta gudarieiek, han omen zegoen txabola batean, baina hemendik ere ihes egin behar izan zuten harrapaladan: Azkoitia aldera jo zuten, oro har.

Nazionalen joana oztopatzeko helburuz, miliziano eta gudarieiek hiru zubi lehertarazi zituzten Zumarragan eta Urretxun: Eguerdian, Badiola lantokiaren ondoan zegoena bota omen zuten. Gualdera, 21:30ak aldera, Gerraerrota ondoko Zubia lehertarazi zuten. Hirugarren Zubia, Urretxu eta Legazpi artean zegoena, hurrengo eguneko eguerdi aldean bota zuten. Azkoitia aldera jo zuten, oro har.

Nazionalak Belokin sartu ziren, eta hurrengo egunean, hilaren 20an, tiroketak asko gutxitu ziren. Deskarga aldera jo zuten hurrena, eta hori egiteko, Geltokietako plazaren inguruan formatu ziren soldaduak. Milaka zirela diote testigiek. Tiro egin zieten orduan Irimotik, eta pare bat soldadu zauritu omen zituzten. Azkar jo zuten Irimorantz soldaduek, Deskaragatik, paretik eta Elosegi aldetik, Beain baserritik barrena. Irimo inguratu zuten, baina ordurako, milizianoak eta gudariak ez ziren bertan.

Mesedeetako amabirjinaren istorioa

Testigu ugari kontatu dutenez, soldaduak gure herrietara iritsi aurretik, eta herrieta zegoen giroa ikusirik, herriko agintarieiek hainbat eskuindar La Salleko dorrean sartu zituzten, anarkista eta sozialistek haien jomugan hartuak zituztela ikusirik, eta fusilatu egindo zituztenaren beldur. Irailaren 19a gerturatzen ari zenean, giroa berotuz zihoa, eta preso horiek handik atera eta Markiñara eramatea erabaki zuten, han babestuago egongo zirelakoan. Testigu baten arabera, han ere fusilatzena bidali zituzten, baina tartean, Zumarragako gudari nazionalista bat aurkitzen zen, eta honen ekimenez, preso haien Zumarraga itzultzea erabaki zuten. Harrera beroa jaso zuten Zumarragan eta Mesedeetako Amabirjinari egotzi zioten askok mirari hura.

Bombardaketak

Zumarragak eta Urretxuk bi bombardaketa jasan zituzten, frontea gure herrietatik igaro ondoren. Lehenengo Santa Lutzi bigarrenean izan zen, abenduaren 14ean. Orduko harrian, hegazkin batek hainbat bomba bota zituen. Kalte han-dienak Zumarragako plazan sortu zituen, lau-bost bomba

En el caserío Aizpuru, en una chabola que estaba en los alrededores, los *gudaris* y milicianos disponían de una segunda posición de defensa, de la que tuvieron que huir tomando el camino de Azkoitia.

Con la intención de contener o retrasar el avance nacional, los milicianos y *gudaris* reventaron tres puentes en Zumarraga y Urretxu: al mediodía del primer día, dinamitaron el puente que estaba al lado de la fábrica Badiola; por la noche, hacia las 21:30, reventaron el puente de Gerraerrota, y el tercer puente, el que estaba entre Urretxu y Legazpi, lo echaron al mediodía siguiente.

Los nacionales entraron en Beloki y al día siguiente, día 20, el tiroteo se redujo. Su siguiente objetivo era Deskarga, en su camino hacia Bergara, para lo cual, se situaron en formación en la plaza de las Estaciones. Los testigos afirman que eran más de un millar. Fue entonces cuando desde Irimo dispararon contra este grupo, e hicieron a dos soldados. La reacción fue rápida y atacaron Irimo por diferentes flancos: desde el frente, por Deskarga y por Elosegi, subiendo desde el caserío Beain. Rodearon Irimo, pero para entonces los defensores ya habían huido.

La historia de la Virgen de la Merced

Según nos han transmitido varios/as testigos, antes de que los soldados llegaran a nuestros pueblos y viendo el movimiento que había en Zumarraga y Urretxu, los gobernantes locales recluyeron a varios derechistas en la torre de las Escuelas Legazpi, por miedo a que los anarquistas y socialistas los fusilaran. Los días previos al 19 de septiembre el ambiente de nuestros pueblos se fue caldeando, por lo que se decidió sacar a esos presos de la torre y llevarlos a Markina, para su seguridad. Según los testimonios, al ver que los iban a llevar a fusilar, un *gudari* nacionalista de Zumarraga allí presente, pidió al chofer del autobús que los trajera de vuelta al pueblo. Se les recibió calurosamente y fueron muchos los que achacaron aquel milagro a la Virgen de la Merced.

Bombardeos

Zumarraga y Urretxu sufrieron dos bombardeos, una vez pasado el frente. El primero de ellos se produjo al día siguiente de Santa Lucía, el 14 de diciembre. Ese día, un avión echó varias bombas de las que cuatro o cinco explosionaron en la plaza causando numerosos destrozos. Parece ser que eran bombas pequeñas. Dos personas que se encontraban en la

botata. Tamaina txikiko bonbak omen ziren. Plazako bonbardaketa, bi pertsona zauritu zituzten, eztandak Sagastiberri denden harrapatuta (egungo Arkupe taberna). Leherketak dendaren kristalak apurtu zituen; Agerraundi baserrian morroi zegoen nafar bat eta arkueetako eskaileretatik behera zihoa emakume bat zauritu zituen. Hainbat asto ere hil zituzten bonbek, egun merkatua dagoen lekuau.

Bigarren bombardaketa, Zumarragako geltokiaren inguruan gertatu zen, 1937ko apirilean. Plazakoak baina tamaina handiagokoa zen orduan bota zuten bonba. Hiru pertsona hil zituen leherketak, eta zaurituak ere eragin zituen, tartean komandante italiano bat, metrailak harrapatuta. Aparizioren txaletean erori zen bonba, eta orduko hartan ere ez zen garbi geratu nork bota zuen. Batzuek, tren geltokira bota nahi izan zutela diote; besteek, han inguruatan zegoen lantoki batera, italiano soldaduak han baitzeuden. Hegazkinari bonba erori egin zitzaiola dioenik ere bada. Gehienek, ordea, nazionalen aldeko hegazkin batek bota zuela diote, lur hartu aurretik hegazkina bonbaz hustu nahi izan zuena, bonbak gainean zituela lur hartza arriskutsua zuelako. Diotenez, hegazkina aurrera zihola bonba gehiagoren leherketa ere entzun zen.

Jon Nikasio Etxeberria umea, 6 urte zituela hil zuten. Facundo Osinalde 34 urte zituen hil zutenean. María Concepción Oiarzabalek, 22 urte zituen, bonbarekin hil zutenean.

Emiliano Valverde

Emiliano Valverde Urretxun jaio zen, eta Gernikako Arbola plazan bizi zen, familiareskin batera. Soldadu nazionalek eta carlistek Beloki harrapatu zuten Valverde, beste bizpahiru milizianorekin batera (ez dago garbi zenbat harrapatu zituzten eta besteak nongoak ziren). Diotenez, tiroka ari zirela ustekabeen harrapatu zituzten Belokiko lubakian, atzetik etorrera.

Atxilotuak Eitzara jaitsi zituzten, eta hango ikuilu batean sartu, preso. Eliz-Kaleko bilzagun batzuek, umeak orduan, gogoan dute nola igo ziren Eitzara, eta nola ikusi zuten Valverde zutabe baten kontra jarrita. Gualdera izan zen hori. Bigarren testigu batek, gogoan du hurrengo egunean Valverde de Zumarragako udaletxetik irteten ikusi izana, eta kamioi batean beste gizon ezezagun batzuekin nola sartu zuten, eta eraman.

tienda Sagastiberri, (actual bar Arkupe), resultaron heridas. La explosión rompió los cristales de la tienda, e hirió a un mozo navarro del caserío Agerraundi y a una mujer que bajaba las escaleras hacia la plaza. Las bombas también mataron e hicieron a varios burros que se encontraban atados al muro situado donde hoy en día se encuentra el mercado.

La segunda bomba, la lanzaron en abril de 1937, cerca de la estación del tren. Esta bomba era más grande que las lanzadas en la plaza. La explosión mató a tres personas y también provocó heridos, entre otros un comandante italiano, afectado por la metralla. Cayó en el denominado *chalet de Aparicio* y tampoco entonces quedó claro quién lo había lanzado. Algunos dicen que quisieron echarla a la estación del tren; otros, que el objetivo era una fábrica donde se alojaban soldados italianos. También hay quien comenta que la bomba se le cayó al avión. La mayoría de las versiones, dicen que era un avión del bando nacional, que al no poder aterrizar cargado de bombas, las fue soltando camino al aeródromo. Según un testigo, mientras el avión se alejaba, seguían escuchándose ruidos de explosiones.

La bomba mató a Jon Nikasio Etxeberria, de 6 años, Facundo Osinalde, de 34 años y María Concepción Oiarzabal, de 22 años.

Emiliano Valverde

Emiliano Valverde nació en Urretxu y vivía en la plaza Gernikako Arbola, junto a su familia. Los soldados nacionales y carlistas lo detuvieron en el monte Beloki, junto a otros dos o tres milicianos (no está claro cuántos detuvieron ni de dónde eran estos últimos). Según cuentan, los cogieron mientras disparaban a las tropas atacantes, en la trinchera de Beloki, sorprendiéndoles por detrás.

Los bajaron a Eitza y los metieron presos en una cuadra. Algunos vecinos de Eliz-kale, entonces niños, recuerdan haber subido a Eitza y haber visto a Valverde contra un poste. Eso sucedió al anochecer. Un segundo testigo, vio, al día siguiente, cómo subían a Valverde a un camión, después de sacarlo del ayuntamiento Zumarraga, junto a otros que le eran desconocidos y cómo se los llevaron.

A los pocos días ya los habían fusilado, al lado de la trinchera de Beloki. Los taparon con hojas y más tarde, los enterraron allí mismo. Allí estuvieron durante varios años.

Herriak okupatu eta egun gutxira, Valverde eta beste atxilotuak fusilatu egin zituzten. Belokiko lubakia egon zen lekuau. Hosto batzuekin estali zituzten eta bertan lurperatu zituzten gero. Han egon ziren denboratan.

Urte batzuk geroago, baina, orduko Zumarragako apaizaren eskariz, hairbat baserritarrek, gaez, isilpean, gorpuak atera, eta Zumarragako hilerraen kanpokaldean lurperatu zituzten, bedeinkatua gabeko lurretan.

Fusilatuak Urretxun eta Zumarragan

Urretxun eta Zumarragan bederatzi pertsona fusilatu zituzten soldadu frankistak gure herriean sartu eta hilabetera. Guardia Zibilak euren etxeetatik atera zituen, deklaratzaera zeramatzenaren aitzakian, eta inork ez zuen gehiago haien berrikirik izan.

Venancio Eguren, Francisco Pompeyo, Hilario Aranburu, Hilarión Arzelus, Jose Becerra, Angel Belaustegi, Angel Zabaleta, Hilario Gabilondo eta Alfonso Orcajo izan ziren fusilatuak. Adin desberdinakoak, testigantzek diotenez, gerra piztu zenean, defentsa lanetan goardiak egitea izan zen fusilatzearren arrazoia.

Zumarragako udaletxean sartu zituzten preso lehenik eta Ondarretako espoxiera eraman zituzten ondoren, Donostiarra. Han ez zuten denbora asko egin, senideak bisitan joan zi-renerako han ez zeudela esan baitzieten. Hernaniko hilerrira eraman, eta han hil zituztela uste dute senideek, beste hamarka pertsonekin batera. Hernanin ehunka gorpu zituzten, bi hobi zeudela diote orduko testiguek eta senideak gaez joan ohi zirela gorpuak ateratzera. Hala ere, ofizialki, desagertuak izaten jarraitzen dute gaur egun.

Algunos años más tarde, a petición del cura de Zumarraga, varios baserritarras sacaron los cuerpos de Beloki, y los trasladaron al cementerio de Zumarraga, enterrándolos en el exterior, en tierras no benditas, de noche, sin que nadie los viera.

Fusilados en Urretxu y Zumarraga

Al mes de ocupar los soldados nacionales nuestros pueblos, en Urretxu y Zumarraga fusilaron a nueve personas. La Guardia Civil los sacó de sus casas con la excusa de llevarlos a declarar, pero nadie tuvo noticias de ellos desde entonces.

Los fusilados eran Venancio Eguren, Francisco Pompeyo, Hilario Aranburu, Hilarión Arzelus, Jose Becerra, Angel Belaustegi, Angel Zabaleta, Hilario Gabilondo y Alfonso Orcajo. De diferentes edades, según los testimonios, los fusilaron por realizar guardias.

Primeramente los metieron presos en el ayuntamiento de Zumarraga y de allí los llevaron a la cárcel de Ondarreta de San Sebastián. No pasaron mucho tiempo allí; cuando los familiares fueron a visitarles, se les respondió que no estaban allí. Según la versión más extendida, los llevaron al cementerio de Hernani y los fusilaron, junto a otras decenas de personas. Los testigos aseguran que en Hernani cavaron dos fosas y metieron allí centenares de cuerpos y que los familiares solían ir de noche a desenterrarlos. Aun así, a día de hoy, siguen siendo desaparecidos.



Zumarraga 1864an. Argazkia: Auguste Muriel / Zumarraga en 1864. Fotografía: Auguste Muriel



Iparragirre kalea, Urretxu
Calle Iparragirre, Urretxu



Zelai Ariztiko frontoiko ezker parearen atzealdea, Zumarraga
Parte de atrás de la pared izquierda del frontón de Zelai Arizti, Zumarraga.



Ederrena pilotalekua, Urretxu.
Argazkia: Pascual Marín.

*Frontón Ederrena, Urretxu.
Foto: Pascual Marín.*



Joxe Mari Iparragirreren jaiotetxea. Urretxu.
Casa natal de Joxe Mari Iparragirre. Urretxu.



Don Rafael apunto observando en la villa de Llerena
que el general Marañón se dirige a este es-
tado, adonde habrá de ser trasladado a su no-
bre Alvaro Gómez, presidente de la república.
Algunas horas más tarde el general Llerena
capitula la villa de Llerena
llevando a los fueros de Llerena y a su
pueblo regimiento ambulancia y 150 soldados
y con paciones de sus cargos a los concejales
y alcaldes electos de Llerena para que



Rafael Tejerok Erregimen berria ezartzen
du Zumarragan. (1936-09-20)

Rafael Tejero instaura el nuevo Régimen en Zumarraga (20-09-1936)



(1936-09-24) Gure herriak okupatu arretik, agintarietik hainbat eskuindar atxilotu zituzten, anarkista, komunista eta sozialistengandik babesteko helburuz. Preso hauek Markina-ra eraman ondoren, aske utzi zituzten eta Mesedeetako Amabirjinaren egunean itzuli ziren herrira, gure herriak okupatu eta egun gutxira. Harrera beroa jaso zuten eta Mertzendaritaren elizan esker oneko plaka bat jarri zuten.

Antes de la ocupación de nuestros pueblos detuvieron a varios mandatarios, con el objetivo de protegerlos de los anarquistas, comunistas y socialistas. Después de llevarlos a Markina, les dejaron libres y volvieron al pueblo el día de la Virgen de la Merced, a los pocos días de la ocupación de nuestros pueblos. Tuvieron un recibimiento caluroso y pusieron una placa de gratitud en la iglesia de las Mecedarias.



Euskal Herriko eta Kataluniako diputatuen
biltzarra Zumarragan 1934an.

Congreso de diputados de Cataluña y Euskal Herria en Zumarraga, en 1934



Faxistak gure herrietan sartu ziren egunetan, Urretxun eta Zumarragan hiru zubi lehertarazi zituzten ihesi zinhoazen gudari eta milizianoek. Irudi hauek, botatako bi Zubirenak dira, San Martin eta Etxeberri auzoen ingurueta. Lehertarazi zuten hirugarren zubia Urretxu eta Legazpi artean zegoen.

El día que los fascistas entraron en nuestros pueblos, los gudaris y milicianos que huían reventaron 3 puentes en Urretxu y Zumarraga. Estas imágenes son de dos de ellos, en los alrededores de los barrios San Martín y Etxeberri. El tercer puente que reventaron estaba entre Urretxu y Legazpi.



Faxisten desfilea Urretxuko aldapan.
Desfile de los fascistas en la cuesta de Urretxu.



Soldaduek gure herriak okupatu ondoren, Urretxun eta Zumarragan hainbat lantoki militarizatu egin zituzten. Faxisten hegazkinetzako bonbak egin zituzten lantoki hauetan.

Después de que los soldados ocuparan nuestros pueblos, en Urretxu y Zumarraga se militarizaron varias fábricas. En estas fábricas fabricaban bombas para los fascistas.



1947ko uztailaren 17an, Legazpi Batailoari omenaldia egin zioten Zumarragan.
El 17 de julio de 1947 se homenajeó al Batallón Legazpi en Zumarraga.





Testigantzak

Testimonios

Antton Osinalde Antia

Ezkio
1944an jaioa.

“Nire aita Loiola batailoilean ibili zen”



Aita gerrara

Aita boluntario joan zen gudariekin, 28 urte zituela. Orduan EAJkoa zen, gero aldatu bazen ere, alderdiaren bilakaerarekin oso haserre amaitu baitzuen. Zulo hortatik, erreka alde hortatik (Santa Lutzi inguruak) jende dexente joan zen boluntario. Gabiriatik gehiago izan zirelakoan nago. Nire aita eta bere ingurukoak joan ziren, batailoira alde hortako asko joan ziren, gazte asko. Gabiriako asko Amairu batailoilean ibili ziren, baina gure aita eta ez. Horiek Loiola batailoian ibili ziren.



Damian Osinalde, Antton Osinalderen aita, motorrean atzean

Uste dut komandantea Beistegi zela, eibartarra, BH bizikleta tresnen orduko nagusitakoa edo sortzailea. Berarekin batailoiean zeuden beste batzuk: Araneko Pedro Telleria, Beroeta baserriko Esteban Oiarzabal, Bittor Aranzadi, Luis Leturia...

Los rojos separatistas han bombardeado Gernika

Gernika aipatzen zuen berak, izan ere, bombardaketa egunean han zeuden, mendian, trintxeretan. Oso urduri egon ziren, oso kezkututa. Beldurgarria izan zela zioen. Ezkutatu egin ziren, edo ahal izan zuten moduan pasatu zuten hura, ikaragarri gogorra behar zuen izan. Astelehena izanik, gainera, azoka eguna, eta ohi baino jende geihago zegoen han. Puskatze ikaragarria egin zuten. Aitak kontatzen zuenez, hurrengo egunean, egunkarien batek, nazionala izango zen, zera zekarren: “los Rojos separatistas han bombardeado Gernika”. Dena gezurra.

“Como antes bombardearon iglesias y conventos, los rojos separatistas han sido los promotores...”.

Zioenez, lehenik eta behin abisu moduko bat bota zuten, baina gero, gogor jo zuten. Beldurgarria izango zen hura ikustea.

Gernikako kontakizunak

Menditik herrira ere jeisten zirela kontatzen zuen. Gernikan denbora dexente egin zuen. Gernikako taberna batean elkartu ohi ziren, batzuk mendi batetik, besteak bestetik jeitsita. Arrien izena zuen jatetxeak. Anekdoa gisa, esan ohi zuen, Gernikan zeuden batean, berri bat iritsi zitzaiela: hemengo gudari bat aita izan zen. Bikiak izan zituen gainera. Ezkiokoa zen bera, Arane baserriko. Pedro zuen izena. Sekulako poza hartu zuten, ondo ospatu zutela gogoratzen zuen. Bainan dena ez zen horrelakoa. Gabiriatik asko hil zirela ere gogoratzen zuen. Etxe batean bi anaia, kasu. Egun batean futbol partidu bat ikusten izan zela ere kontatzen zuen, San Mamesen.

Beste anekdoa bat. Mola hil zen garaian, egunkari batek ekarri zuela: *Hil da Mola, ez takiu nola*. Itxura denez, sumatu zuten Francok berak hil zuela...

Gerrako kontakizunak I

Hurrengo borrokalekua, Pagotxiki aipatzen zuen. Urkiola mendi inguru hartan dela uste dut. Hortik, Otxandio aldera jo zuten. Albertia, Bizkaragi, Mungia... izenak aipatzen zituen. Inguru horietan denbora asko eman zuen. Esaten zuenez, gauez gudariak aurrea egiten zuten, eta egunez, berriz, besteak etortzen zirela eta berri zatzen. Gogoan zuen egunik gogorrena, San Andres eguna zen, azaroaren 30ean. Han izan zituzten egun osoan jo ta su. Gerran igaro zuen egunik txarrena izan zela zioen. Hotz handia, elurra, mendian lo egiten, aeroplanoek egun guztian joan etorrian... Aitak esan ohi zuen: “Gu hemen eskopetakin tiroka eta bes-teen abiazioa goitik... ze egingo genduan ba!”.

Batek hanka falta, besteak ere... asko hil ziren. Horrelakoak, ikusitakoak kontatzen zituen, gauza oso desatsegina. Uste dut egokitu zitzaiela trintxeran baionetakin ere ibiltzea. Sorbalda atzean bazuen, arrasto bat, leherketaren batek jota, polborarekin erreta. Oso une larriak pásatu zituzten.

Espetxeen Preso

Extremaduran eta Andaluzian errepideak egiten aritu zen, Langile Batailoietan. Harrapatu eta eraman zituztenean, lehendabizi ez dakit zein herritako zezen plazan sartuta izan zituzten, guztiak bilduta, gero banatzeko. Gero, Langile Batailoietan, herri batzuk aipatzen zituen: Córdobako probintzian Cabra, Puentegenil, Peñarroya, Carmona, Plasencia...

Juan Joxe Badiola zumarragatarrarekin ibili zen asko. Oso lagunak egin ziren. Batailoiean elkarrekin aritu ziren eta baita langile batailoiean. Elkarrekin ibili ziren denbora guztian. Bizi baldintza exkakax pairatu zituzten: janarekin oso gaizki ibili ziren, lan asko eginarazten zieten, udaran bero handia pasaz...



Damian Osinalde Gernikan, zutik ezkerretik bigarrena.

Gerrako kontakizunak III

Pertsona bategatik esaten zuen: Gabirikoa zen izatez. Permiso batekin etorri zen eta bizilagun batek, frankista edo falangista batek, taberna batean esan zion: "hi ze, etxera?". Bestearen erantzuna: "Bai, ni etxea etorri nauk baimen guztikin". Bizilaguna Urretxuko koartelera joan zen segituan, Goardia Zibilei parte eman zien eta mutil hori atzera lehen zegoen lekura itzuli zuten.

Gosea

Ni 1944an jaiotakoa naiz eta nik ez dut goserik pasatu. Ondoko baserriean ogia egiten ziguten eta arrautzak ere bagenituen... Nondik edo handik ... elkar laguntzen genuen. Nere amaren jaiotetxetik ere ekarri ohi zizkigutenean indabak, patatak ...

Eskola

Mutikoak ginela Santa Lutziko eskolan hasi ginen garaian, Cara al Sol-a abesten genuen eta egunero Espainiako Bandera kanpora atera ere bai. Txandaka egiten genuen. Batek eskailera eta besteak bandera hartuta. Arratsaldean jasotzen genuen, eskola bukatzen zen garaian.

Irakaslea Hondarribiakoa genuen eta garai hartarako, ez zen Franco gehiegia aipatzen zuenetakooa. Inspektorea etortzen zenean bai, orduan abestia ondo ikasten genuen eta inspektorearen galderetarako prestatzen gintuen. Eskola guztia erderaz ematen genuen, baina irakasleak ez gintuen zigortzen euskaraz egiteagatik. 40-45 ikasle egongo ginen klasean. Santa Lutzikoak, Ezkiokoak, Gabiriako batenbat... 14 urte izan arte edo aritu ginen eskolan. Entziklopedia bat genuen denerako, eta horrekin. Maiatzean, egunero Flores a Maria; erosarioa errezzatu eta abestu.

Luis Mari Segurola Larrañaga

Apaiza.

"Aitonari hileta egin eta astebetera azaldu zen"



Apaiztegira bidean

1936ko abenduan jaio nintzen eta Don Nikolasen monagilloa izan nintzen Urretxun. Hamaika urterekin apaiztegira joan nintzen, Saturrarena. Lau urteren ondoren, Donostiarra.

Lehen Euskal Jaia

Gogoan dut lehen Euskal Jai eguna, Franco garaia zen. Jende asko etorri zen eta oso aberatsa izan zen. Gure karrozak Iparragirrek Madrilen Gernikako Arbolak kantatu zuela irudikatzen zuen eta lehen saria jaso genuen.

Familiokoak gerran

Nire osabak gerran ibili ziren, Atzerrekakoak. Gerrara joatea tokatu zitzainen eta nire aitari ere bai, baina hemen langilea behar zutela, eta azkar itzuli zen atzera, Sarraldera lanera.

Aitona Kuban borrokan

Nire aitonari Kubara gerra egitera joatea egokitu zitzzion. Hilda zegoela jada, Atzerrekan hileta egin zioten eta handik astebetera etxearen azaldu zen. Heriotzaren albisteak ez ziren zuzenak.

Aranburutarrak

Hilario Aranburu Martínez, José Ángel Díaz de Espada Aranburu, José María Aldalur Aranburu. Hilario Aranbururen bilobak.

“Vinieron, se lo llevaron y se acabó”



El Abuelo, Hilario Aranburu, Kalamatintxo

Nuestro abuelo, según hemos leído, debió de participar en la fundación del Gipuzko Buru Batzar, (1908ko apirilaren 20an Zumarraga - wikipedia), en Antio. Era natural de Tolosa. Era atabalero y trabajaba como cestero. Hacía cestas, butacas... También era pregonero y pregonaba para todos los bandos. Solía hacerlo con el tambor. También tocaba en la banda de Urretxu, con los *txistularis*...

Vinieron, se lo llevaron y se acabó. Ya no se supo nada más de él. Primero le llevaron a la cárcel de Ondarreta y luego, creemos que a Hernani, para matarlo. Para entonces sus dos hijos, tíos nuestros estaban en el frente.

Vino la Guardia Civil a casa y se lo llevaron. Nos dijeron que era para interrogarle, para hacer unas declaraciones. “Ya vendrá!” nos dijeron. ¡Qué cojones! lo llevaron a matarlo directo ya.

Al principio, en casa creyeron que volvería, pero la abuela y una tía fueron a la cárcel de Ondarreta, a llevarle una manta, algo de comida y un poco de dinero, 10 pesetas, lo que habían podido ahorrar. En la cárcel les cogieron las cosas y el dinero, pero les dijeron que allí no estaba. Volvieron a casa y ya no se supo más. La abuela iba al ayuntamiento, a preguntar por el abuelo y no era la única, porque se habían llevado a más.

Armaron la de dios, pero en esa época... les recomendaron que no armaran mucho jaleo. Nunca supieron nada más. A las mujeres, como castigo, les cortaban el pelo a cero, les daban aceite de ricino...

Según hemos oído en casa, a nuestro abuelo le llevaron junto a Ángel Belaustegui, en la furgoneta de la panadería Estrella.

La familia de la abuela, además, era del otro bando y con un miembro en el ayuntamiento, pero no hicieron nada. Seguramente al principio no creerían que los fueran a matar. Pero el no hacer nada por evitarlo...

Investigaciones posteriores

Intentaron mirar en el archivo militar de Bilbao, contactaron con los de Aranzadi... pero sobre la muerte de nuestro abuelo no hay nada. Son desaparecidos a efectos oficiales. ¡Y son muchos de los que no hay información! Por las cosas que se decían entonces, supusieron que los habían fusilado en Hernani. En esa zona mataron a muchos. Había dos fosas con centenares de cuerpos y además, los solían enterrar fuera del cementerio, no tenían derecho ni a ser enterrados en el cementerio. Los metieron fuera de la tapia y en el cementerio de Hernani todavía conservan la carretilla que usaban para transportar los cuerpos.

A unos los fusilaban fuera del cementerio y a otros en la pequeña cantera que había al lado del frontón Galarreta. Los mataban, los cargaban en la carreta de bueyes y al cementerio.

Mi padre contaba, que los familiares solían ir de noche, a desenterrar los cadáveres.

Recordar para no olvidar

Las familias de los 9 fusilados solían hablar entre ellos y un día en concreto al año, iban a Hernani, de incógnito, de noche. La lápida que los recuerda, la pusieron de noche también, a todo correr.

Andanzas de los tíos en la guerra

El hijo mayor, el segundo de los hermanos y hermanas en orden de edad, José, fue miembro de Acción Nacionalista Vasca (ANV) y marchó como gudari, al frente. El tío Juan, era del PNV y él también fue al frente de gudaris. Anduvieron en el mismo bando, pero no anduvieron juntos. Se marcharon antes de que las tropas llegaran a nuestros pueblos y anduvieron en Bilbao, Santander y Asturias. Se fueron retirando y después del pacto de Santoña, estos fueron a Asturias y al final les cogieron allí, a los dos. Los metieron en la cárcel y más tarde en los batallones de trabajadores forzados, tanto en Asturias como en León y Palencia. El tío José vino enfermo y nunca se recuperó de esa estancia. Les obligaban a hacer de todo. Les decían: “vosotros no tenéis derecho ni a la vida, hijoputas, separatistas...”. Para cuando volvieron ya sabían que habían fusilado a su padre y de hecho, Juan vino con una pistolita, para cargarse a uno del ayuntamiento. No lo hizo, pero porque le detuvieron.

Trabajando para el Gobierno Vasco

Nuestra abuela era prima de la madre del Lehendakari, José Antonio Aguirre y consiguió trabajo para tres de sus hijos en el Gobierno Vasco. Estuvieron trabajando en el hotel Carlton de Bilbao y también en la casa de José Antonio Aguirre. Por aquel entonces, el Gobierno Vasco tenía su sede en el Hotel Carlton. En el hotel, dos tíos nuestros trabajaron de ascensoristas. Uno tenía 14 años y el otro 17. Una tía, trabajó como asistente, tanto en el hotel como en casa de Aguirre. Ella tendría unos 23 años. Solía recordar que Aguirre era muy religioso, que siempre tenía el rosario a mano.

Cuando entraron los *patxikos* a Bilbao, a los dos chicos les pilló en el sótano del Gobierno Vasco. Vieron cómo vinieron y entraron las tropas en Bilbao y cómo bajaron la *ikurrina* y colocaron la bandera española en el hotel. Cogieron un pistolón cada uno y junto a un chico de Mungia, escaparon cruzando la ría, por monte hasta Mungia. Fueron al caserío del otro chico, se cambiaron de ropa y con los pistolones bajo el cinto, vinieron a casa andando. Por el camino la gente les preguntaba por el frente; a ver si Bilbao había caído...

Cuando vinieron, se enteraron de que habían fusilado a su padre. Además, uno de ellos (Miguel) tenía la edad de ir a hacer el servicio militar y le llamaron a filas. El panorama era desolador: el padre fusilado, dos hermanos en el frente...

Un hermano en las filas nacionales

Miguel estuvo en el frente: en Teruel, en la batalla del Ebro... al preguntarle solía contestar: “yo lo primero que hice fue echar el cacharro (el fusil) y empezar a correr para atrás”. Tuvo varias intentonas de pasarse al otro lado, pero solía pensar: “Para que voy a pasar, si esto... está acabado. Si me paso al otro lado, se jodió”. También pensó en escapar a Venezuela, pero no lo hizo. Lo pusieron en primera línea, a tirar tiros contra sus hermanos. A los nacionalistas los solían poner en primera línea, a ver si se los cargaban. Decía que en un bombardeo, empezaron a caer bombas y que ni ametralladora ni hostias, la echó por ahí, se metió en un rincón y




Imagen del Hotel Carlton de Bilbao durante la Guerra

que se quedó él solo de toda la compañía, todos los demás murieron.

Requetés, curas y cristianismo

Un día, cuando vinieron los requetés en los camiones, dos tíos nuestros iban por la calle y una le dijo al otro: "Kontuz kontuz! Etorri hona!" y un requeté les respondió: "¡Oiga! ¡Aquí se habla el cristiano!"

Un día, celebraron una misa en la plaza Iparragirre de Urretxu y allí estaba toda la compañía y el capellán, con la pistola en el altar, alabando a los requetés.



Hambre

Un tío estaba en la marina mercante y solía traer aceite, maízena, chicles, azúcar... Volvía aquí y se encontraba con el racionamiento y solía contar cuántas alubias le tocaban a él, unas 10 o 12 y le pedía a la abuela que se los preparara.

Escuela y falange

Mucha gente iba al Auxilio Social, a comer, y a los niños les daban fusiles de madera y les ponían el traje de falangista. Además, un jefe de la Falange solía venir una vez al año, para conseguir que algún niño se inscribiera en los campamentos de la Falange, que se hacían en Orio. Cuando venía, teníamos que cantar el Cara al Sol, puestos de pie y si nos negábamos o bajábamos el brazo, nos inflaba a ostias.

Benita Yurrebaso

Zumarraga
1923an jaioa.

"Pedro Lizárralde osaba Elgetan hil zuten"



Soldaduen etorrera

Gure etxea Azkoitiara bidean zegoen eta karmen beten zihoa zen soldaduak, bidean goitik behera. Gure aitak eta inguruko baserriako gizon gehiagok egunak pasa zitzuten etxetik alde egin eta agertu gabe, basozuloren batean ezkutatuta. Edonon tiroak entzuten ziren eta! Etxeetan harrapatzentziz zituzten gizonak eurekin eramatzen zitzuten gerrara eta haien bila etxeak arakatzen zitzuten. Orduan beldurrez bizi ginen. Belar zuloetan ezkutatu ziren hainbat.

Etxean iritzi desberdinak

Ama oso nazionalista zen eta aita, berriz, beste aldekoa. Hauteskundeak zirenean kotxe banatan eramatzen zitzuten botoa ematera: ama kotxe batean eta aita bestean.

Osaba bat Elgetan hila

Bi osaba izan nituen nik, gerran aritu zirenak. Amaren anaia ziren, Joxe Mari eta Pedro Lizárralde. Bigarren hau Elgetan hil zen. Nazionalisten troplean joan ziren biak, voluntario edo ihesi, soldaduak herrira iritsi aurretik. Joxe Marik kontatu ohi zuen, anaia tiroa jota lurrean ikusi zuela Elgetan, odoletan, zauritura eta bere albotik pasa zela, baina soldaduak atzetik zitzutela eta ezin zuela laguntzerik izan. Ez zuen ezer egiterik izan eta pena harekin bizi izan zen gerora. Gure etxetik entzun ohi genituen Elgetako tiro eta leherketak. Isildu gabe aritzen ziren!

Osaba Pedro, Elizkalekoa zen. Gizon harroa zen, baina oso ona eta zintzoa. Ezkongabea zen eta asko maite genuen. Berak gu ere bai.

Leturiondoko zubia

Leturiondoko zubia erdi botata utzi zuten, soldaduak iritsi aurretik, ihesean. Bonba bat edo, jarri zioten, baina ez zen guztiz erori.

Etxeberri soldaduz beteta

Etxeberri inguruko Antzu aldeko baso hori soldaduz lepo egon zen. Baserritarrak kexatu egiten ziren, nahi zutena egiten zutela eta. Castellanoak zirela atzematen genien, baina guk ez genekien erderaz.

Gosea

Poliki-poliki baina azkar baretu zen gerra kontua gero. Allurbe irinakin (ganaduarentzako belarra) egindako ogia ematen zuten. Besterik ez zegoen eta jan egingo zen. Hala ere bizirik geratu ginen.

Mariano Aperribai

Aramaion jaioa
1922an

“Plaza erdian harrapatu ninduen bombardaketak”



Bernardi Aldasoro Ormazabal

Mutiloa jaioa
1923an.

“Leherketa batek belarria lehertu zion anaiari”



Esnea partitzeik ez

Gerra hasi zenean, Ezkio-Itsason nengoengorri. Goizean esnea banatzera joan nintzen, gerrako jende hori etorri zenean. Kamino beten zezenetan behetik gora. Zertara joan nintzen galdu zidaten, eta nik, esnea banatzera nindoala. Bada, ez zidaten joaten utzi, egun hartan esnea ezin zela partitu esanez. Atzera baserrira itzuli nintzen.

Hurrengo egunean berriro joan nintzen. Soldadu asko zegoen baina jada ez zidaten oztoporik jarri. Esnea eskatzen zidaten, eta esne banatzale batzuek zuten guztia ere eman zieten. Nik ez ordea, nik esnearen zain zeuden familiak nituen eta soldaduei ez nien guztia eman. “Bes-teek zer egingo dute ba?” galdu nien eta “haiak molda daitezela” izan zen erantzuna.

Ormaiztegi aldetik etorri ziren batzuk, basoetatik eta Gabiria aldetik. Hor zetorren gizon pila! Eta edozeini tiratzeko kapaz ziren! Ama zaharrak ahuntzaren bila bidali ninduen baina ez nintzen joan, beldurrez. Han geratu zen ahuntza.

Ogi beltza

Garai hartan ogi beltza egiten zen, gorri-beltza, eta jan ogia eta jan ogia, bizia luzatzen zuen baina besteirk ezer ez. Gerra baino txarragoa ondorengoa izan zen. Allurbe irinakin egindako oiga omen zen.

Zumarragako plazaren bombardaketa

Bi morroi geunden, esnea banatzera joandakoak. Plazan geundela, halako batean hegazkina entzun genuen eta Agerraundiko morroiak, Santiagok, zera bota zuen: “abion osti hoi e! bazetorreko pa!” Bada, esan orduko, han genuen goitik behera. Lau-bost bonba bota zituen. Ni, ontziak eskuan nituela, plaza erdi-erdian harrapatu ninduen bombardaketak, baina ez zidan ezer ere ez egin. Agerraundikoa, arkupetako Sa-gastiberri dendar sartuta, bonba batek eritu egin zuen, iztarrean. Bonba barrura sartu zen, kristalak hautsi zituen eta Santiago gain beste emakume bat ere zauritu zuen, eskaileretan behera zetorrena. Ospitalera eraman zituzten eta osatu ziren.

Hauez gain, lau asto ere eritu zituzten bonbek eta baten bat hil, Santiagoren kasu, orduan, plazaren alde batean astoentzako lotulekuak baitzeuden.

Bonbak erori bitartean ni horrelaxe, geldi geratu nintzen plazaren erdian. Ez nekien nora jo eta! Bonbardeo zen! Bertan geratu nintzen eta ondo atera. *Danb! Danb! Danb!*

Gerraren Hasiera

Gerra hasi zenean, Zumarragan nengoengorri, baina denbora batez eskolarik egon ez zenez, Mutilora itzuli nintzen. Gerra hasi zenean, tiroak entzuten ziren Espaňola mendiaren ingurueta. Gabirin ere tiroak entzuten ziren, gertun entzuten ziren! Gero soldaduak hasi ziren etortzen.

Soldaduak okindegian

Ogia egiten zuten. Urrutiko sorotik arbia ekartzen zuten, hura egosi eta... soldaduek arbia jaten zuten. Eskuak odoletan izaten zituzten. Soldaduek dena eramatzen zuten okindegian. Labea haien erabiltsa zuten eta ogi motz batzuk egiten zituzten, txuskoak, edo. Danetik erabiltsa zuten oiga egiteko: haien ekarritakoa eta gurea. Arbi bila joaten zena Miranda de Ebroko zen.

Bombardaketak Zumarragan

Zumarragako bombardaketen garaian, Eitzan, ume txiki bat zuen lehengusu batek eta hura manta handi batekin bildu, nere besoetan jarri eta Korta taberna dagoen etxeko bodegara jaisten ginen. Ni bezela, ume gehiago egoten ziren han, eta baita helduak ere. Bonbardaketa batean, geltoki ingurueta zegoen zapataria eta mutikotxo bat hil ziren eta baita nerekin eskolara joaten zen Maria izeneko neska bat ere. Sirenak entzuten hasten ginenean, sotoan gordetzen ginen. Mutiloa ere bota zituzten bonba batzuk, lehen mediku etxea zegoen lekuaren. Handik urte batzuetara atera zuten lehertu gabekoren bat.

Espetxeetara bisitak

Garai hartan, kotxe asko ez egonik, espetxeetara bisitan zihoa zen askok Izagirretaren okindegiko furgonetan egin ohi zuten bidaia hori.

Eskuan bala zauria

Egun batean, Urteaga baserriko aitona bat etorri zitzaigun ate joka. Eskuan bala zauri bat zuen. Soldaduak Mutiloko bere baserriko atea jo zutela eta tiro egin zioten. Haren osaba bat ere hil zutela esan zigu, bularrean tiro bat jasota. Ez omen zen momentuan bertan hil, baina ez zuten inora eraman eta ohera moduan joango zen tiroa jasotakoan, eta han odolustu zen. Aitona hura Zumarragako ospitalera eraman zuten, orain Eitza taberna dagoen lekura. Ospitale txiki bat zegoen han eta hara ekarri zuten. Ez omen zegoen medikurik eta Sor Candidak sendatu zuten. Gerora gogoratzen zuen: “Zenbat lagundi zidan niri Sor Candidak!”.

Baserri bateko nagusia karlista zen eta eskuan bala zuen aitona hari, Aztirian zegoen beste karlista baten ardiak defendatzera joateko esan zion. Aitona hark, zer eta gezurra esan zion. Beste baserri batera joan beharra zuela, gurdia bat konpontzera. Bere asmoa *txapelgorriaren* etxera joatea zen, alkahuetekeiak egitera. Atzera itzuli zenean, Aztiriko tabernan sartu omen zen; ardoa oso gustoko zuen eta guztia deklaratu zuen: nun izan zen, zer... eta orduan eman zioten tiroa, etxera bueltan zela.

Etxeari su, semearen bila

Etxe batean, emakume alargun bat zegoen, sei umerekin; hurrengo etxean familia izateko zain zegoen beste emakume bat, senarra *gorriekin* frontera joana zuena; beheko baserriko seme batek alde egin zuen eta bestea ganbarako belar-piloan ezkutatu zen. Soldaduak eterri zirenean, semeagatik galdu zieten eta baserrikoak, berak ez zuela semerik. Eta baietz, eta ezetz, eta etxeari su eman behar ziotela. Ama negarrez. Halako baten, poxpoloak edo txiskeroa atera zuten, falange kuadrilla horretakoek, eta azkenean amak semeai hotsein: "Anastasio! irten zak! etxei su eman bar dio ta!". Irten zuen, eta Beasainera eraman zuten. Jatetxeren batean edo izan zuten preso.

Ganadu artean zaurituta

Beste baserri batean, ganadu asko zuten eta nagusiak katetik libratu zituen. Txahal horiek basatiak ziren, handi xamarrak eta nagusia txaha-lekin zegoela, hankan bala batek jo zion. Mutilo aldean edo sendatuko zuten.

Guardiak udaletxean

Gure aita eta, gauean udaletxera jaisten ziren, eskopetarekin guardiak egitera.

Eskerrak umea ez zen negarrez hasi!

Ondoko baserri batean ere, bertako andreari senarra non zuen galdu zioten. Etxe barruan hiru hilabeteko umea zuen eta senarra ganbaran zegoen ezkutatuta. Andreak, berak senarrik ez zuela erantzun zien. Eskerrak umea ez zen negarrez hasi! Ondoko etxebizitzan ganadua lapurtu zuten... Harategirako moduko bi behi eraman zituzten handik soldaduek. Kamioiarekin eterri ziren, eta Legazpira eraman zituzten.

Baserritik herrira

Soldaduak baserriatik pasa ziren, bertan bizi zirenei herrira bizitzera jaitsi zitezen aginduz. Gure aita eta ama, beste lehengusu batekin, jaitsi egin ziren, herritik gertuago zegoen baserri batera. Behi eta txahal bana zituzten gurean, eta Seguratik eterritako falangista batzuek, txahala eraman egin ziguten, jateko behar zutela. Ormaiztegiko Bitxarrardoko Hilariok ezetz esan zien eta txahala libre geratu zen.

Anaia Zumalakarregi Tertzioan

Gure anaia zaharrena, 18 urtekoa, boluntarioen *kuerpoan* sartu zuten. Tercio Zumalakarregi izenekoan. Gerra bukatu arte han egon zen. Bartzelonan zegoela leherketa batek belarria lehertu zion. Bartzelonan, Teruelen... ibili zen. Mutiloako jende gehiagorekin joan zen, baita hainbat zegamarrekin ere. Nire gizona ere haikein joan zen. Otxarten zegoen Mikelete, eta hura ibili omen zen soldaduak iritsi aurretik Zegaman mutikoei instrukzioa erakusten. Nere bi edo hiru lehengusu ere Zumalakarregi Tertzioan aritu ziren. Apaiza ere zegamarra zuten: Don Lorenzo Arakama. Boluntarioa, hura ere. Hiru hil ziren tertzio hartan: Blas Alustiza, Jose Antonio izeneko bat eta Tomas Goiburu, Berbategikoa. Bi Legorburu ere. Eskutitzak eta dirua bidaltzen genizkion anaia, permisoz etortzen ziren mutilekin. Arropa ere bai, puntuan egindako eskularruak eta *pasamontañas*ak, kasu.

Luis Goya hil zutenekoa

Luis Goya izeneko gizon bat ere, Beasaingo fabrikan zegoen gizonik zintzoena zela zioten. Mutiloatik Segurara bitarteko bidean, paretaren kontra jarri eta bertain hil omen zuten.

Gabiriarrak

Lucio Gabiriaren anaia ere, Joxe Mari, abarkekin lanean ari zela eraman omen zuten etxetik. Lehenengo Gabiriara eta gero handik frontera. Eta aurreragoko etxe batean hildako hiru anaia ere baziren.

Emakumei ilea moztu

Emakumei ere ilea mozten zieten. Kasu bat oroitzen dut, Tarrada abizenekoa edo, geltoki ingurueta bizi ziren. Aita *babajantea* zuen. Alaba nerekin ibiltzen zen eskolan eta hari ilea moztu zioten.

Irratia

Mutiloan baguenen aitak ekarritako irrati txiki bat. Radio Clandestina edo, entzuten genuen. Errusiatik egiten zutela esaten zuten, baina guk ez genuen ulertu ere egiten. Gernikako bombardaketen inguruko gauza izugarriak kontatzen zituzten, hildakoak, tripak ateratakoak... alemaniaarrak eta italiarrak ibili zirela esaten zuten.

Eskola

Mutilon jao nintzen ta han ibili nintzen 10 edo 11 urte bete arte eskolan eta gero Zumarragara joan nintzen, korbentura ikastera, Hijas de la Cruz izenekora. Orain Zumarragako "Kutxa" dagoen tokian zegon, gero bidali egin zituzten. Gerra hasi zanen Zumarragan nengoan. Familiarrak etxera eterri ziren, Bergarakoak, eta gero eskolarik ez zegoen eta denbora pixka batean egon nintzen ni Mutilon berriz. Eta ama eta aita han. Mojak eterri bitartean, gerra garaian Rosalia Landa, Aparizioren alabak ematen zigun eskola, eta Hotel Urolako Maria Joseba Matek ere bai. Eskolan errezzatu egiten genuen eta Cara al Sol eta hori ere kantatzen genuen.

Espetxea Mutiloan

Mutiloan espetxe inprobisatu bat ere egon zen, maistran etxeen. Lau edo bost egunez hainbat nazionalista izan zituzten han; komunik ez zutela eta jaten ere apena ematen zietela esaten zuten.

Fusilaketatik bizirik irten

Beasainen, gure izeba baten anaia eta beste batzuk hartu zituzten eta hilerrira eraman. Denei tiro egin zieten eta lurrera erori ziren, baina gure izebaren anaia, Larrea, ez zuten jo. Soldaduek alde egin zutenean, irten eta etxera itzuli zen.

Ormaiztegiko zubia

Jakin genuen bota zutela eta ikustera joan ginen. Behera erorita zegoen.

Errazionamendua

Errazionamenduarekin gaizki ibili ginen. Gutxi ematen zuten. Landa eremuetan, hilabetean litro erdi olio pertsonako eta industria eremuetan, berriz, litro oso bat. Ogia ere oso txarra zen eta ez zegoen xaboirik. Guk errota genuen etxeen eta ogia egiten genuen. Irina egin lehendabizi, eta ogia gero. Guardia Zibilak errota ixtera etortzen ziren, aldi baterako, baina gero, haiak ere jan behar zutela, eta beti eskean etortzen ziren. Behin, guk emandakoaren truke edo, 20 litroko olio garrafa ekarri zigun Guardia Zibil batek. Gaston izena zuen. Behin, prezintoa kenduta harrapatu gintuzten eta errota itxi ziguten. 10.000 pezetako multa ere jarri ziguten. Ogi zuria ez zegoen jaterik eta egiten genuenean, beldur handia pasatzen genuen. Amak, urea eskuarekin botata, errotarihotsik egin gabe jareginez, taloak edo ogi-taloak egiten zituen.

Garia udaletxera eramatzen zituen eta kobratzen genuenetik, zati bat herrian gelditzen zen, eta handik Servicio Nacional del Trigora eramaten zuten. Arrautzak ere eramatzen zizkigutenean.

Concepción Maiztegi Alberdi

1930ean Urretxun jaioa.
Alta Bonifacio Maiztegi eta ama Joxepa Alberdi

“Aquellas mujeres sí que trabajaron”



Miedo

Vivíamos al lado del ayuntamiento de Urretxu y de nuestra ventana se veía muy bien Beloki y toda la parte de atrás. En los días en los que entraron los soldados, en el tiempo que anduvieron aquí, tres días estuvimos en casa sin salir. Porque no podías salir de casa, porque si salías de casa te cogían y te llevaban por ahí y no volvías.

A la noche, mi padre y mi tío hacían guardias en casa. Cerraban la puerta con un hierro grande y ponían partes de ruedas para los carros de los bueyes, para atrancarla, para que no entrara nadie.

Aquí estuvo un batallón de soldados. Algunos estaban en Santa Lucía y otros por aquí. En el ayuntamiento tenían una intendencia. Pasaron bastante tiempo aquí.

Campanas

Cogían un pueblo y tocaban las campanas.

Puentes bombardeados

Los soldados entraron por la parte de Argixao y de la parte de Antigua pasaron al caserío Aizpuru. Vimos cómo pasaban los milicianos hacia el caserío Aizpuru. Iba una cuadrilla larga. De allí, sentimos que echaron alguna bomba hacia donde está el puente para entrar al paseo del bidegorri, porque el puente se movió. Más abajo también, donde estaban las barreras del tren Urola. Allí rompieron el puente también. Tardaron mucho tiempo en arreglar este puente. Solíamos ir con las monjas a pasear y le llamábamos el puente roto.

Balas en el serrín

En casa teníamos dos fogones, uno para el serrín y otro para la leña. Después de que pasaran esos días, un día estábamos comiendo y la cocina del serrín explotó. Resulta que era una bala que había caído al serrín y cuando la madre fue a hacer el fuego no lo vio y explotó. Salimos disparados corriendo. No nos pasó nada.

La gente huye

Para cuando vinieron los soldados muchos vecinos se habían marchado ya. La gente se fue con lo puesto, porque lo que tenían en casa, dejaron en casa y luego vinieron otros y se lo requisaron. Algunos volvieron pero otros no y ya hubo también quien volvió y se encontró con que no tenía nada, que se lo habían quitado todo y se marchó.

Fusilados

Me acuerdo de Gabilondo, Hilario. Lo sacaron de casa y ya no volvió más. Sin haber hecho ningún pecado. Era un hombre grande, un buenazo. También mataron a Belaustegi, Zabaleta, Becerra, Aranburu... conocíamos a todos. Todo era pecado entonces y vivíamos con miedo.

Hambre y pan

Nuestro padre, para tener algo de comida en casa, solía trabajar los domingos en los caseríos y traía alubias, trigo... Lo malo era que luego tenías que ir al molino a moler el maíz y era como si fueras a robar, tenías que ir a escondidas y hacerlo todo a escondidas. Durante el racionamiento nos daban boniatos y cantábamos: “boniatos fritos que ricos son, pero crudos y cocidos son malísimos...”. Había un Auxilio Social, donde ahora es el rascacielos, daban de comer a la gente, a los niños.

Te daban un pan redondo, color Borona, que estaba muy malo. Nuestra madre hacía el pan en casa. Aquellas mujeres sí que trabajaron para sacarnos a todos adelante. Eso pasaba en todas las casas.

Elixabete Gallastegi Ormazabal

Bergaran jaioa
1923an

“iBarrio chino, cada vez más cochino!”



Mairuengandik ihesi

1935ean, gure aita hil egin zen, eta gure ama alargun gelditu zen lau umerekin: bi mutil eta bi neska. Gerra hasi zenean, “moruak zetozela eta moruak zetozela” eta gure osaba batek, alkateorde izan zenak, Durangora eraman gintuen, amak joan nahi izan ez bazuen ere. Moruak zetozela eta gauza txar asko egiten zituztela errepikatzen zigun. Izen ere, Elgetan esaterako, neska gazte batia mina eman zioten, leihotik ihes egiten harrapatuta. Elgetan *sarrazenia* egin zuten. Durangon egon ginen bonbardeora arte. Bonbardaketa gertatu zenean, Sondikara joan ginen, baina Bilbon sartu ziren eta alde guztietai bonbardaketak zeuden.

Osaba eta lehengusua

Durangon egon ginen bitartean, aitaren arreba baten familiarekin egon ginen. Gure modura, haietakoak zapatariak ziren. Calzados Berriko fabrikan egiten zuten lan, eta hegazkinak etortzen zirenean, sotora jaisten ziren. Hala ere, egun batean, hegazkin asko zetozela eta, osaba Leonardori zera okurritu zitzaion: “Iñaki, gu kanpora joango gaittuk, hainbeste abioi zerek dana txikittuko dabela”, eta kanpora irten zirenean, hegazkin batek ametrailatu egin zituen. Biak hil ziren. Durangotik oso oroitzapen txarrak ekarri genituen.

Etxera buelta: Etxea erre eta ama lanean hasi behar

Aita gure bila joan zen, eta etxera ekarri gintuen. Etortzerako, etxea erre egin zigutenean, faxistek eta karlistek. Aitak tailer bat zuen, eta tailerreko lurrean, eskari mordo baten paperak zeuden bilduta. Amak alkandora *erremangatu*, eta tailerra martxan jarri zuen. Osaba Migueli, kontratista izandakoari, deitu zion, eta amak lanera gonbidatu zituen. Udaletxeak, baina, ez zien baimenik ematen, eta osaba horrek hala esan zion amari: “zuek hasi lanean, eta trabaren bat jartzen badizue, abisatu niri”. Lanean hasi ginen, eta lehenago aitarekin lan egiten zutenak tailerrera itzuli ziren. Eibartik eta Elgoibartik jenero bila etortzen ziren; orduan guztia falta zen, eta lan asko zegoen, eta lantoki batzuetan ez zituzten espesietik intendako pertsonak hartzen lanerako.

Etxea erre zigutenez, amak beste bat eraikitzea zuen buruan, eta baita egin ere! Entzuna dut, garai hartan karlistak ziren bi pertsonek lagundu ziotela amari zeregin horretan. Bata, ferretero zen, Emeterio, edadeko gainera, eta amari behar izan zuen guztian lagundu zion. Amak ez zuen dirurik, Durangon gastatu baitzituen guziak, baina gizon honek ez zion inoiz presarik agertu kobratzean. Bestetik, arkitekto batek ere lagundu zion amari etxea eraikitzen. Hiru pisuko egin zuten, eta ama ordaintzera joan zitzainean, arkitektoak ez zion dirurik onartu, hala esanez: “usted no me va a pagar ni cinco céntimos, porque a usted le han hecho una cosa que no se puede hacer en este mundo”. Ez kobratzeaz gain, noizbehinka errebisioa egitera pasatzen zen, eta ordundik, gabonetan eta paskuetan oilasko parea eta Bergarako rellenoak, pastel gozo batzuk, eramatera joaten ginen arkitektoarengana. Poliki-poliki amak denak lortu zituen. Ama oso gogorra izan zen: Zegamarra zen...

Okindegitik, presondegira

Okindegiko aitak, nire osabak, buelta asko egiten zituen okindegiko furgonetarekin espetxeetara, senideak bisitetara eramatera. Familiarekin joan ohi zen, preso zeudenak bisitatzen eta Madril aldera ere iristen ziren. Izan ere, gerra bukatutakoan, mordo bat sartu zituzten kartzelara, iruditzen zitzaien oro. Familia askori lagundu zien. Badakit osabak disgustoak izaten zituela bidaia horiengatik, baina berari ez zion axolarik eta hurrengoan berriro eramatzen zituen. Behin edo behin espetxeen sartzekotan ere izan ziren, izan ere, guztiez gaizki pentsatzen zuten orduko agintariekin.

Kostola baserrikoak, Deskargan lurperatuta

Gure aitari egurra ekartzen ziotenak, Bergarako Kostola baserrikoak, bi anaia ziren. Biak hil zituzten, eta Deskargan lurperatu zituzten.

iBarrio chino, cada vez más cochino!

Margaritak, emakume karlistak, Eitzara etortzen ziren, oihu egitera: “iBarrio chino, cada vez más cochino!” esanez. Guk, osaba konpromezu batean jarri genuen, herriko karlistek ondo zekiten eta nondik gentozten, eta nola, gure beste osaba bat PNVko alkate izan zen Bergaran. Aitaren aldeko familia PNVkoa zen orduan. Gu beldurrez egoten ginen. Oraingo manifestazioen modura etortzen ziren. Herriko familia karlista ezagunetako alabak ziren, Korta parean jarri eta kriston deihadarrak egiten zituzten.

Durangoko bombardaketa

Durangon, Santa Ana elizaren ondoan bizi ginen, eta elizako kanpandorrean, zakuz inguratutako segurtasun eremua zuten jarrita. Kanpaiak jotzen hasten zirenean, han sartzen ginen. Bada, egun hartan, osaba guregana etorri zen, eta hegazkin asko zetozela, eta elizara joan beharrean mendira joateko esan zigun. Lehengusinek eta nik hala egin genuen, eta mendira joan ginen, nahikoa urrun, eta baserri batean topatu genuen aterpea. Han sartu ginen, eta Durangon sekulako sarraskia egin zuten.

Hegazkinak joandakoan menditik jaitsi ginen, eta besoetan hildakoak zituzten pertsonak ikusi genituen, hilerrira bidean. Hura desastre handia izan zen. Asko hil ziren, eta Durangoko bi elizetako bat bota egin zuten.

Hegazkinak Zumarragan

Eitzan, Korta tabernako bodegan ezkutatu ohi ziren familiak, hegazkinak zetozenean. Sarrera koltxoarekin tapatzetan eta han ezkutatzen ziren.

Galtzaileak, bakarrik

Orduan ez zegoen inor nazionalistei laguntzeko. Karlistak ez ziren beste ezer: faxistak, eta faxistak, faxistak dira.

Gosea

Okindegira jendea etortzen zen, gosez, ogi mutur bat, opil bat edo apurrak eskatzen. Ogiaren eskasia zegoen, jaki guztiena, izan ere, jaki guztiek errazionatuta zeuden. Guk, gazteak orduan, emateko ezer ez genuela erantzuten genien, baina gure izeba sukaldetik irteten zen, eta ogi pusketa bat eman ohi zigun, eskean zetorrenari emateko. Guk, gazteak izaki, ez genuen behar gogor hura somatzen, baina izebak bai.

Ogi zuria, Gabiriko fraileen eskutik

Ogia txarra izaten zen, beltza, baina Gabiriko fraileek irin zuria ekarri zuten. Euretakoak kanpoan zeuden ikasten, eta beste herrialdeetatik irin zuria bidaltzen zuten Gabiriarra. Ogi zuria, beltza baina garestiago saltzen zen, baina behar handia zuenari eman egiten genion.

Mayoratarak, kolpatuta

Jostera Mayoratarren etxera joaten nintzen. Frankoren aldekoek zanpatu egin zuten familia hura. Seme bat, Iruñean izan zuten preso, eta egun batean, mendira eraman eta menditik behera bota zuten. Bigarren seme bat gerrako denboran hil zieten. Eta hori gutxi balitz, josten ari ginen garaian, etxea arakatzera etortzen ziren. Beldurrez eta amorratzetan egoten ziren etxeak, eta azkenean, aitak, Franciscok, bere buruaz beste egin zuen ortuko txabolan. Etxe hartako alabak erakutsi zidan niri gaztelaniaz hitz egiten.

Beste inor ez zen egongo Eitza osoan. Eta hemengo nagusiak ziren gainera, eurak ziren hemen agintzen zutenak.

Emakumei ilea moztu

Beragan emakume batzuei ilea moztu zieten, zigor moduan. Beraien lokalera eraman, ilea moztu eta etxera.

Etxean lapurtutakoak Ordizian salduz

Ni umea nintzen artean, baina nire lehengusinak zaharragoak ziren, eta hainbat bazekiten, gure etxearen lapurtutako ondasun guztiak, mantak, izarak eta arropak bestek bestek, Villafrankan saltzen zituztela. Eurek bazekiten zeinek lapurtu eta saltzen zituen eta baita gure etxeari su zeinek eman zion ere. Tailerra osorik utzi ziguten, baina makinak, lurrean sartuta zeudelako soilik libratu ziren, erreminta eta beste gauza guztiak lapurtu egin zituzten.

Isunak, erregimemaren alde

Gure osaba-izeba batzuek ez zuten umerik, bada, hilero-hilero, gutun bat iristen zitzaien, esanez: "usted dona 25.000 pesetas para la causa". Diru pixkat zuten aurreztuta, baina ez zieten bankutik ateratzen uzten. Halako txerriak izan ziren. Diru mordoa jan zieten haiei.

Eugenio Mallea

Urretxu 1925

Aniceto Mallea Alsua (ANVko zinegotzia) eta Jesusa Lizarralde Plazaolaren alaba

"Desterraron a mi padre a 300 km de Urretxu"



Aita ihesi

Mi padre era de Acción Nacionalista Vasca, concejal en Urretxu (Aniceto Mallea) y se escapó como todos a Bilbao y luego se fue a Francia y luego estuvo mucho tiempo allí. Gracias a que se marchó, porque si no, le hubieran matado. Mataron a nueve aquí. No creo que mi padre se fuera a luchar. Tenía miedo y se fueron varios de la cuadrilla: Berriotxo, Jauregi... Pasó varios años en Francia, porque en el pueblo le prohibieron entrar, por persona indeseable. Había que procurar que no supieran dónde andaba... Mientras estuvo allí, escribía cartas... pero le echaron nueve años de castigo, en los que no podía acercarse a 300 kilómetros de Urretxu. Se fue a Barcelona y estuvo allí los nueve años. En total estuvimos 13 años sin el aita.

Cuando volvió, yo le recordaba muy distinto. La madre tenía esa preocupación de que las hijas no lo conoceríamos y sacaba las fotos de casa y nos solía preguntar: "a ver si reconoces quién es el aita". Lo hacía para que no lo olvidáramos. Tenía un hermano en la División Azul y otro Guardia Civil.

Cuando volvió, no lo reconocimos. Él nos miraba y nosotros le mirábamos como si fuéramos personas desconocidas... Estábamos emocionados pero sin saber demostrarlo... Tampoco sabíamos que iba a venir aquel día... Vino muy enfermo de los bronquios y al final murió por eso.

Gerraren etorrera

Yo tenía 11 años cuando llegó la guerra. Vimos cómo entraron por Beloki. Éramos niñas y no le dábamos tanta importancia. Teníamos miedo de que nos fueran a hacer algo y no salimos casi de casa. Se decía que eran malos y que los que teníamos algún familiar que se había marchado no podíamos protestar... Durante la guerra no se hablaba, no se decía nada, cada uno veía las cosas pero no se ponía en contra de ellos...

Frontón Ederrena

Aquí, en el frontón, los fachadas tenían algo parecido a un cuartel.

Gente necesitada

Detrás del rascacielos, en las ruinas de una fábrica de cerillas, se puso un comedor, para dar de comer a la gente necesitada. Porque dinero ya había, pero no había qué comprar con el racionamiento...

Zumarraga y Urretxu, almacén de abastecimiento para la tropa

Aquí, Zumarraga y Urretxu, eran como un almacén para ellos. Era un centro que cogía de Azkoitia, de Legazpi, de Beasain... había mucho de todo y mucha gente. Se quedaron mucho tiempo.

Italianos en casa

Tuvimos soldados italianos viviendo en casa y también en la vivienda de al lado. También alemanes que vinieron a fabricar bombas a la fábrica de Patricio.

Hambre

Te daban lo justo: chocolate, azúcar, aceite... Tenía una amiga que era panadera... Tenían tanto miedo que no nos pasaban ni medio gramo de más de pan. Las mujeres fachas tenían una agrupación llamada Margaritas. Había mas gente de Zumarraga que de Urretxu. Nosotras también hacíamos desfiles y esas cosas, porque si participabas te daban más en el racionamiento. Pasábamos mucha hambre, porque dinero ya teníamos, pero no había nada para comprar. Mi hermana cogió las fiebres tifoideas, que en Zumarraga fueron tres y en Vilarreal dos.

Emiliano Valverde

Su familia vivió en este portal (Actualmente Gernikako Arbola plaza). Luego se marcharon a San Sebastian. Jesus, Begoña, Serafín... a Emiliano lo mataron en Beloki.

Fusilados

Les conocía pero poco, eran mayores que yo... No se dijo nada, que los habían matado y poco más... No tuvimos mucha relación con nadie, porque los que se habían quedado eran todos fachas.



Aniceto Mallea Alsua,
Padre de Eugenia Mallea

Copia de la sentencia impuesta a Aniceto Mallea Alsua,
Padre de Eugenia Mallea

SENTENCIA

En la ciudad de Pamplona a veintidos de agosto de mil novecientos cuarenta.

Señores. Visto por el Tribunal Regional de Responsabilidades Políticas el expediente
Don Eladio Carnicero Herrero nº 789, seguido contra Aniceto Mallea
Don Leocadio Tamara García Alsua, mayor de edad, casado y vecino
Don Joaquín Ochoa de Olza de Villarreal de Urrechua, siendo Ponente
el Magistrado Don Leocadio Tamara García.

RESULTANDO: que el inculpado Aniceto Mallea se hallaba afiliado al partido de Acción Nacionalista Vasca, siendo elemento destacado dentro del mismo. Durante los sucesos revolucionarios de octubre de 1934 intervino personalmente para hacer suspender la sesión del Ayuntamiento y tomó parte en la manifestación celebrada por los elementos rojo-separatistas para obligar a dimitir al Alcalde tradicionalista de Villarreal. Durante la dominación marxista en dicha localidad fue designado para desempeñar el cargo de Concejal Gestor del Ayuntamiento en representación de Acción Nacionalista Vasca y formó parte de la Comisión de Finanzas. Se hallaba encargado de cobrar las nominas de los milicianos en San Sebastián. Proxima la liberación de la villa por las tropas nacionales huyó hacia Vizcaya y hoy se halla en ignorado paradero. Es casado y sus bienes de fortuna se hallan representados por una libreta del Banco Guipuzcoano de 6.005 pts, un bono en el mismo Banco de 10.000 pts y varias acciones de la S.A. Rojo-Zaldúa y Cia valoradas en 75.273 pts. Hechos probados y graves.

RESULTANDO: que incoado expediente, aportados los informes relativos a la persona y bienes del inculpado y llamado este por edictos sin comparecer, el Juez hizo el resumen de la prueba relacionando lo actuado y elevando el expediente al Tribunal Regional.

RESULTANDO: que en la tramitación del procedimiento se han observado las prescripciones legales.

CONSIDERANDO: que los hechos declarados probados se hallan comprendidos en los apartados B) C) D) L) y M) del artº 4º de la Ley, siendo culpable el encartado a quien debe imponerse sanción con arreglo a los preceptos de la misma.

CONSIDERANDO: que no son de apreciar circunstancias modificativas de la responsabilidad.

Vistos los artículos 1-4-8-10-13 y concordantes de la Ley.
FALLAMOS: que debemos condenar y condenamos al inculpado Aniceto Mallea Alsua, como responsable político aquéspague al Estado - en concepto de indemnización de perjuicios la cantidad de ocho mil pesetas. Asimismo le imponemos la sanción de destierro a doscientos cincuenta kilómetros de Villarreal de Urrechua por el tiempo de ocho años. Notifíquese esta sentencia por edictos en los Boletines del Estado y la Provincia de Guipúzcoa y una vez firme cumplase lo dispuesto en la Ley para su ejecución.

Así por esta nuestra sentencia, lo pronunciamos, mandamos y firmamos.

Eustakio Arsuaga

Zumarraga

“Valverde Belokin harrapatu eta fusilatu zuten”



Anarkistak herritik ihesi

Piedad kalean bizi ginen. Zesteria bat zegoen han, Otaegi, orain tabernak dauden lekuau. Larunbata zen, eta arratsaldeko 19:00ak aldean sartu ziren soldaduak. Bada, goizean, 10ak aldera, Zumarragako plazatik anarkista talde bat agertu zen, gure etxe alderaka. Hamar inguru ziren, eta armak zitzuzten. Nik 12 urte inguru nituen, eta jolasean ari ginen. Etxeetara etorri ziren, irten egin behar genuela esanez. Nora joan behar ginen gu? Etxeei su eman behar zietela esan ziguten eta 20 edo 30 bizilagun inguru atera ginen, nora jo ez genekiela. Azkoitia aldera joan ginen, eta Ipinzian geratu ginen, ur pixka bat edan eta zer egin erabakitzera. Hor ikusi genuen, Soraluze kalearen ingurueta anarkista gehiago zeudela, eta gutako batek, Etxeberriaino joatea proposatu zuen. Han ardo edo sagardo trago batzuk hartzea, eta herrira bueltan itzultzea.

Etxeberrin Zumarragako alkatea zegoen, Basilio Fernandez Lekuona, bere koadrilako batzuekin. Euren artean, Rikardo Aizpuru izeneko gizon bat zegoen, eta bere ama Bibiana gure taldean ziohan. Rikardok ama ikusi zuenean, zer ari ginen galdetu zigun: “zoratuta zaudete? nora zoazte?” eta etxera itzulteko agindu zigun. Beti pentsatu izan dut, eurak han ez baleude, kamioi batean sartu eta Eibar edo Azkoitia aldera eramango gintutzela. Ez dut gogoan noraino lagundu zigun Rikardok, baina etxera joan ginen, eta itzutzerako, ez zen anarkistarik ikusten.

Baina anarkistek zer egin zuten alde egin aurretik? Felix Arzelusen dendatik olio barrika handi bat atera, tapoia kendu, eta olio guztia errekkara bota.

Soldaduen etorrera eta Belokiko parapetoa

Ormaiztegi aldetik etorri ziren, Goiko-Txabolatik. Igerileku aldetik, Belokiraino iritsi ziren. Belokin Emiliano Valverde izeneko gazte bat zegoen, urretxuarrua, eta harrapatu egin zuten. Gogoan dut parapetoa nola egin zuten, mendian, errepidera begira, herrirantz. Gurutzetik hamar metro ingurura, aldapatxoan zegoen. Orain pinuak daude hor, baina orduan garbi zegoen. Hala ere, soldaduak atzetik, igerilekutik, Salsamendi baserritik etorri ziren, eta goitik buelta emanez, atzetik harrapatu zitzuzten. Valverde fusilatu egin zuten gero.

Orduko komandantea, Espinosa zen. Valverderen aita beragana joan zen, barkatzeko eskatuz, baina fusilatu egin zuten.

Tiroketak

Soldaduak sartu zirenean, kanpaiak jo zitzuzten, ez dut ordua gogoan. “iHan entrado! iHan entrado!”. Guk, mutikoak izanda, garrantzia gutxi ematen genion. Koltxoia leihotan jarri eta lurrean egin genuen lo gau hartan. Belokitik *Pakun!* *Pakun!* entzuten ziren tiroak. Baino nor au-sartzen zen irtetera! Urretxun meza 6:30ean izaten zen orduan, eta gure ama hara joaten zen egunero. Egun hartan ere joan zen mezetara, mendietatik tiro hotsak zetozela.

Eskolatik Intxortako bombardaketak ikustera

Hermanotan geundela, Intxortako bombardaketen garaia zen, eta *hermano* batek Irimora eraman gintuen, bombardaketak ikustera, ez zuen eta bakarrik joan nahi. Lau edo bost ume joan ginen. Ikusgarria zen hora. Gasteiztik zetozenten aeroplanoak, hirunaka. Irimotik pasatzen ziren, kurba egin, beste aldera, eta *puk-puk-puk* lurra mugitzen eta kea eta hautsa ikusten genituen Irimotik. Hiru hegazkinak desagertzen zirenean beste hiru agertzen ziren. Arratsalde osoan zehar gelditu gabe aritu ziren.

Zumarragako plazako bombardaketa

Gure etxera esnea ekartzen zuen mutil nafarra zauritu zuten bombardaketa harten. Hanka moztu zion leherketak. Gure etxean egon zen gero. Beste norbait ere zauritu zen, orain Arkupe taberna dagoen inguru horretan. Horrekin batera, hiru asto hil zitzuzten, tabernatik jubilatu etxera zegoen paretan lotuta zeudenak. Pareta horren gainean jo zuen bonbak, taberna dagoen lekutik 10-15 metrora. Bi edo hiru bonba txiki izan ziren. Egun hartan, eskolako kide baten zain geunden, lo hartu zuen eta ez zen ageri. Etorri zen, eta Txanpon taberna inguruan geundela erori zen bonba. Beste bonba batzuk Zelai Ariztin erori ziren, kiosko zaharrean. Hortik igaro ohi ginen eskolara bidean, eta pentsatu genuen: “Hori zortea, lagunak lo hartu izana!”.

Bonba handi bat geltoki inguruetan

Apariziorena zen txaleteko burniek marka gorde zuten urte askotan zehar. Txindoki Zaharra egon zen lekuau erori zen bonba eta emakume bat hil zen behintzat. Ez zen jakin bonba nork bota zuen, akats bat izan zen... Batzuek geltokira bota nahi izan zutela zioten, beste batzuek herrira... Bonba hora plazakoak baina handiagoa izan zen, gogorragoa.

Italianoak estazioan eta Badiolareen fabrikan egon ziren. Nik Legorbururenean egiten nuen lan, Kortaberri taberna dagoenaren ondoan, zesterian. Badiolarenean, italiarrak, kantuan egoten ziren, “O focci focci”. Halako batean, aeroplano bat azaldu zen, eta *Bum! Bum!* leherketak. Italiarrak oihuka hasi ziren: “iLos nuestros! iSon nuestros!” eta halako batean eztanda handi bat. Ni lurrera bota nintzen, eta begiratu nuenerako, hor ez zegoen italiarrik oihuka. Geltokiko bonba bota zuten eguna zen hora.

Fusilatuengen inguruan

Batzuk oso maiteak nituen. Belaustegi esaterako. Futbolean jokatzen zuen, Urolan, eta guk, 12 urterekin, Urolakoak asko maite genituen. Ondo jokatzen zuen gainera. Gipuzkoako txapelketan bigarren egin zuten. Pompeyok seme-alabak zituen, horietako bat gurekin eskolan ibilia, Joxe Mari.

Emiliano Valverde

Ezagutzen nuen. Hiru anaia ziren, eta horietako bat, gazteena, nirekin ibili zen eskolan. Gero desagertu egin ziren.

Osaba Divisio Urdinean

Osaba Dibisio Urdinera joan zen. Edatea gustoko zuen, eta egun batean, mozkortuta, paper bat sinatu zuen eta joan egin zen. Arreba Irunera joan zen, baina ordurako muga pasata zuen. Errusian egon zen, Stalingradon edo Leningradon.

Bonben kutxak jota hilda

Nire Josefina izebaren bigarren senarra, Melendez, Elgetan hil zen, paperean Bizkaian dioen arren. Iritsi zitzaigun informazioaren arabera, bombardaketa batean izan zen, hegazkin baten bonbak amaitu, eta bonben kutxa bota zutenean. Kutxak buruan jo zion eta hil egin zen.

Maria Elias

La del Txato murió cerca del ayuntamiento. Era una chica movida, siempre poniendo lazos...

Begoña Aizpuru Berasategi

1936an jaioa.
Jose eta Feliparen alaba.

“Hegazkinari bonbak ihes egin ziola esan ohi zen”

Trintxerak egiten Bizkaian

Nire aita Bizkaiara joan zen, voluntario. Nazionalista zen eta besteek harrapatuko zutenaren beldur joan zen. Lagun talde bat joan zen, elkarrekin. Nire aita trintxerak egiten egon zen, Bilbo eta Gernika arte horretan, Bizkaian egon zen denboran. Ez zen besatelako batailoietan sartu.

Logroñora bisitan

Han atxilotu eta Logroñoko zezen plazara eraman zituzten. Tarte horretan ni jaio nintzen eta nire amak bisitan eraman ninduen, aitak ni ezagutzeko, han preso zituzten beste herritar batzuen senideekin. Taxi moduko batzueta joan ziren, guztiak batera. Hemengo jende dexente zegoen han eta beti iristen zen aitaren albisteren bat edo beste, guregana.

Sustantzia gehiagorekin

Aitak zioenez, Logroñon Zumarragako gazte bat zegoen, soldaduska egiten, beste aldean. Rantxoa partitzen egon ohi zen eta zopa edo banatzetan ari zenean, preso zumarragarren baten txanda iristen zenean, kazoa barruraino sartzen zuen, jana sustantzia gehiagorekin emateko. Aitak gogoratu ohi zuenez, “hura oso ondo portatu zen gurekin”. Ahal bazuen, herritarrei gehiago ematen zien.

Itzulitakoan, lanik gabe

Aitak 14 urte eman zituen Patriziorenean lanean, gerrara joan aurretik. Aske gelditu eta etxera itzuli zenean, ez zuten berriro hartu lanerako. Bazuen lagun bat, egoera berean eta behin baino gehiagotan eskatu ondoren, Patriziok lanerako hartu zuen, baina gure aita tente xamarra zen, eta zioenez, ezetz esan bazuen, ezetz zela eta bera ez zijoala berriro. Orduan, egun batean, kalean Jose Luis Apariziorekin egin zuen topo. Ideia desberdinakoa izan arren, laguna zuen oso. “Zer zabilta?” galdezu zion aitari. Lanik gabe zegoela azaldu zion, eta hark berriro: “Zertarako daude lagunak? Bihar bertan pasa zaitez lantokitik”. Aitari lana eman zion, eta han egon zen jubilatu arte.

Geltokiko bonbak, irrist

Geltokian erori zen bonbaren inguruan, esaten zen, hegazkinari erori egin zitzaiola. Bizkaia aldetik zetorrela eta lehenago bonbak botatzen egona zela, eta bat erori gabe gelditu zela, eta herri gainean hegazkina okertzerakoan, erori egin zela. Hori esaten zuten.

Koltxoiak leihotan

Gure senideak Errementarikoak ziren eta tiroketak zeudenean, koltxoiak jartzen zituzten leihotan, balak etortzen baziren, han gelditzeko.

Felipe Areizaga

Urretxun jaioa
1921ean.

“Irimotik tiro egin eta bi soldadu zauritu zituzten”



Gerra piztu zenekoan

Gerra piztu zenean, aita mezetara joan zen, jaieguna zen. Militarrak larunbatean altzatu ziren, eta hurrengo eguna zen. Ni goizeko 6:00etako mezetara joana nintzen eta aita 8:30etakora. Bueltatu zenean, “gerra irten omen da” esan zigun. Altxamendu bat egon zela azaldu zigun, “baina hiru egunetako bakarrik omen dek” esan zuen, hiru egunen bueltan amaituko zela zioten. Hiru urte irauen zituen gero. Gertu zebiltzan.

Beasainen sartu zirela eta ez zirela

Hasieran oso urrutti ikusten genuen, eta bigarren eta hirugarren egunetan ere bai, baina gero... Garia biltzen hasi gabe geunden eta hurrengo astea garia ebakitzen pasatu genuen. Gogoan dut, hilaren 25en, Santiago eguna, nola esan zuten, Beasainen sartu zirela. San Pedro zen tanborreroa. Soroan garia biltzen ari ginen lekuaren entzun genuen, izan ere, lehen herriguneko hotsak oso onto entzuten ziren baserrietatik. Entzun eta elkar ezagutu ere bai. Gure aitak nire anaia Pedro bidali zuen kalera, bandoaren berri jaso zezan. Militar faxistak Beasainen sartu omen zirela esaten ari zela jendea, eta hori esaten zuena kartzelan sartuko zutela. Domingo Berriotxoaren bandoa zen hori, bera zegoen orduan Urretxun alkate. Beasainen sartu zirela gezurra zela zioen, baina egia zen.

Kamioiak jendez kargatuta

Jendea Bilbo eta Eibar aldetik etortzen hasi zen, Donostiarra bidean. Militarrak iritsi aurretik izan zen hori, bastante lehenago. Donostian militarrak altzatu egin zirela, eta ze aldetara jo etzekitela, eta Eibar eta Bilbo aldetik etorritako horiek dominatu zituzten. Arditara joan ginuen mendira, eta handik Urretxu guztia ikusten zen. Gogoan ditut sei-zazpi kamioi ilaran, jendez kargatuta Txindokiko plazaren ingurueta. Eibarretik zetozentzera geratuta zeuden. Handik zortzi egunetara, Antzuolan konbentu bat erre zuten. Eskopeta eta pistolekin zetozentzera, gehienak ere. Hernaniko gizon batez gogoratzen naiz, hemengo alaba batekin ezkondua zegoena. Pistola txiki bat zuen eskuan, eta gogoan dut nola egiten zuen dizdira. Lehen aldia zen pistola bat ikusten nuena.

Kintak errepublikaren alde

Hiru kinta formatu zituzten errepublikaren alde, 34, 35, eta 36. Egunero jendea eramatzen zuten.

Jendea ihesi

Oreretako osaba bat ere etorria zen, bere familiarekin ihesi, eta baita Legazpiko bat ere. Jende asko etorri zen ihesi, Altsasutik eta. Hemen ez zegoen inor geratzeko! Beasainen sartu zirenean jende asko etorri zen hona, han jende asko hil zuten eta. Soldaduak sartu aurreko egunean, 19an, galtzada bete jende ziohan hemendik ihesi, guztiak Bergara aldera.

Soldaduak Zumarragara iritsi zirenekoak

Militarrak Argixaotik eterri ziren gehienbat. Orduan ez zuen gaurko itxurak. Han hermenka banatutako lau pago egongo ziren, baina gainontzekoa garbi zegoen. Goizean jaiki, eta tiro hotsak entzun genituen. Egia esan, egunero egoten ziren tiro hotsak, orduan nafar asko baitzegoen inguru hauetan. Egun hartan gehiago izan ziren. Tiro hotsak entzun, eta Argixao inguru hori jendez bete-bete eginda ikusi genuen. Jendetza! Egun guztian zehar! Eguna han eman zuten. Gu etxetik kanpora joan ginan, etxearen egotea txarra zela esaten zuten eta. Txahalak eraman genituen baserritik! Mundo Mejor alde horretan pinudia zegoen, eta han lotu genituen. Han eman genuen eguna, Oreretako osaba bat eta bere familiarekin, lurrean etzanda.

Eguerdian, leherketa handi bat. Badiolaneko zubia bota zuten.

Argixaora eterri eta eguna han eman zuten, mendi punta hartan. Iluntzean hasi ziren tiroka, 19:30ak aldera, ilunarekin batera. Hori zen tiroak botatzea! Nik buruan ilea baino gehiago! Handik behera jaitsi ziren, ospitalea dagoen lekura; handik Eitzara, eta ilunarekin batera, kanpaiak jo zituzten Eitzan. “Eitzan sartu dira! Eitzan sartu dira!” Gaur egun dagoen kanpai bera zen. Eitzatik Belokira egin zuten tiro, zuzenean igo ziren. Antiora lehenengo eta Belokira gero. Belokin parapetoa (trintxera) zegoen, erdi erdian, Antio eta Belokiren artean zuzen, orain zelaia dagoen inguru hartan, erdi aldera, eskuineko aldean. Zakra gora eta zakua behera, haienkin pareta egin eta besterik ez zegoen, eusteko ere.

Txahalak ere salto

21:30ak aldera, txahala etxera ekartzea pentsatu genuen. Aita eta biok itzuli ginan, eta *Boum!* leherketa ikaragarria. Bazter guztiak lehertu ziren Kalebarren alde horretan. Gerraerrotarrean Zubia lehertarazi zuten, Zubi bat zegoen Zumarraga eta Urretxu banatzen dituen bidegurutzearan, paso-nibela zegoen eta. Kaminoa dinamitatu zuten. Txahalak ere salto egin zigun orduan.

Aizpurutik tiroka

Belokin sartu ziren, eta hurrengo egunean txintik ere ez zen entzuten. Tiro hots bat bera ere ez. Inor jaio zenik eta inor bizi zenik. Eguerdi aldean hasi ziren tiroka, Aizpuru baserritik. Ikusi eta bilatu zuten lekua! Han karabinerotarako aurkeztutakoak zeuden. Txabola bat zegoen han, eta pareta guztiak zulatu zizkiotan, handik tiro egiteko. Kalera begira jarri zituztela esaten zen, eta atzetik eterri zirela. Guztiek korrikan alde egin omen zuten.

Hilan 20an, Aizpurura eterri ziren, Belokitik, goitik behera.

Astoak eta banderak

Gure astoak errepublikarrek eraman zizkigutenean, mendian zeudenei jana eramateko, eta zesto eta guzti eraman zituzten. Bada, hilaren 20an, han ikusi genituen, gure astoa eta Irlon baserrikoa, orain ospitalea dagoen lekuaren. Etxetik ikusi genituen eta haien bila joan ginan. Bazkaldu eta kalera jaitsi ginan, eta kalean ez zen inor ageri. Pertsona bat, bi... asko ihesi joan ziren, eta gainontzekoak irteteko beldurrez zeuden. Zumarragako plazara joan ginan eta plaza militarrez lepo zegoen! Banderak erretzen ari ziren plazan, nazionalista eta errepublikanoa, eta trapu pila handi bat ketan ikusi genuen, erretzen.

Irimora erasoa

Astoen bila joan ginan, eta orduan hasi ziren berriro tiroka. Irimora jo behar zuten, eta hori egiteko, Txindokiko plaza inguru horretan formata zeuden soldaduak. Irimotik tiro egin zieten, eta bi soldadu zauritu egin omen zituzten. Orduan guztia garbi zegoen eta! Arma potenteneren bat izango zuten, mosketoiaren bat edo. Tiroka hasi ziren, eta Deskargatik, aurretik eta Elosegi aldetik, Beain baserritik gora jo zuten erasoa, Irimo inguratzen asmoz. Bertan zeudenek azkar egin zuten ihes. Gu astoekin etxera itzuli ginan, inork ezer esan gabe. Bi iluntzeetan jo zituzten erasoa. Lehenengoan Belokira eta bigarrengoa Irimora.

Emiliano Valverde

Inork ez zuen haren arrastorik izan, non garbitu zuten hura. Esaten zutenez, tiroka ari omen zen, eta parapetoan harrapatu zuten, Belokin. Eitzako ikuilu batean izan zutela ere entzuna dut ordutik. Eskolan nirekin ibilitakoa zen, karabinero baten semea zen. Hiru anaia ziren, Emilio,

Manolo eta Serafin, eta arreba bat, izena ez dut gogoan. Azken hau nire adinekoa zen, eta beste biak zaharragoak. Gogoan dut nola eterri zen egun batean Emiliano, Mundo Mejor aldean genituen sagarrondoetara, eta sagarrak hartzeko baimena eskatu zidan. Gernikako Plazan bizi ziren, baina gero alde egin zuten, karabineroa izanda, egurra zuen zain. Goardia Zibilak ere batazbeste guztiak joan ziren. Ibañez abizeneko bat gelditu zen hemen eta bera nahikoa zen herri guztia detenitzeko.

Irimoko parapetoa

Nik Irimoko parapetoa ikusi nuen. Gizon bat jaitsi zen, Zumarragako baserri bateko, parapetoa ikustetik, eta esan zidan: “hortik ez da zozorik pasako!”. Gurutzea 20 metro beherago zegoen orduan, eta parapetoak inguratu egiten zuen. Herri aldera ematen zuen gehienbat. Zaku mor doa zuten jarrita, eta zanga bat ireki zuten haien atzean. Egurra jarri zioten gainean, eta harrikin estali zuten. Buelta guztian alanbrada jarri zioten gero. Asko zegoen! 30 *rollo* alanbre agian! eta guztia gurutzatuta, eskuko behatzak bezela. Hasiera batean ez zegoen iñor defentsan, Lizarriturrin egoten ziren. Arditara joaten ginenean ikusten genituen. Sukaldaria Lizarriturrin zegoen eta Bergararra zen. Egunero igotzen ginan, eta azkenerako *amistadea* egin genuen. 40 urte inguruko gizona zen, eta behetik deihadar egiten zien parapetoa prestatzen ari zirenei, jatera jaisteko. “iQue ya está la cena!”. 20 inguru ziren eta Iturri ondoko txaboletan egiten zuten lo.

Soldaduak herrian

Frontea Elgetan egon zen bitartean, hemen soldaduak egon ziren. Mandoekin eta astoekin zebiltzan, atzera eta aurrera, gaur Elgoibartik, bihar Bergarrik, etzi Azkoitiatik... Soldaduen artean euskaldun asko zegoen, kintak harrapatutakoa, eta gurekin euskeraz aritzen ziren. Jai goizetan, mezetara joan beharrean soldaduak ikustera joaten ginan, eta Urretxuko Ederrena pilotalekuaren egoten ziren etzanda, lotan eta. Kaballeria, berriz, Belaustegi plazaren ondoko jardinetan.

Bonbak Etxaburun

Etxaburuko zelaietan ere bonbak bota zituzten. Errepublikarrak izan ziren, eta bi bonba bota zituzten. Gure behi bat eman zioten, eta belauna hazita egon zen denboran. Nik uste mandoak zirelakoan bota zietela. Inguru guztia *raseatuta* gelditu zen, *bombas raseadoras* deitzen zieten horietakoak ziren. Inguruko belar guztia erreta utzi zuten. Bigarren bat, lurrazen barruan sartuta lehertu zen. Bi kamioikada lur altxatu zituen, eta aitak eta biok zestoka bete genuen.

Bonba bat plaza aldean

Abenduaren 14an, plaza aldean bonbaren bat bota zuten. Pagoeta gaineko zelaian larrak ateratzen nengoan, eta hiru hegazkin pasa ziren. Esku altxatu nien, eta une hartantxe bota zituzten. Zumarragako udaletxe pareko arkueak dauden lekuaren astoak lotzeko pareta bat zegoen, eta bonba haien 7 asto akabatu zituzten.

Nazionalistak txakurren potron modun

Ni nazionalisten aldekoa naiz, eta aita ere hala zan, baina ez gara nazionalistak jende garbia direlako, ez. Bada esaera bat: Txakurran potron modun, beti atzetik-atzetik dabilta. Nazionalistek ere beti hori jo dute, beti atzetik. Ba ez jauna! Segi ba aurrera! Gaur egun ere horrelakoak dira.

Isunak

Gure aitak isun bat ere jaso zuen bota eman zielako eta baserritarren batzordeko kide izateagatik. Ipiñarrietako eta Erratzukoa ere zigortu zituzten. Gure kasuan diru-isuna izan zen. 1.500 pezeta eskatu zizkigutenean. Garai hartan! Nire aita oso bihotz gogorrekoan zen, eta ez zuen inoiz sentimendurik agertzen, baina egun hartan negarrez ikusi nuen. Koinatuari eskatu zion dirua.

Elgetako ikuskizuna

Irimora igo ohi ginen Elgetako bombardaketak ikustera. Abioiak bueltaka etortzen ziren, kazako abioi alemanak. Maniobrak ondo egiten zituzten: bueltaka etorri, lurrera jaitsi eta gorantz ziohazela, deskarga egin. Gorlaraino joaten ginan hegazkinak ikustera. Aerodromo Lasarten zutela esaten zen, baina Gasteiztik asko sartzen ziren Elgeta, Durango eta Eibar bonbardeatzera. Martxoaren 30ean, Elgetan erasoaldi gogor bat hasi zuten, bai hasi ere! egun hartan 36 hegazkin zenbat nituen. Hirunaka etortzen ziren. Ni arbia ateratzen nengoan, eta zanga batean

etzanda egon nintzen. Ordura arte, jolasean aritu ziren, tiroak noizbehinka eginez.

Irimora soldaduekin bazkaltzera

Lehenengo erreketek egon ziren, eta gero falangistak. Guk bazkaria eramatzen genien, astoarekin. Eitzako mojek prestatzen zuten, eta eguraldia txarra baren Lizarrurriera eramatzen genien, eta ona baren, Irimoko parapetora. Aurrekoek egindakoa baliatu zuten. Han ondo egoten ziren, Elgetan frontea hasi zen arte. Orduan guztia eraman zituzten. Zumarragarrak ere hil ziren Elgetan, horietako bat Aparicio abizenekoa. Bada, hari, besteak beste, eraman nion bazkaria Irimoko parapetoan egon zen bitartean. Hilabeteak egin nituen bazkaria igotzen. Altamira baserrikoan hasi zen lehenengo, hura behartu zuten eramatera, eta gero, Irigongoa, baina honek ere ez zuen gogoko bazkaria eramate hori. Hala iritsi zitzaidan niri abisua, eta anaia Pedro eta biok egin genuen lan hura. Falangista txapelarekin ibiltzen ginen han, gu, mutikoak. Haiekin bazkaltzen genuen, eta ondo jan gainera.

Italiarrak Etxaburun maniobrak egiten

Italiarr batailoi bat gure zelaietan maniobrak egiten ibili zen. Haietako batek ondo egiten zuen gaztelaniaz, eta Tobruken (Afrika) egona zen borrokan lehenago.

Bonbak gure lantokietan

Aparizioren lantokian bonbak egiten genituen. Hiru errelebotan mila bonba egiten genituen. Guk eskeletoa egiten genien, kuloteak, paletak eta ojiba. Alemaniarentzako ziren, hegazkinetik botatzeko. Extremadurarrak ere baziren orduan, preso moduan ekarritakoak. Bonbak pintatzen zituzten haiiek, Jakaren lantokian. Bonbei, leherketaren karga Valladoliden jartzen zietela esan ohi zen.

Herriko fusilatuen txapelaren bila Hernanin

Eraman zituztenean inor ez zen enteratu, baserritarrok behintzat ez, aharik eta hil zituztela jakin genuen arte. Serafina zen, Aranburu horietako baten andrea, eta Hernanira joan zen eta txapel pila ikusi, eta hark ez omen zuen bilatu, bere gizonaren txapela. "Hauxe da" esateko ez omen zuen bilatu. Milaka zeuden eta!

Joxe Potolo eta Cirilo Areiztegi

Joxe Gosez hil zela zioten. Hiru anaia ziren, eta Joxek buruko gaitzen bat zuen. Matxinbentara eraman zuten gerra denboran, han familia zuten eta. Han harrapatu omen zuten erreketek, eta berak, nazionalista zela esan zien, ez zuen eta oso ondo neurrizen. Cadizera eraman zuten, langile batailoietara eta han hil omen zen, diotenez, gosez. Cirilo Areiztegi ere, goseak hil omen zen, Pontevedran. Ramon Esnaolak esandakoa da hori. Trabajadoretan zegoen. Hemengo asko ibili zien trabajadoretan, Bilbo aldera joandako denak bukatu zuten *trabajadoretan*. Rekomendazio onen bat ez bazeukaten... eta rekomendazioa zeukanak ere hilabete bat pasatu egin behar.

Herriko hiru, batera hilda

Nazionalistek, Gasteizen sartu behar zirela pentsatu zuten, eta abiatu ziren Otxandirotik Gasteiz aldera, Vilarreal de Arabatik. Nazionalek, elizako kanpandorrean zuten ametrailadora, eta Zumarragako hiru hil zituzten batera: Migel Sasieta *Potis*, Etxaniz eta Regino Zabaleta.

Fermin Lasa Zinkunegi

Bidanian jaioa
1913an.

**"Beldurra eta gero *miedo*,
biak pasa genituen"**



Soldadu joan behar

Gerra etorri zenean sasoien nengoan. Donostian nengoan morroi, Martingotxategi baserrian, hilerri ondoan. Adinean nengoan eta kinto motuan joan behar izan nuen soldadu. Asko joan ziren horrela gerrara. Nire anaia Juan ere bai.



Fermin Lasa Zinkunegi zaldi gainean

Zaldi gainean galdua

Decimo de Caballerian egon nintzen, Zaragozan, eta Teruel aldean asko ibili nintzen. Negu gogorra pasatakoak gara han. Behartuta joan ginen, kinto. Makila heltzeko gai zena hartu eta eraman egiten zuten. Ordura arte armariak ikusi gabekoa nintzen, baina gero, koartelean, asko zeuden. Haien garbitzen eta preparatzen aritzen ginen. Bartolo Otaño gogoratzen dut.

Borrokarako garaian, askotan ez genuen jakiten noren kontra ari ginen ere. Gauza zikina zen, entzuten zen guztia, ez zegoen gauza garbirik orduan. Galdua ibiltzen ginen, ez genekien nuen genbiltzan ere. Inoiz ez ginen ondo prestatuta egoten.

Gerra amaitu arte egon nintzen soldadu. Anaia bat nuen, Divisio Urdinera joandakoa, Errusiara.

Bonbardaketak Teruelen

Teruelen, momentutik momentura hegazkinak pasatzen ziren. Kanpoan zinela harrapatzan bazintzuten, lurrean etzan, tripaz gora, eta geldi, mugitu gabe. Orduan ikusi genuen nahikoa hegazkin, askotan gertuegi. Bonbardaketa zegoenean, egurra ahoan sartzen genuen, bestela belarriak lehertu egiten zirela esaten zuten eta. Zaldi gainean harrapatzan bazintuen... zenbat erori eta hilko ziren horrela: bonbardaketak harrapatu eta guztia hankaz gora, zaldiak ez zintuen salbatzen. Behin hortzak puskatuta egon nintzen, zalditik erorita. Entzuteko kontu txarrak dira, baina ikusteko okerragoak. Han egoten ginen, gerra hura noiz edo noiz bukatuko zelakoan. Lehenengo beldurra eta gero *miedo* izan genituen. Behin baino gehiagotan egokitut zitzaigun.

Neskei ilea mozta

Nire lehengusina batu moztu zioten ilea. Mendeku moduan egiten zuten, politikan sartuta egona zelako. Alberta lehengusina, piura ederra zuen ilea mozta.



Fermin Lasa Zinkunegi, ezkerrean zutik.

ginea, eta goiko partean ekartzen genuen irina, kartoizko maleta batean. Estazioan soldaduak edo Guardia Zibilak ikusiz gero, bota egiten genuen lehotik, eta gero bila joan behar izaten genuen. Agian ordurako besteren batek eramana zuen. Gero, gaueko 00:00etan etxetik irten, eta gari hura errotara eramatzen genuen, prezintatuta egoten ziren eta. Gabiriako errotara joaten ginen. Egunen batean kendu zidaten janaria, eta haientzako eraman. Etxera iritsitakoan arnasa hartzen zenuen, baita hanka azpitik ere! Hala ere, gauean hartu eta berriro, errotara. Beti salduta zeunden. Ez zen 100 kiloko pertsona handirik orduan.

Astoa burro eta zaldia caballo

Soldaduskara joan nintzenean ez nekiengaztelaniaz, eta euskeraz ere gutxi. Han ahal genuen moduan komunikatzen ginen. Astoa burro zen, eta zaldia caballo.

Oroitzapen tristeak

Hura oso tristeak izan zen. Anaia batzuk hemendik tiroka eta bestetek handik... Nik ez dut ezagutu nahi gehiago gerrarak. Ez dezu gerrako oroitzapen onik topatuko. Tristeak bai eta tristeagoak ere bai.



Fermin Lasa Zinkunegi, lehen planoan ezkerrean.

Italiarrak eta alemaniarrak

Guadalajarako herri batean alemaniar batzuekin egon ginen: "España-Alemania ganar la guerra y luego hermanos" esaten zuten. Italianrek ere Guadalajaran porrot egin zuten eta... Anker hoiek! Makalak ziren, makalak. Alemanak beriz, dotoreak ziren. Rubioak eta arropa eleganteekin. Gu kakiz joaten ginen, kaki eta kaka!

Gosea

Makina bat urtez gosea pasatzeko astia izan genuen. Beti janari bila genbitzuan. Estraperloa bazeen, baina guk dirua falta ordea.

Nafarroara jan bila

Gerra ondorenean, Nafarroara joaten nintzen irin bila, jaietan. Trenet joaten genuen, eta goiko partean ekartzen genuen irina, kartoizko maleta batean. Estazioan soldaduak edo Guardia Zibilak ikusiz gero, bota egiten

Juana Mari Zinkunegi

Bidanian jaioa
1917an.

**"Anaia 18 urte bete gabe
eraman zuten soldadu"**



Hemen dittuk!

Gerra hasi zenean neskame nengoan. Gogoan dut nola etorri ziren, oihuka: "Hemen dittuk! Hemen dittuk!". Mutil gazteek ihesi zebiltzan. Bat etorri zen. "Ezkutatu hadi, hemen dittuk eta harrapatu egingo haute" esan nion. Bai harrapatu ere. Ez zen Bidanikoa, iheska zetorren. Soldaduak etxe barrura ere sartu ziren, gu sukaldean sartu eta ea jatekorik ba al genuen galdezka. Nire anaia Juan ere eraman zuten, 18 urte bete gabe.

Palazioa hutsik

Gure nagusiek palazio eder bat zuten, oso ondo bizi ziren gerra etorri artean, baina gero, soldaduak sartu zirenean, guztia hustu zieten, guztia lapurtu. Oraindik, hango gauzak, falangistaren baten ilobak dituela entzuten da. Aita, anaia eta bi seme-alaba bizi ziren han, alarguna zen aita. Mutilak gerrara eramango zituztenaren beldur, Frantziara egin zuten ihes. Asko desagertu ziren horrela. Guk ez genekien bizi zirenik edo hilda zeudenik edo zer. Horiek izan ziren horiek egunak. Alaba Gernikan zuten moja, eta bombardaketan hil zen, konbentuan. Bere familia onik al zen jakin gabe hil zen hura.

Gero, umeak ekarri zituzten palaziora, *Auxilio Social* moduan prestatu zuten.

Anaiak osasuna galdu

Gure anaia ere gerrara joan zen, eta ez genuen bere berrikirik izan Gurutze Gorrian bere sinadura ikusi genuen arte. Iruñako bombardaketetan, ahoan egurra jarrita egoten zirela oroitzen zuen. Gazte hil zen, gerratik etorrera. Logroñoko erietxeen ere izan zen, baina osasuna galdu zuen. Gure lehengusu bat ere, Joxe Mari, gerran hil zen.

Gosea

Nire senarra Nafarroara joaten zen, irin bila. Eserlekuaren azpian gordetzen zuen, baina...

Iñaki Ibarzabal Jauregialzo

1932an jaioa.
Gurasoak Daniel eta Maria.

“Aita itzuli zenean anaiak ez zuen ezagutu”



Hura ez zela bere aita

Gerra garaien, lau urtez Azkoitian egon nintzen. Amarekin eta bere osabarekin gelditu nintzen. Aitak ihes egin zuen, eta harrapatu egin zuten gero. Castrotik Madrilera bidali zuten, “magrebiarentzako lubakiak egitera”. Lau urte eman zituen kanpoan. Nire anaia Danielek ez zuen eza-gutzen, aita etorri zenean lau urte izango zituen, eta “hura ez zela bere aita, eta ez zela bere aita” errepikatzen zuen. Jaio zenetik ez zuen ikusi eta... Aita Langile Batailoietan ibili zen.

Ama ilea mozteria

Amak Buscaren lantokian egiten zuen lan, enkargatu gisa. Lana etxera eramatzen zuen, konpensatzeko. Ilea mozteria bidali zuen udaletxera eta azkenean moztu ez bazioten ere, asmo horrekin bidali zuten. Soldaduen zazpi uniforme ere ematen zizkioten, garbitu zitzan. Amak jaboia jartzen zuen, arropak garbitu, eta gainera eskerrak eman behar.

Umeak, ideolojiengatik borrokan

Bigarren pisuan karlista bat bizi zen. Gizon altu bat. Haren ilobarekin haserretu ginen, eta eman egin nion. Koadrilakoak ginen baina ordutik, ez genion elkarri agurtu. Eurak eskola izango zuten, baina hozkada ona eman zidan berak ere.

“Ojo, que las paredes oyen”

Gure aitak bandan jotzen zuen eta Uribesalgo anaiak ere han jotzen zuen. Aita gerratik itzuli eta denborara oraindik hala esaten zion hark: “Todavía te estoy viendo en la cárcel”. Serio esan zion, bizilagunak ginen eta: “Ojo, que las paredes oyen”.

Eskolan, kolpeka

Eskolan, eskubiko besoa altxatzen ez bazenuen, *Barrabas* etortzen zen eta krastada bat ematen zizun. Zigortuta. Besotik zintzilik jarri, eta belaun atzealdean tximurkatzen zintuen. Erregelarekin ere jo ohi zuen, eskua zabal-zabal genuela.

Lucio Larreategi

Gerran ibili zen, teniente graduoa lortu zuen. Han izan zen, heriotz zigorrarekin. Eibarren jaiotakoa zen.

Artilleriako tenientea eta Miss Urretxu

Mendijur txirrindularia hil zen leku baina beheraxeago, pistinatik goraxeago, artileria erregimentu bat egon zen. Bi teniente zeuden han, Rives eta Ocón. Ocón hora gizon elegantea zen, orduko Miss Urretxurekin ibili zen.

Italiarrak eskoletan

Casinoa dagoen lekuau, Eskola Nazionalak zeuden, eta hor ere militarrak egon ziren. Italiarrak zirela esaten zuten.

Atarian lo, beldurrez

Etxeko atarian ere lo eginak gara. Irimo aldetik Antio eta Beloki aldera botatzen zuten, eta beldurrez... Entzuna dut, bombardaketak hasten zirenean leihotan koltxoiak ipini ohi zituztela, eztandetatik babesteko.

Arkume taldea bezela

Talde desberdinak zeuden: “Las Margaritas”, “Las hijas de María” edota “Los Luises”. Mertzedariarretan 400 neska inguru egongo ziren. Antiora zohoazela arkume taldea ematen zuten.

Isabel Fernandez de la Reguera eta Patxi Biaín

Isabel 1936an jaioa. Patxi semea.

“Debemos estar orgullosos de lo que hizo”



Huyendo de la guerra

Isabel: Cuando comenzó la guerra, mi padre, natural de Ezcaray, se marchó con otros de su mismo batallón. Mi madre y nosotras, fuimos a Bilbao, a casa de unos familiares. Me llevaron cubierta con una manta. De Bilbao fuimos a Barcelona y de allí a Lérida. A mis dos hermanas se las llevaron a Bélgica, a pasar unos meses. Si hubieran estado más tiempo allá mi madre no las habría podido reclamar. Debía de haber dos tandas para mandar niños, la primera para más tiempo y la segunda para menos, para unos pocos meses. La familia de Zumarraga supo que estábamos en Barcelona. Llegamos a Zumarraga el día 1 de marzo de 1938, en un vagón de cemento que paró entre Legazpi y Zumarraga. Un tío vino a buscarnos.

Todo lo que luchó mi madre

Isabel: Mi madre era muy religiosa e iba todos los días a misa, a las 6 de la mañana. Despues trabajaba limpiando las Escuelas Nacionales, el ayuntamiento... y volvía a casa ya de noche. Trabajaba tanto para poder traer comida a casa... Vivíamos con la abuela y un tío soltero, que había estado en la cárcel. Mi madre solía decir que se había quedado entre el cielo y la tierra. Una hermana mía se marchó a Irun con mis tíos. Ahora me doy cuenta de todo lo que luchó mi madre. Al ser mi padre de izquierdas, mi madre tuvo que pelear para ganar todo lo que hizo. Era muy trabajadora y muy tenaz. No sabía euskera pero aprendió trabajando. Hasta tuvo problemas con La Guardia Civil por hablar en euskera en el lavadero. Era en el lavadero que estaba al lado del Galeperra. Estaba hablando con alguna en euskera y la denunciaron. La llevaron al cuartel para averiguar qué estaba diciendo. Un tío la sacó de allí.

Patxi: Veo a mi abuela en las fotos de aquella época y la veo cansada, trotada... Se nota que sufrió mucho. No me extraña que no hablara de ese tema. Lo tenía dentro, pero no hablaba de ello. Nuestro tío tampoco hablaba de la guerra, era un tema tabú.

Mintiendo en la escuela

Isabel: Un tío mío, hermano de mi madre, Vicente Mendez, de Zumarraga, fue a la guerra. En aquella época estaba ya en la cárcel, en Bilbao, junto a un tal Arrospide. Yo en la escuela hablaba de él, pero no decía que mi padre también estaba en la cárcel. Cuando se marchó mi padre yo era muy pequeña, no conocía a mi padre. Las compañeras de escuela presumían de tener uno.

Cambiando de escuela

Isabel: Mi hermana mayor estudiaba en las escuelas nacionales, pero al ser mi madre tan religiosa, a mi hermana pequeña y a mí nos metió donde las monjas. Pero en esa escuela había que pagar para estudiar y mi madre, como vio que no podía seguir pagando, nos sacó de allí y nos metió en las escuelas nacionales.

Nudo de la UGT en Berriotxo

Patxi: En Berriotxo, puede que hubiera algún nudo de la UGT, porque si se analiza, varios de los que murieron en la guerra trabajaban en esa fábrica. También he oído que esa milicia se formó para la defensa de Zumarraga y que había alguno de la CNT junto a los de la UGT.

Investigación

Patxi: Siempre he tenido una espina clavada con mi abuelo. Me llevaba bien con mi abuela, pero a mi abuelo no le he conocido y me parecía que su trabajo estaba poco reconocido: perder la vida, a esa edad, por una causa tan digna... Comenzamos a investigar. Yo tenía la información que me dio mi tía. Ella hablaba de que mi abuelo había muerto en el hospital San Pablo. Pensé que sería relativamente fácil buscar más información, pero en casa no se hablaba nunca de él, nadie sabía nada... Pensé en averiguar dónde acabó sus días. Sólo por dignificar algo su muerte, me planteé buscar dónde estaba enterrado. Yo tenía la inquietud de reconocer su lucha, creía que por lo menos en la familia debíamos estar orgullosos de lo que había hecho y nos debíamos informar más.

Un día escuché a Pako Etxeberria en la televisión, hablando sobre estas cosas y comentó, cuanto le había chocado, que al estar un día recuperando unos huesos de un hombre junto a su mujer, le comentó a ella: "cuán diferente hubiera sido tu vida, si no hubieran matado a tu marido y no hubieras tenido que cargar con todo el trabajo de criar y cuidar de tus hijos, de sacar sus vidas adelante". Y a mí me recordaba a mi abuela. Eran tres pequeños los que tuvo que criar. Ahí empecé a buscar. Llamé al hospital y no conseguí información. Llamé a Barcelona también.... y al final, después de mucho buscar, mirando las fosas que había, tirando de uno y de otro y con la ayuda del cementerio de Barcelona, al final recibí una carta con la información de su muerte.

Murió con 32 años, no constando la fecha de fallecimiento, lo metieron directamente en una fosa común, en el cementerio de Montjuic. Mi abuelo nació el 27 de septiembre de 1906.

Insultos a la madre

Isabel: En Zumarraga a mi madre le llamaban roja y de todo.



Francisco Fernández de la Reguera, segundo de la fila de abajo.

Miren Itziar Txintxurreta

1936an jaioa.

"Aita eta bi osaba preso izan zituzten gerran"



Etxeko sentimenduak

Aita (Andres Txintxurreta Antia) gudari joan zen, ekaina aldean. Orduan ez zegoen PNV, komunistak... besterik. Kanpoko jendea zen gehienbat. Aita nazionalista zen, eta ama oso oso nazionalista. Aitak ideiak garbi zituen. Baita amak ere, eta aitarenak baino muturrekoagoak ziren bere ideiak. Ikerinarekin ere ibili zen, bere garaian, ama. Aita lehenago ere preso egona zen, 1931n, Bergaran. Hilabete batzuk eman zituen bertan. Hotel Lasa-koek ematen zieten jana.

Aitaren espetxealdia

Aita urtebete inguru egon zen, alde batetik bestera gidari lanetan. Agindutakoa betetzen zuen. Bizkaiko herri denak pasa zituen, gaixoekin eta militarrekin. Gero preso hartu zuten. Epaiketa egin zioten, eta espetxean sartu zuten. Bilbon hartu zuten, baina Santanderren ere egon zen preso, Linpiasen. Bilboko Eskolapiotan, Santanderren, Sardineroko zelaietan, eta azkenik, Ondarretan izan zuten. Herriko gizon batek deklaratu zuen bere epaiketan.

Espetxetik harremana

Aita kartzelan egon zenean, amarekin astero izan zuen harremana. Lehen gutuna ezkutuan bidali zuen. Amak gutun guztiak gorde zituen. Ondo gainera. Eskulanak ere egiten zituzten espetxeen: neretzako eratzun bat, ... Oso gauza politak egiten zituzten. Aitak beti garrantzia kentzen zion bere egoerari. "Ez zaitez arduratu, lan asko egiten duzu eta ez arduratu hainbeste. Hala ere, badezpada, etorriko bazina, hau edo bestea ekarri" esaten zion amari. Gutun guztiak gaztelaniaz idazten zituzten, eta zegozkien Viva España eta halakoak jarri. Espetxeko bizitza monotonoa zela esaten zuen, ez zuela kontatzekorik. Amak bisitatu zuen batean, hilotz baten moduan topatu zuen. Hasieran zen hori. Gero hobera egin zuen. Bi anaia gehiago zituen espetxeen.

Hilkutxetan lotan

Hasieran, lotarako ere lekua falta zitzaien. Estu-estu egoten ziren, ezin etzanda. Almazen bat omen zuten, hilkutxekin, eta lotarako leku oneña kutxa horiek zirela aipatzen zuen gutunetan. Ahal zutenetan han sartzen zirela, lotara, behintzat etzateko lekua zutela.

Aita ezezaguna

Bukaera aldera, gogotsu ikusten zaio. Luze egin zitzaion egonaldia. Gure osaba bat zazpi urtez egon zen espetxeen, eta irten zenean, alabari kosta egiten zitzaion gerturatzea. Aita ez zuen ezagutzen eta. Espetxean egon zen denboran, gure aitak ez zuen nahi izan gu, umeak, bisitan joaterik, eta irten zenean, berak ere jolasak egiten zizkidan, berarengana gertura nedin.

Espetxetik irten, baina herrira itzultzeko baimenik ez

Goizeko 3rak aldera iritsi zen etxera. gaua etxeen eman zuen, eta hurrengo goizean, hobe zuela alde egitea esan, eta berriro joan zen. Villareal de Alvara joan zen, Buscatarren hango tailerrean lan egitera. Hilabete batzuk eman zituen han ezkutatuta, eta giroa lasaitu zenean, herrira itzuli zen. Ez zuten gehiago molestatu. Juanito Zepelinek ekarri zuen espetxetik. Amak, alkateari salbokonduktoa eskatu zion horretarako, aita etxera itzul zedin. Alkateak baxkaldu ohi zuen tabernara joan, eta firmatzeko eskatu zion, baina alkateak ezezkoa eman zion. Juanitok, hori ikusi, eta berak ekarriko zuela agindu zion, kajaren batean ezkutatuta. Aita 1939ko apirilaren 3an itzuli zen, gerra amaituta. Hiru anaia egon ziren preso: Paco, Andres eta Ignacio. Hirurak nazionalistak ziren.

Hezurrak ateratzen Belokitik

Nire senarra Kalebarreneko zen, eta Beloki eta Izazpi aldera asko igo ohi zen. Bada, egun batean, Belokira igo zen, eta han herriko lurperatzailea aurkitu zuen. Lagunak ziren, biak Kalebarrenekoak baitziren. Lurperatzaileak, alde egiteko esaten omen zion, ez zedila gerturatu, baina horrek nire senarraren jakinmina piztu zuen. Gerturatu egin zen, eta zulo batetik hezurrak nola ateratzen zituzten ikusi zuen. Nik entzuna nuen etxean, batzuk harrapatu zituztela eta ez zirela gehiago agertu, baina... Horregatik, nire senarrak bere errautsak han botatzea nahi izan zuen.

Eliza beti haietan

Astakeriak egin zituzten eta eliza beti haietan zegoen. Baita mojak ere! Orduan dominio totala zuten. Ez zitzaien gustatzen euskeraz hitz egiten entzutea. Zenbat zigor euskaraz egiteagatik! Eitzako festetan dantza egiten genuen, eskola guztitik eramatzen gintzutzen, eskoba batekin bueltaka. Azkenerako parre egiten genuen. Bain a zer nolako koskorrekoak ematen zituzten! Bazen irakasle nafar bat, erregealdekin ematen zuena. Irakasle onak ere igaro ziren baina guztiak erdaldunak ziren. La arratsaldero Espainiako Ereserkia abesten genuen, Cara al Sol-a, jolastokian jarrita. Gorrotoa zegoen, lagunen artean ere bai, gure artean. Batzuk beste aldekoak ziren eta ikustekoa zen nola tratatzen gintzutzen. Eta hori umeak ginela, 11-12 urtekoak.



Itziar Txintxureta aitaren gudari txartela

ere ez zekiten euskaraz! Batek edo bik asko jota. Sor Maria, madre superiora, nafarra zen, oso nafarra. Izenak ere aldatu egiten zizkigun. Edurne zena, Nieves; Miren zena, Maria. Baguenen Miren bat gelan, eta Maria esaten zionean haserretu egiten zen. "¡No me llamo María!".

Emakumeak, lurra eta zeruarekin

Entre el cielo y la tierra, emakume asko gelditu ziren hiru, lau edo bost umerekin. Ez dirurik eta ez ezerrez.

Jesusa Larraza

1931n jaioa, Zumarragan.

**“A ze gaua igaro genuen,
horiek ziren tiroketak!”**



Etxetik ihesi

Gu Urtubin bizi ginen, burdinezko etxeetan. Aitak, Bernardo Larrazak, Urretxukoa eta EAJkoa, nola ihes egin zuen gogoratzen dut. Harrapatzentzitzen gizon guztiak hil egingo zitzetela esan zuten, eta ospa egin zuen. Ama hiru umerekin gelditu zen, eta guk ere alde egin genuen, Azkoitia aldera. Gure eraikineko lau etxebizitzetatik hirutakoak elkarrekin joan ginen. Laugarren familiak Oñatira egin zuen ihes. Ipintzara iritsi ginen, eta orduko alkatea ezkutatuta zegoen han inguruan. Gabilondo udaltzaina ere han zen. Etxe guztia zabalik utzita egin genuen alde, soinean arropa gutxi batzuk hartuta, eta Martirietara joan nahi genuen, Azkoitia sarrerako baserri batera. Alkateak eta berarekin zeudenek, ez joateko esan ziguten. Lapurreta egingo zigutela eta etxera itzultzeko. Itzuli egin ginen, eta etxera sartu orduko, bonba batek eztanda egin zuen etxearen atzekaldean eta sekulako zuloa egin zuen. Bizilagun guztiak etxe bakarrean egon ginen. A ze gaua igaro genuen. Horiek ziren tiroketak! Leihotan koltxoia jarri genituen, balak eta ez sartzeko. Batetik eta bestetik tiroka aritu ziren, gau hora ez zait ahaztuko. Gau guztia negar eta negar eman nuen. Etxetik soldaduak ikusten genituen pasatzen.

Ume bat informazioaren truke

28 hilabetez aitarik gabe egon ginen. Preso hartu zuten eta amari udaletxetik deitzen zioten, aitaren berri ematera joan zedin. Berak ez zekiela esaten zien, ez zekiela non zegoen. Postal batzuk iristen zirela, eta ondo zegoela zioela bertan, besterik ez zekiela. Han esan zioten, udaletxera deitzen zuten hurrengoan senarra non zuen esaten ez bazuen, ume bat kenduko ziotela. Amak ez zekien zer egin, eta Zaldibikoa zenez, baserrira joan zen, bi umerekin. Ni Lizarrustira joan nintzen, izebarengana. Baserrian lan asko egin behar izaten zuen amak, eta giltzurruntatik izorratu egin zen. Anai-arreba asko ziren, eta batzuek hala esaten zioten: “ea hor, joan diren guzti horiek harrapatu eta garbitzen dituzten”. Hori ikusita, ama, bi umeak hartu eta atzera etxera itzuli zen, Orbegozora lanera.

Kamioietik agur egiten

Aita kontzentrazio esparru batean egon zen, Espinosa de los Monteros. Handik Larrabetzura eraman zuten, eta han bisitatu genuen amak eta biok. Eitzako okinarekin joan ginen, bere furgonetan. Aita okin lanetan zuten, lehenago ere horretan jardun baitzuen, eta ez zegoen hain gaizki. Etxera itzuli zenean, ama mezetara joan zen igande batean, eta handik intendakoan, aita kamioi batetik agurtzen ikusi zuen. Berriro espetxeratu zuten. Ama udaletxera joaten zen aitagatik galdezera, eta “zerbait egin izango zuela” erantzuten zioten, “zerbaitegatik egongo zela han”. Bigarren aldiz askatu zutenean Orbegozon hasi zen lanean.

Eskolan, parre

Lizarrustin denbora asko eman nuen eta ez zen oso esperientzia gozoa izan. Amak handik ekarri ninduen azkenean. Etorri eta eskolan hasi nintzen, gaztelaniaz, eta nik ez nekien tutik ere. Parre egiten zidaten gaztelaniaz egiten nuen moduagatik, euskeraz bakarrik nekien eta!

Txakur hizketa egiteagatik hila

Gure bizilagunak ere gazte zirela joan ziren. Bat 16 urterekin eta bestea 18rekin. Gazteena 24 urterekin hil zen. Dirudienez, euskaldun batzuk elkartu ziren, eta euskeraz ari ziren. Sargentu batek, txakur hizketa hora egiten zer ari ziren esan omen zien, eta sekulako jipoia eman omen zion. Bizkarra ebakiz josita omen zuen, eta gaeuan kanpoan utzi zuten, hori ere zigor gisa. Izotza egin omen zuen eta gaixotu egin zen. Sana-torioan izan zuten, baina han hil zen, 24 urterekin.

Errazionamenduaren istorioak


Errazionamendu garaian, aita Nafarroara joaten zen, eta artoririna, patatak eta ahal zuena ekartzen zuen. Hori trenean kentzen ez bazieten. Noiz edo noiz trenetik ere bota behar izan zuten zakua, harrapatuz gero isuna jartzen baitzizuten. Gero, boniato handi hori ere gogoan dut. Orain modan egongo da, baina a ze nazka. Azukrea baina gozoagoak dira eta mordoa jan genituen! Dorronsorenean partitzen zuten janaria. Ogia ere halamoduzkoa zen, hora ez zen artoririna, beste zerbait zen, eta txarra baino txarragoa. Batzuek ogi zuria zuten etxean baina guk ez. San Blas batzuetan ere, gogoan dut, nola ogi hora hartu eta elizara eraman nuen bedeinkatzera. Bada, erdia han jan nuen!

Jesusa Salegi

1915ean jaioa.

Urretxu.

“Emakume dexenteri moztu zioten ilea hemen”



Koltxoiaik lehoetan

Gerra garala tristea izan zen, ez zegoen umeak hazteko astirik ere. Guk ez genuen borroka hura ulertzen, gazteak ginen eta. Goizean jeiki, eta Belokin tiroka hasten ziren, ez dakit nora, mendiari, Amabirjinari edo zeri. Eskolara ere beldurrez joaten ginen, bide bazterretik. Belokiko tiroak etxetik entzuten genituen, eta badezpada, lehoetan koltxoiaik jartzen genituen. Balak etortzen baziren, kiribilduta geratuko zirela esaten zuten, eta guk sinistu! Entzuten zen guztia txarra zen: Arrasaten sartu zirela, lapurretak egin zitzutela...

Baserritarraak haserre

Belokin, defentsan aritu ziren soldaduak, etzanda egiten omen zuten lo, eta baserritarraak beldurrez egoten ziren, sua egiteko, edozein aitzakiarekin laborea puskatzten zieten eta. Lapurretan ere ibiltzen ziren, baserrietako garoa lapurtzen. Baserritarraak haserre egon ziren. Konpainia bat edo egon zen bertain. Egunero tiroka aritzen ziren.

Razquin ofizial gaiztoa

Razquin abizeneko bat zen nafarren konpainiako nagusia. Oso gaiztoa zen. Bere tropak pilotalekuaren utzi, eta bera Ugalderen zinemara joaten zen lo egitera. Butakaten etzaten ziren lo egiteko. Ostikoka tratatzen omen zituen. Hark agintzen zuen, eta guztiak tente zituen. Txepa apur bat zuen, eta “mira, ya viene el cheposo” elkarri esanez, beldurrez ibiltzen ziren.

Valveldetarrak

Gernikako Arbolaren plazan bizi ziren. Semeetako bat Manolo zen, bihurria zen. Begiz jo zuten eta ez zioten bizitzen uzten. Hartu eta udaletxe gainerako espeltean sartzen zuten, baina nonbaitetik ihes egiten zuen eta berriro hartu eta espeltxera. “Sois unos marranos...” aritzen zen oihuka.

Aita preso

Nacionalak sartu aurretik, gure aita ere, Simon Salegi, preso hartu zuten, ez zielako kamioia utzi nahi izan. Zinema batean, eserlekuetan izaten zituzten lotan. Gogoan dut afaria nola eraman nion, eta ze malkoak irten zitzazkion! Egun batzuk soilik egon zen han, baina gaixo zegoen eta han ez zegoen medikurik.

Semea eta negozioa

Soldaduak etortzerako gazte jende asko eramanda zuten. Anaia, 18 bete zituenean eraman zuten. Txoferra zen eta kamioi eta guzti eraman zuten. Ez ziren tontoak. Aita etxeko negozioa semeak jarraituko zuelakoan, eta semea eta negozioa eraman zizkiotan. Bergarakik Elgetarako

bidea egiten zuen. Bilbora ere joaten zen soldaduak eramatera. Alferrikako bidaia asko egiten zituen. Nire anaia gidari lanetan zegoen, eta Bergarako eta Beasaingo komandantzia militarretatik soldaduak ekartzen zituen. Soldaduek ez zuten bileretik ordaintzen, nahi zuten lekura joan zitezkeen.

Fusilatu zituzten bederatzi herritarra

Inork ez genekien nora eraman zituzten. Furgoneta batean atera zituztela esaten zen, baten batek ikusiko zuen nola atera zituzten.

Astoak, otarrak alboan zituela

Zumarragako plazan bombardaketa egon zenean, astoa ikusi nuela gogoratzen dut, otarrak alboan zituela, botata, estatuaren atzean. Jende asko joan ginen hura ikustera. Beste behin, geltoki inguruan beste bonba batek eraikin baten pareta osoa apurtu zuen. Hegazkinak igorren zirenean guztiok beldurrez egoten ginen. Orduan ere koltxoiaik lehoetan jartzen genituen. Teiatuan bertan zebiltzala zirudien, bueltaka, harrotuta. Bizkaitarrak zirela esaten zuten. Gu ikuiluan sartzen ginen. Mendiola lehengusu bat genuen, eta harek esaten zigun: “badator bonben hegazkina” eta ikuiluan sartzen ginen. Baratzako lurak goratzen ikusten genituen, metrailaren eraginez.

Aita bonbak garriatzen

Aitak kamioiarekik egin zuen lan gero. Bonbak Aparizionetik komandantietara eramatzen zituen. Aparizio lantokia militarizatuta zegoen.

Elgetara begira

Frontea Elgetan egon zenean, Belokira igozen ginen, balak txistuka entzuten zirela esaten baitzuten. Handik Elgetako tiroketa eta bonbaraketak ikusten genituen. Ormaiztegiko Zubia bota zutenean ere ikustera joan ginen, alpargatekin. Hutsune handi bat somatzen zen.

Emakumei ilea moztu

Hemen ere emakume eta neska dexenteri moztu zioten ilea. Herriko semeek gainera. Neskatoak kalean zohoazela, espaloiean eseriarazi eta ra-ra-ra, ilea mozten zieten. Guraize automatiko batzuen modukoak zitzutzen. Hura eta gero, ileapaindegira joan behar zenuen. Eskolatik irteeten ziren neskatoei ere egiten zieten hori, nire lehengusinei kasu. Errekaduak egitera zohoazen batean. 8-10 urte izango zitzutzen.

Zubiak

Hiru zubi bota zitzutzen. Lehena Badiola lantokiaren ondoan, mendeku moduan, bigarrena geltoki ingurueta eta hirugarrena Etxeberri aldean.

Ramon Esnaola gerran

Ramon, nire senarra, 18-19 urterekin eraman zuten gerrara, gorriek. Otxandianon izan zen. Loiola bataliolean aritu zen. Esaten zuenez, ez omen zuten guztientzako fusilik, eta bat hil edo zauritzen bazuten, bere fusila hartzen zuten. Gero harrapatu eta espeltean sartu zuten, Larrinagan. Gose handia pasa zuen. Erdi gaixo itzuli zen, oso kilo gutxirekin, tente ere egon ezinda.

Espelteik ateratakoan, Badiolaren lantokian hasi zen lanean. Lagunak ziren eta ofizioa erakutsi zion.

Soldaduak banatzen

Soldaduak trenez etortzen ziren, eta guztiok uzkurtuta, non geratuko ote ziren. Pilotalekura eramatzen zituzten eta handik banatu. Lapurretak egiten zituzten dendetan, baina ezin zitzaien ezer esan. Italiarrak ikustera joaten ginen. Trenetik jaitsi eta tontokeriak egiten ibiltzen ziren. Eskolatik joaten ginen ikustera.

Gerra amaitu zenean, bakoitzak ahal zuen lekuaren eta moduan bilatu zuen bere lekua.

Soldaduentzako josten

Soldaduek josteko makina militarizatuak zituzten. Etxeetatik eramatzen zituzten, eta Albisuatarren okindegia gainean jarri, lehen pisuan. Eserlekuak eta makinak jartzen zituzten, eta josten zekiten bizilagunei dei egiten zieten. Soldaduentzako asko josten genuen. Herrian soldadu konpainia bat zegoen, eta udaletxetik paga txiki bat ematen zieten jostunei, haientzako lan egin zezaten. Guk lagundu egiten genien, eta nik, kobrautu ez nuen arren, josi ere egin nuen. Soldaduek beti botoiak erdisolte izaten zituzten.

Dotrina, euskaraz

Mojak nahiko gogorrak ziren. Guztiak erdaldunak ziren, eta bat Azkoitiako zen. Sor Teresa zuen izena eta hala esaten genion: "Sor Teresa, ea beste sorgin horiek pixkat menderatzen dituzun". Hura euskalduna zen eta katekesia euskaraz ematen zuen. Euskarazko dotrinak txikiak ziren, eta gaztelaniazkoak handiak. Nire ama Azpeitiara joan zen, eta guziontzako euskarazkoak ekarri zituen. Prezio erdian erosiz zituen, dendakoa ezin saldu zebilen eta. Etxean, gurasoekin euskaraz egiten genuen. Aita Lasturkoa zen, eta hala esaten zigun: "atarian sartu orduko euskeraz e!".

Joxe Mari Aizpurua

1945ean jaioa.

Donostian.

"Le tocó ir al batallón de trabajadores de Zegama"



El padre en la cárcel

Mi padre, Severiano Aizpuru Okariz, nació en Eitza, en la llamada casa Labekoa. Trabajaba de factor en la estación del tren del Urola. El año 36, estando él en la estación y con la gente queriendo marchar porque ya venían los nacionales, preguntó a la dirección: "qué hago yo con toda esta gente". "En sus manos está Aizpurua" le respondieron. Dio la salida al tren y se marchó con ellos a Bilbao. Allí le metieron preso en la cárcel del Carmelo, en Murguía. Mi padre era del Partido Nacionalista Vasco y dicen que hubo algún chivatazo. Todos los que eran de esa tendencia se marcharon. Estuvo año y medio como preso político. De allí le llevaron a la cárcel de Ondarreta y estando allí, eligieron a varios para el batallón de trabajadores, entre ellos a mi padre. Mientras estuvo en la cárcel, la familia no supo nada de él. Mi madre tampoco sabía escribir mucho. Fueron los padres pasionistas los que le ayudaron mientras estuvo en la cárcel del Carmelo, tenía un primo que era pasionista.

Batallón de trabajadores

Le tocó ir al batallón de trabajadores de Zegama, que se organizó para hacer la carretera que iba del pueblo de Zegama hasta el apeadero. Eso está hecho por el batallón de trabajadores. Allí conoció a la que sería su mujer y tuvo la suerte de poder quedarse a dormir en su caserío, en vez de en los barracones. Estuvo en el batallón junto a Paco Mendiola y Balbas. Un mes después de dejarlo libre, lo volvieron a detener y lo llevaron a Ondarreta. Tenía seis años cumplidos y pasó uno más.

A la cárcel voluntarios

Federico Lizarralde, Balbas y estos, cuando Franco venía a San Sebastián, se personaban voluntariamente en la cárcel y pasaban allá un mes.

100 pesetas el litro

Durante la guerra sí pasamos hambre pero después no. En mi casa no había lujo pero no pasamos hambre. Una vez, recuerdo que mi tío cayó enfermo y el médico le dijo que necesitaba aceite. Lo consiguieron en el estraperlo, gracias a los maquinistas del tren, que en Otzaurte, después del primer túnel, le daban dos botellas. El aceite se llegó a pagar 100 pesetas el litro en el estraperlo. La patata se traía de Agurain.

Joxe Mari Kortabarria Mendiola

1938an Bilbon jaioa.
Santos Kortabarria Lazkanoiturburu
eta Juli Mendiola Lizarralderen semea.

“Nos obligaban a ir al frente de juventudes”



Bilboko oroitzapenak

Gerra bukatutakoan iritsi ginen Urretxura. Ama Urretxukoa zen eta aita Oñatikoa. 1936ko abuztuan ezkondu ziren. Nire aitak Garajes Monumentalen egiten zuen lan Bilbon, eta gerra garaian militarizatuta egon ziren. Frontera prentsa eraman behar izaten zuen, baina ez zuen hori egiten. Kamiopia hartu, amaginarrebaren etxera joan, ondo baxkaldu, egunkariak ganbaran utzi, eta itzuli egiten zen. Hala ibili zen, nagusiek denbora gehiegiz behar izaten zuela esan zion arte. Baratzetan gelditu egiten zen, ahal zuena hartu eta Bilbo aldera jana eramateko. Gure Bilboko etxeen sei pertsona zeuden ezkutatuta. Horietako hiru Urretxu-Zumarragakoak ziren. Bat lehengusu bat zen, Ormaiztegiko Zubia bota izanaren susmagari. Oso nazionalistak ziren guztia. Gu Bilbon bizi ginenez, ama espetxera joaten zen, hemengo presoak bisitatzen, informatzera edo jana eramatera. Bilbon geundela orduro jotzen zuten bombardaketen sirenek.

Saturraranen preso

Ondoren emakumeen espelte izan zen, baina Saturrango balnearioa espelte izan zen errepublikarrekin ere. Gure lehengusu bat zaindari moduan egon zen han. Lehen, nazionalistez gain anarkistak, sozialistak edota komunistak ere baziren, eta haien beldur, herriko hainbat eskuindar preso hartu eta hara eraman zitzuten. Hala esaten zuen gero lehengusuak: “gero hau egin diezaguten: isunak, zigorrak, fusilaketak....”

Ama, Frantziar

Gernikako bombardaketa gertatu zenean, amak Frantziara egin zuen ihes. Haerdun zegoen eta umea hiru hilabete barru espero zuen. Biarrizten lehengusu bat zuen, herritik ihes egin zuena. Haren bidez, moja koblentu batean sartu zen. Santoñan hartu zuen Frantziara joateko itsasuntzia. Denbora bat Frantziar eman ostean, Urretxura itzuli zen, haurra hemen jaio zedin. Itzultzeko baimena eskatu behar izan zuten.

Flechas y Pelayos

A las tardes, a los jóvenes nos mandaban con los Flechas y Pelayos, al frente de juventudes, obligados, del taller. Los que estábamos de aprendices en Orbegozo y en otros talleres teníamos la obligación de ir. En la escuela solíamos cantar el himno, con el brazo levantado y en fila, en los frailes.

Pan amarillo

Comíamos patatas con berzas casi todos los días y membrillo con chocolate. El pan era malo, solíamos ir a donde las de Albisua, con la cartilla de racionamiento, a por la comida. Solían dar un pan amarillo, muy amarillo y más duro que... Me solía decir mi padre: “¡Cómo comías tu el pan!”. Hombre isi había hambre! Pero la verdad es que en casa calidad no habría, pero con la cantidad sí que nos arreglábamos.

A por un cadáver a Teruel

Una vez, mandaron a mi padre a Teruel, con el camión, a recoger un cadáver. Contaba que hacía mucho frío y que les decía mi padre a los familiares: “Meted a uno en la caja, porque si no seremos nosotros a los que metan”. Hacía mucho frío, pero no encontraban a su familiar.

Frontean hil

Amaren osaba bat, Boni Lizarralde, frontean hil zuten.

Joxe Mari Antia Rouet eta Begoña Zumalakarregi Alzueta

1941ean eta 1942an Gabirian jaioak.

“16 urtekoak ere joan ziren Gabiriak gerrara”



Gabirian tiroka

Joxe Mari: Nire aita gerran ibili zen, Altolagirre-Garaikoa baserrian jaioa zen. Gabiriko batzokian mugimendua zegoen, eta guztiak frontera joan ziren, 16 urteko bi edo hiru ere joan ziren gerrara. Gure aitak, Bizkaian zeudela, ez dakit zein menditan, Igartzabali txamarra eman omen zion, baserrira itzul zedin. Mutikoa zen. Aitak frontean segi zuen. Gabiria alde honetatik bertatik egin zieten nafarrei aurre. Eskopetekin edo ahal zutenarekin. Hemendik Ezkiora igaro zen, zume artean balak igarotzen zirela. Etxezarretaraino iritsi zen, eta hangok bota omen zion, “zer habil motel?”, azaldu egin zion, eta edateko zerbait eskatu zuen eta pontxe bat eman zioten, ardoa eta arraultza gorringo batekin. Handik berriro abiatu zen, Beloki bidetik, Irimora. Handik Bizkaia aldera joan zen, Elgetatik. Elkartuz joan ziren, guztiak Amaiurkoak. Bataloi handia zen eta gure aita tenientea zen. Baziren Gabiriako teniente gehiago.

Begoña: Nire aita ere ibili zen gerran, baina inoiz ez digu ezer kontatu nahi izan. Errepublikarra zen, Zumarragan jaiotakoa. Asturiaseñ zauritu egin zuten, hanka batean. Nerbio ziatikoa hondatu zion balak, eta herren gelditu zen. Hiru urte eman zituen kanpoan.

Elgetan eta Bizkargin

Joxe Mari: Ez ziren Atagoitira iritsi. Atagoitira iritsi aurretik, ahal zuten lekura gurutzatu zuten, eta handik Ezkio aldera jo zuten. Ahal izan zuten gabiriarak ahal izan zuten lekuetan elkartu ziren, guztiak Amaiur bataloiekoak. Elgetan fronte gogorra izan zuten, eta baita Bizkargin ere, hemen oso gogorra. Azkenik, Asturiaseñ ere bai.

Osaba mutiloar batek hil

Begoña: Bizkargin nire bi osaba hil ziren. Lehenengo bat hil omen zuten, eta bestea hura ikustera joan zenean hil zuten. Anaiaren aurrean belaunikatu zenean, kanposantuan edo botako zuten lekuaren. Joxe Mariren aitaren oso lagunak ziren, eta elkarrekin joan ziren. Bizkargin hil zituzten. Bat hil zuten, eta besteari anaia hil zutela esan zioten. Non zegoen ikustera joan zen, eta han hil zuten bestea. Biak gudariak ziren, Amaiurrekoak. Ez dugu inoiz jakin non dauden haien gorpuak. Gabiriar asko hil ziren orduan. Karlistaren bat ere bai. Gabirian bazegoen baserri bat. Anaia batzuk Francoren alde ibili ziren, eta besteak kontra. Joxe Mariren aitak beti esan zigun, gure osaba mutiloar batek hil zuela.

Asturiaseñ

Joxe Mari: Asturiaseñ mendietan aritu ziren borrokan. Nalon ibaian zauritu zuten nire aita. Ibaia gurutzatzen ari zirenean bala batek jo zuen. Hanka batetik sartu zitzaión, eta bestetik irten. Bilbora eraman zuten, eta handik Frantziara ebakuatu, itsasontziz. Han lantoki batean egin zuen lan, eta denbora batean ez zioten utzi etxera itzultzen, *busca y capturan* baitzegoen. Gabiriar gehiagorekin topatu zen bidaia hartan. Frantziaren Bigarren Mundu Gerra bizi izan zuten eta militarizatuta izan zuten, bonbak egiten lantoki batean. Ama Baigorrikoak zen. Zulo bat egin zuten, bombardaketan sartzeko.

Etxera itzulera

Joxe Mari: Aurrenekoz, Frantziatik oinez etorri zen, baserrira. Leihora harri txintxarrak bota zituen, amona eta aitona bera zela kontura zi-tezen. Hamar urte igaro ziren etxetik ihes egin eta atzera itzuli zenerako. Hasieran, gaua baserrian pasa eta mugaz bestaldera pasatzen zen berriro. Orduan alkate nor zen begiratu behar zen, haien informeek asko balio zuten eta. Ni sei urte nitueta etorri nintzen.

Eskolan elkar ulertz

Joxe Mari: Etorri nintzenean, ez neki euskaraz. Frantsesez eta gaztelaniaz hitz egiten neki. Eskola gaztelaniaz zen, eta Cara al Sol-a abesten genuen, besoa altxatuta. 40 neska eta beste hainbeste mutil ginen, maestra bakarrarentzako. Lagun gehienek ez zekiten gaztelaniaz, baina konpontzen ginen. Herri txikia zen, eta euskaraz egiteagatik ez gintuzten zigortzen.

Kontrabandoko errota

Gabirian kontrabandoko errota bat zegoen. Garia gauez eramatzen genuen, astoari tiraka. Errota ezkutuan zegoen, baserri bateko txabola batean. Gabirian errota asko zeuden, baina guztiak kontrolatuta. Errazionamenduaren kartilak elizan banatzenten zituen alkatearen emazteak. Olioia, esne kondentsatua, gazta... Alkateaz gain, jefe lokalera bazegoen, eta haren hitzak balio zuen.

Ikurrina jartzeagatik, amona fusilatu nahi

Begoña: Nire amonari bost pezetako multa jarri zioten, etxean ikurrina jartzeagatik. Herriko plazara eraman zuten, eta fusilatu egingo zutela esaten zioten.



Amaiur batalioia. 1937

Juanita Berasategi

1933an jaioa.
Segundo Berasategi eta Celestina Ormazabalen alaba.

“Mojek ez ziguten euskaraz hitz egiten uzten”



Juanito Urzelai

1927an jaioa.
Zumarraga.

“Valverde preso zutela ikusi genuen, Eitzan”



Soldaduak Alemaniara

Gogoan dut, sei urte nituenean, soldaduak Alemaniara zihozela, trenak beteta, gerrara. Trintxerak egitera eramatzen zituzten. Gogoan dut, soldaduak Alemaniara eraman zituztenean trena nola pasa zen. Animaliak baina okerrago zihozzen, kaxoietan sartuta.

Ihesean

Gu Ezkion bizi ginen, trenaren karrilaren ondoan, Renferen etxeen. Gure etxera jende asko etortzen zen, ihesean, ur eske, Izazpira bidean, behetik gora, goitik behera, galdua, nora joan ez zekitela. Trenaren tunelean pistolak eta bayonetak gordetzen zituzten. Gure aitak trenaren karrila garbitzen edo pasoa ematen egiten zuen lan eta topatu egiten zituen.

Trintxerak Argixaon

Gure aita, egun batean Argixaon trintxerak egiten egon zen, baina ez zuen hori baino gehiago egin. Osaba batek Bartzelonara egin zuen ihes eta beste batek Donostiarra, baina onik itzuli ziren etxera.

Eskolan abestera

Eskolan Cara al Sol-a kantatzen genuen, eskua altxatuta. Mojak frantsesak ziren eta ez ziguten euskaraz hitz egiten uzten. Guk ez genuen eskolaz tutik ere ulertzen, hizkuntzarik ez genuen eta! Gaztelaniaz ez genekien. Beasaindik irakasle txiki bat etortzen zen, eta gaztelaniaz egiten zigu. Tximinia txiki batera egurra bota, ikasgela kez bete eta atzera etxera ezer ere ez ikasi gabe itzultzen ginen. Entzuna dut, Santa Barbarako eskolan, euskaraz egiteagatik hamar pezetako multa jartzen zutela.

Ogi falta

Ogi eza zen gaitzik handiena. Etxean txerritxoa gizentzen genuen, eta oiak eta ahuntzak ere bagenituen. Ziordia eta Altsasutik ogia estra-perloan ekartzen genuen. Inoiz ez nuen Goardia Zibilarekin topo egin. Zortzi egunez behin ogi kozkor bat ematen ziguten, baina baserrietakooi kaletarrei ematen zietenaren erdia soilik ematen ziguten. Denbora batean Donostian izan nintzen, osabaren etxeen, eta nire gurasoei adina ematen zidaten han. Ogia algarrobakin egindakoa zen, eta harekin astea pasa behar zenuen. Ez zen jaterik egoten. Guk ez genuen garirik etxeen, eta errotak prezintatu egiten zituzten gainera. Baratza genuen, eta patata, indabak, txerria gizentzeko arbia... genituen. Ogia Jaka rekadistak ekartzen zigu, eta trenetik botatzen zigu. Osabak zortzi egunez osatutako paketea zelaira botatzen zigu. Gerora, San Adriandik garia ekartzen hasi zen, eta gari hura Gabiriako puntara igo behar izaten genuen, hango errotan ehotzera. Artoirinarekin taloak egiten genituen.

Jatekorik ez, eta etxera

Beasainen jaio nintzen eta han egin nuen bizitza hiru urte izan arte. Aita Altsasura bidali zuten, trenbideko langilea zen, eta han, istripu bat-teen hil egin zen, Carrascalgo geltokian. Unzueko hilerrrian lurperatu zuten, eta horiek dira nire oroitzapenik zaharrenak. Altsasutik hona eterri ginen, ama hemengoa baitzen, eta bere baserrira itzuli ginen. Gerora Eliz-Kalera joan ginen. Ni Malagan ikasten nengoeng gerra hasi zinean, baina oporraldi batean, Zumarragan. Gerra hasi baina bi-hiru aste lehenago itzuli nintzen herrira. Madrilen eta Malagan miseria handia ze-goen. 36an, Malagatik etxera bidali gintzutzen, ez baitzuten guri jaten emateko. Madrilen bi-hiru egun eman genituen, bidaian, eta miseria handia ikusi nuen metro ingurueta eta.

Informazioa, elizan

Elizaren parean bizi ginen, eta goiz batean, ama mezetara joan zen. Igandea zen, eta gerra bezperan hasi zen. “Joño, gerra bat, soldaduak Afrikatik pasa direla eta zerbaite dagoela. Jendea mugitzen hasi da” esan zigu. Apaizen batek esan zien. Don Aniceto zegoen, eta baita Don Cipriano. Hura karlista sutsua zen, erretorea gainera. Nazionalistak jende gaztea mugitzen hasi ziren, orduan nazionalista gehienak EAJkoak ziren.

Lubakiak, norabide okerrean

Beloki inguruan trintxerak egiten abuztu aldera hasiko ziren. Irailean sartu ziren soldaduak herrian, eta zortzi egun lehenago edo, hasiko ziren. Zaku batzuekin egin zituzten lubakiak. Beste batzuk Aizpuru baserrian sartu ziren, baina atzetik harrapatu zituzten. Lubakiak Argixaotik etorriko zirelakoan jarri zituzten, eta Beasain aldetik eterri ziren.

Emiliano Valverde, ikuilu batean

Orduan ez genekien zein zen Valverde. Gu Eliz-Kalen geundela, errekeetak sartu ziren. Lagun bat gugana eterri zen, eta hala esan zigu: “Joño, Kaminburun bat preso hartu dute, Eitzan, eta Guridiren ikuiluan dute gordeta”. Gaueko bederatzia edo, izango ziren, eta Eliz-Kaletik mor-doxka bat igo ginen, ikustera. Emiliano Valverde ikusi genuen han, poste baten kontra jarrita. Futbolean jokatzen ikustetik ezagutzen nuen.

Timoteo mozkorra askatzen

Han geundela, Don Andres apaiza eta moja bat eterri ziren. Timoteo Alberdi, herriko alguazila ere preso zuten han. Famatua zen, beti mozkorra egoten zen. Kalean, mozkortuta, iViva la Repùblica! esaten ari omen zen, eta atxilotu egin zuten. Apaiza eta moja haren bila joan ziren. Don Andres ere karlista zen. Aizpuru aldetik tiro batzuk entzun ziren, baina gu etxera joan ginen ordurako.

Gorpuak lurperatzen Belokin

Soldaduak hemen sartu eta bi egunera, Beloki aldera igo ginen. Han ikusi genituen, zuhaitzen hosto batzuekin estalita, gizon batzuen gorpuak. Gu baina mutiko zaharrago batek topatu zituen, Pedro Urteagak, eta harekin igo ginen besteok. Handik egun batzuetara han jarraitzen zuten gorpuak, eta egun batean, igo eta jendea topatu genuen han. 15 bat pertsona ikusi genituen. Zumarragakoak ziren, eta batzuk oso ezagunak. Kanpora bidaltzen gintuzten. Bertan lurperatu zituzten. Belokiko gurutzetik Zumarragara begira, ezker aldean zegoen trintxera, eta haren azpian lurperatu zituzten, Ezkio aldera begira. Orduan ez zegoen pinurik han. Mugitutako lurra gainean hostoak jarri zituzten berriro, eta hala egon zen hura, denboratan.



Belokiko gurutzea Gerra garaian.

Gerraren etorrera

Orduan, Zumarragako plazan irratia bat egoten zen, eta jendeak hura entzun ohi zuen. Gorriak irabazten ari zirela zioten baina....

Alkatea ikatza partitzetan

Soldaduak sartu bezperan, Basilio Fernandez alkateak bi tren-bagoi ekarri zituen, ikatzez beteta, eta bazter batean hustu zituzten, jendeak etxerako har zezan. Nik hamaika zaku eraman nituen amarekin. Jende asko zihuan ihesi, batzuk koltxoia buruan zeramatela. Alkateak ez joateko esaten zigun baina... Gehienak Azkoitia aldera joan ziren, beste batzuk Bergara aldera,... Asko trenez joan ziren. Eliz-Kaletik hiru familia joan ziren, gutxienez. Plaza Zaharretik ere bai. Bueltan itzuli zirenerako, euren ondasun guztiak kendu egin zizkieten. Gehienek etxe berria bilatu behar izan zuten.

Soldadu gehienak oinez etorri ziren, kainoiak kamioietan kargatuta. Ofizialen bat igaro ohi zen autoz, baina gehienak oinez zihoa zen. Hemen koartela jarri zuten, eta denbora askoan egon ziren.

Jose Antonio Morenita

Gogoan dut Jose Antonio Zabaleta, *Morenita*, teniente edo kapitaina zen, gudaria. Bera ere alde egiteko prestatzen zegoen, trasteak ate- ratzen. Gu ikusi, eta han zuen jana eman zigun. Arkume bat eta zopa lapiko bat eman zizkigun. Bera izan zen herritik alde egin zuen azkena.

Zabaleta fusilatu egin zuten. Sasetaren bigarrena zen, batailoieko tenientea. Sasetan hil zutenean, gau batean, tiroketa batean, arrera egin zuten gudariek, baina Zabaletak buelta hartu zuen, Sasetaren bila. Hor harrapatu zuten, eta fusilatu.

Koartelak

Nazionalisten koartela elizaren ondoan zuten, Monjas de la Cruz eskolan. Sozialistak Hermanotan zeuden, eta komunistak ere hor inguruaren.

Amabirjinaren miraria

Soldaduak gure herriean sartu baina bi egun lehenago, hainbat preso eskuindar eta karlista Markina aldera eraman zituzten. Basilio Fernández eta haren inguruko bitartez, aske utzi zituzten eta Mertzedariaren egunean iritsi ziren herrira. Amabirjinak miraria egin zuela zioten. Autobus batean eterri ziren, Urretxutik sartuz. Elizan, plaka bat jarri zioten amabirjinari, esker onez.

Tiroak elizara

Eskolan Cara al Sol-a kantatzen genuen, sartu aurretik, beti. Nik ez nekien gaztelaniaz, eta eskolan guztia hala izaten zen. Nire aita, tratanteen zain egoten zen baserrian, eta agertuz gero, haikekin gaztelaniaz praktikatzeko baliatzen zuen. Sagardo botila atera ohi zien, eta puska batean hor egoten ziren. Aitak anaia zuen Donostian, eta haren joateko ere, gaztelania behar zuen, bestela ezin entendittu.

Mari Kruz Zabaleta Plazaola

1919an jaioa.
Zumarraga.

“Mi hermano murió en la guerra con 22 años”



Su hermano en la guerra

A mi hermano le tocó ir al sur en la guerra, a África. Estuvo mucho tiempo sin venir. Me solía escribir. Más tarde, le destinaron a Teruel y murió allí.

Comienzo de la guerra

Hacía poco tiempo que habíamos comprado la radio y aquel día eran las fiestas de Santa Marina en Aztiria. Fui con las amigas y cuando volvimos, dijo el tío: "Ha estallado la guerra". ¿Y que es eso? -le respondí. "Hay tiroteo entre tal monte y tal monte en Gabiria, porque han entrado los contrarios y han estado tiroteando" me dijo. "¿Como es eso de los tiros?" le pregunté. "Es muy triste, es muy triste" me dijo el tío, "si lo tenemos que ver ya lo veréis, pero es muy triste lo de los tiros".

A la noche, vinieron dos vecinos y nos comentaron que la cosa estaba muy mal. "Pues yo me voy a Ondarraola", el barrio que está al lado de Gabiria donde ahora se ve un convento viejo. Entonces había más de 90 frailes y críos. No nos enterábamos ni la cuarta parte de lo que se enteraba ahora. Ya estalló la guerra, estaban las dos partes, teníamos presidente y esos tuvieron que marcharse enseguida. Y en la radio ya daban los partes: que si el gobierno y el que no era gobierno. A la noche, para oír algo, creyendo que oíamos la verdad, coger una radio pequeña y sin que nos oyera nadie, solíamos oír.

El País Vasco picoteando

Enseguida empezó el País Vasco a picotear un poco, a ver si sacaba algo, pero nada. Estuvimos en guerra tres años y ¡Qué matanzas! Aquí empezaron contra los conventos de frailes. Hubo mucha muerte.

Cartas del frente

Recibí una carta de mi hermano y otra de su jefe de patrulla. La de él, diciendo que lo habían pasado muy mal con no se qué heladas y la del compañero, diciéndonos que mi hermano había muerto y que no fuéramos a por el cadáver porque no le encontraríamos entre los muertos que había. Dijo que mi hermano había muerto en un ataque y que ya estaba enterrado. Durante la guerra, vino varios días de permiso. No pasó muchos días aquí. Murió a los 22 años. En nuestra casa había nacido una niña y fue el paño de lagrimas de todos, porque uno lloraba y a ver quién le podía coger a la niña para ir a algún rincón y llorar.

Tristeza en la guerra

La guerra desde luego es triste. Ahora sería triste, pero ahora nos echarían una bomba y adiós. Todo Idiazabal, Villafranca y Beasain todo abajo. Llorar y nada más. Aunque pusieron que no fuéramos a por el cuerpo de mi hermano, sí que fueron a Lerida, a buscarlo, pero no se enteraron de nada. Estuvieron con los compañeros de mi hermano, pero no sacaron nada en claro.

Fusilados

Llevaban a muchísima gente, a las noches, de sus casas. ¿Conoces el monte de San Miguel de Urkiola? Todo aquel al que echaban el ojo de día, iban a la noche y *iPun! iPun!* la puerta. "¡A ver Fulano de tal! ¡No! ¡Si ha ido a la cama! No, no, ique venga con nosotros!" al autobús y más adelante lo mismo. Los llevaban a Urbasa y los tiraban monte abajo. Si supiera hablar ese monte... la gente que ha muerto... ¡No entrarán en Gipuzkoa!.

Soldados en Zumárraga y Urretxu

Les saludábamos. Habían puesto un coche entre Zumárraga y Azkoitia. Era un cochecito y te veían en la calle o en la carretera y se paraban y te cogían y entrabas al coche con la mayor tranquilidad. A los alemanes había que mirarles así porque ellos te miraban... No creas que los alemanes hablaban. Los italianos eran más gitanos, como nosotros. Pero los alemanes, cada tipazo...

Jugábamos con piedras

Entonces no salíamos, si éramos crías además, eso de salir es cosa de más tarde. A Zumárraga solíamos ir con la madre, si nos llevaba algún día a la feria o así, lo demás no. Los domingos tampoco, era una vida completamente distinta. Si la gente entonces viera la vida de ahora, ¡Se morían del susto, de un infarto! Entonces jugábamos con algunas piedras jugáramos. Un poquito más tarde ya nos hicieron unas muñecas de trapo, pero no teníamos nada, en las casas no había nada, justo para vivir había.

Galletas, que bendición

Hambre no, en el caserío siempre tenías pan, tenías potaje, tenías verduras, puerro... Hambre no pasamos, ahora... galletas o alguna cosita, que bendición.

Kasto Ormazabal

1911ean jaioa
Zumarragan.

"Asko ikusi genituen bala batekin erorita hiltzen"

Gerraren arrazoiak

Gudaren arrazoiak, dena gezurra! Agindu nahia zen. Faxistak, Errepublikanok, Komunistak, Abertzalek... Guztiek nahi zuten agindu. Azken baten faxistek eta errepublikanoek.

Fronteko eta Langile Batailoiko janaria

Frontean jaten genuen dena txarra zen, potajea besterik ez genuen jaten, garbantzuak edo lentejak, eta plater bakarra. Batzuetan haren gainean haragi puxka bat edo jartzen ziguten. Gudari egon ginenean bitartean, bakoitzari bere platera ematen ziguten, baina Langile Batailoietan egon ginenean, hiru pertsonentzako plater bat ematen ziguten. Eta hirurak gose geratzeko modukoak. Behin, plater batean zortzi garbantu tokatu zitzaitzigun. Platera urez, saldaz beteta zegoen. Beste garai batean, eguerdian babarrun zuria ematen ziguten, jornada intentsiboa egiten genuen, eta hiruretan babarrun zuria. Imajinatu hura nola egongo zen. Hilabete pasa nuen bat ere hartu gabe. Gosaltzeko kafea, kafe-ura, kafe kolorekoa, eta horrekin eguerdira arte. Gosaria, bazkaria eta afaria, gehienetan, gauza berdintsua izaten ziren, eta erditan jan ezin zitekeen zerbaiz.

Fronteko bizi baldintzak

Batzuetan ez genuen lorik egiten eta beste batzuetan, egun osoz agian. Zegoen mugimenduaren arabera izaten zen. Bizkaian egon ginenean, ez genuen lo asko egia, baina Castilla aldean egon ginenean, gau osoan zehar egiten genuen lo. Koltxoirk eta aterperik gabe, hori bai. Lurzoruaren gainean egiten genuen lo, manta bat soinean. Euria ari bazuen, estalpe baten bila joaten ginen. Lekuaren arabera, pikatxoarekinurrean zulo bat egiten genuen, atxurrarekin pixka bat berdindu, manta bat bota eta lotara. Atera kontuak, abiazioa edo artilleria bal-din bazegoen, zein nolako zarata izango zen han. Aste osoa bat ere garbitu gabe egoten ginenean, agian, errekkaren bat bilatu arte. Frontea geldirik baldin bazegoen, ez zen goardiarik egin behar, baina bestela, bi ordutik bi ordura egiten genituen erreleboak.



Kasto Ormazabal eta anaia Kandido eskuinean, Gernikan.

Baimenak

Guk ez genuen etxera itzultzeko batere baimenik izan. Bizkaian egon ginenean bitartean, bizkaitarrek bazuten etxera joateko aukera, baina Gipuzkoa nazionalen eskuetan zegoen, eta guk ezin genuen etxera joan. Permisoa izaten ziren, eta bakea zegoenean, alde egiten genuen. Hilabete edo bi hilabete egon, eta erreleboa etortzen zen. Ez genuen ordu librerek izaten, soilik, erreleboa etortzen zenean. Denbora ahal genuen moduan pasatzen genuen. Zerbait idatziz... Bizkaian korreoa ondo zebilen, baina Gipuzkoan... Gerrari ezin zaio alde onik ateria. Guztia txarra da. Lagun berri batzuk egitea agian bai, baina... Guk gainera, soldaduak izan arren, ez genuen ejerxitoko disziplinarik, libreago ibiltzen ginene.

Graduazioak

Mailaketa ejerxitokoaren moduko zen. Lehenengo soldadua, gero kabua, gero sargentua, gero brigada, gero alfereza, tenientea, kapitaina, komandantea, teniente koronela, koronela eta generala. Eta *generalisimoa* handioa oraindik, kar, kar, kar!

Arriskua

Ia egunero egoten ginenean arriskuan. Hala ere, ez nintzen egon hiltzeko zorian edo zaurituta. Iztarrean izan dut, gerotzik zauri txiki txiki bat, bala batek jotakoa. 15 egunez Bilbon izan nintzen, ospitalean. Guk fusila erabiltzen genuen, eta arrioak arma hobeak erabiltzen zituen. Asko ikusi genituen bala batekin erorita hiltzen.

Gernikako Bonbardaketa

Menditik ikusi genuen Gernikako bonbardaketa, Mañariatik. Puntara igo ginenean kea ta sua ikusi genituen. Gernika zenik ere ez genekien! Hori hurrengo egunean jakin genuen. Oro har, abiazioak pinudiei su ematen zien, eta herri batzuei ere, baina ez genuen pentsatu Gernika izango zenik. Gu Mañaria herrian geunden, baina mendian.

Anaia Candido

Anaia Candido ere gerran ibili zen. Hura tenientea zen. Bi izar zeuzkan, sei puntadunak. *Gorriek* bost puntakoa erabiltzen zuten baina guk, artean, ez genuen ideiarik.

Langile Batailoia

Gerran baina gehiago sufritu genuen Langile Batailoietan. Bi urteko zigorra bete nuen han. Lehenik Mirandan, kontzentrazio esparruan. Gero, Leonera, Asturiasera, Leonera berriro, Mirandara, eta Langile Batailo batean, Extremadurara. Extremaduran ezkurrak eta belarra ere jan genituen. Orokorean, kanpoan egoten ginene, alkornoke baten azpian lo egiten. Kanpin dendarik eta ez genuen. Lanak, berriz, asko: alanbreak biltzea mendian, ferrokarrilarentzako harriak pikatzen, harrobiko lan guztiak,... Javier anaia ere han zegoen. Candido, berriz, espetxeen sartu zuten, graduazioa zuen eta. 30 urteko espetxe zigorra ezarri zioten, eta hiru inguru bete zituen.



Kasto Ormazabal, zutik ezkerretik bigarrena eta bere anaia Javier eskueinean txapelarekin. Leongo "Batallon de Trabajadores"en.

Bonba

Behin, Villaverden, parapetoan, bonba batek eztanda egin, eta nire ondokoa seko geratu zen. Eskerrak etzanda geunden. Nire aurreko eta atzoko, biak suertatu ziren zaurituta. Batei, hainbeste metralla sartu zitzaior gorpuzean odol guztia irten zitzaiola. Harekin gaizki ibili ginen, ezin *torniketerik* egin; trapuak odolarekin bustita zeuden, eta ezin egin. Halako batean, Bergarako lagunari esan nion: "hik eutsiok pixkat eskuakin", gero guztia lehortu genuen eta halako batean lortu nuen *torniketea* egitea. 10 urte beranduago berriro elkartu nintzen harekin. *Torniketea* egin ez bagenio, bost minutu ere ez zen egongo hora. Besteak deseginda, eta niri ez zidan ezer ere ez egin. Kamino bazter bat zen, Maldoradotik Villa de Alavara dijan kamino hori. Txabolak geneuzkan han, guk garoa eta orbelarekin egindakok. Gehienbat etxeko giroa botatzen genuen faltan. Eta bakea, han ez genuena. Eta baita askatasuna ere; han ez genuen askatasunik. Beti lotuta geunden.

Javier Ormazabal

(Familiak idatzia) 36an bera eta anaiak Bizkaialar joan ziren Loiola batailoian. Villarrealoko batailan aita zauritua izan zen, baina gero, 37an, nonbait sendatuta zegoen eta Gernikara joan zen. Han zeudela bombardaketa gertatu zen. Gero, Santoñan errenditu zirenean Casto eta Javier kartzelan zeudela ihes egin omen zuten, baina italianoek harrapatu zitzuten berriro kartzelara eramanez. *Consejo de guerra* izan zuten (berak esaten zuen akusazioan "rojo, rojo, separatista" izateagatik *batallon de trabajadoresera* kondenatu zitztela). Batallon de trabajadoresean Toledon behintzat egon ziren.

Casto, trabajadoreetan

(Familiak idatzia) Batallón de trabajadoresen Castok kapitainaren aldetik entxufea zuen Casto trebea zelako zumearekin eskulanak egiten, eta kapitainak kantinplorak forratzeko eskatzen zion. Bueltan eta mesede bezala, zenbaitetan lana arintzen omen zion. Casto, Javier baino lehenago libratu omen zen eta etxera joan zenean kapitainak osabari eskatzen zion lan berdina egiteko; osabak ez zuen izango hainbesteko trebetasunik baina zerbait eman nahiean etxekoei idatzi eta saski bat bidaltzeko eskatu zien; bidalitako saskia txuri, gorri eta berdea izan omen zen. Kapitaina gustura utzi omen zuen.



Javier Ormazabal. Toledon "Batallon de Trabajadores"en. Zutik hirugarrena.

Leandro Iraeta eta Bittori Zubeldia

1928an Urretxun eta 1927an Baliarrain-en jaioak

“Familia berean alde bietan hildakoak zeuden”

Ordiziara, ihesi

Bittori: Gerra bazetorrean, gogoan dut, bezperan aitak nola esan zigun Orendainen eta Gaintzan, eta inguru horietan tiroteoa egongo zela, eta ahal genuen guztiak joan egin behar genuela. Ordiziara joan ginien, osaba baten etxera eta han egon ginien egun batzuetan.

Apaizaren etxera

Bittori: Aita sakristana zen. Gure baserria, Garate, plazatik bospasei metrora zegoen eta aitak elizako giltzak zituen. *Gorriak* herrian sartu ziren, eta han zegoen gurutze bat puskatu zuten. Apaizaren etxera jo zuten gero, eta gure aita han egon omen zen, etxearen sartuta, beldurrez, giltzak eskatzen erorriko ote ziren. Oinez Ordiziara joatea pentsatu zuen, baina frontea erdian zuen, eta ez joateko gomendatu zioten, tiroketa gertu zegoela eta.

Bost duroko multa, botua emateagatik

Bittori: Gogoan dut, aita bota ematera behartu zutela. Paper batean zein ideiatakoa zinen idatzi behar zenuen, eta gure aita nazionalista zen, eta hori jarri zuen paperean. Bost duroko multa jarri zionten, eta amorratuta pentsatzen zuen: “Zertarako joan naiz orduan bozka emateera? Hori jakingo banu ez nintzateke joango! Bozketa baldin badago zer dela eta jarri didate isuna?”

Aita ganbaran ezkutatuta

Leandro: Tiroketa zegoenean, bodegara jaisten ginien. Aita ezkutatuta egon zen denboratan. Bilagunek ganbara zahar bat zeukan, eta han egon zen gordeta. Bere bila etorri ziren, soldaduak, bodegara, baina ez zuten aurkitu. Hilabete edo emango zuen han ezkutauta, eta amak ez zigan esan, denbora horretan, aita non zegoen. Gero etxera itzuli zen, eta libre utzi zuten.

Pedro Alberdi osaba

Leandro: Ama karlista zen, eta osaba ere bai. Hura Círculo Carlistan ibiltzen zen. Pedro (Alberdi) osaba. “¡Viva Cristo Rey!” oihukatu zuelako, atxilotu eta lehenik Hermanotara, eta gero Markinara eraman zuten, kartzelara. Mertzedariatarren elizan rotulo bat dago, haietako etorri zireneko gogoratzen duena. Gero bolondres joan zen gerrara, eta han hil zen. Gu mutikoak ginien, eta hemen zegoenean, gure gelan egiten zuen lo. Leon aldean hil zen. Eitzako okinarekin joan ginien bere gorpuaren bila, okinak halako lanak ere egiten zituen. Bere hiletan Musika Bandak jo zuen, zinegotzia izana baitzen.

Venancio Eguren

Leandro: Venancio Eguren, Benantxio, ere tartekoa zen, Alberdi horrena. Eguren fusilatu egin zuten eskuindarrek. Familia berean, alde bietan hildakoak zeuden.

Baserrira, janari bila

Bittori: Nik ez nuen goserik pasa. Gu baserrian bizi ginien. Gure osaba etorri ohi zen, Ordiziako, eta patatak, babarrunak... eraman ohi zituen, menditik, oinez. Ogia etxean egiten genuen.

Anaia gerran

Bittori: Anaia zaharrena gerran ibili behar izan zen, *La quinta del biberón* deitzen zioten bere belaunaldiari. Nazionalek behartuta eraman zuten, eta hari ere dirua bidali behar genion. Belchite aldean ibili zen, Madril inguruan. Sarna harrapatu zuen han, eta urteetan gaizki egon zen. Zazpi urtez egon zen soldadu. Gure lehengusu batzuk, aldiz, *gorriekin* ibili ziren, Gasteizen. Teniente izatera ere iritsi zen bat. Festaren bat edo ospakizunen bat zegoenean, Francoren aginduz espetxeen sartzen zituzten. Ospakizunak amaitutakoan, irteten uzten zieten.

Zumarragan bonbak

Leandro: Zumarragako plazan asto batzuk hil ziren behin, bonba batzuen erruz, eta esne banatzaile bat zauritu zuten. Aparizioren etxeetan ere bota zuten beste bat, baina ez zen jakin zeinek bota zuen. Ihes egin ziela ere esan ohi zen. Elgeta bombardatu zutenean ere hegazkin mor-doa ikusten zen hemen gainean.

Eskolara, gustura

Bittori: Eskola erderaz ematen genuen Baliarrainen, guztia. Oso gustura joaten nintzen. Maistra Ordiziako zen, eta ez zekien euskaraz. Cara al Sol eta guzti horiek ikasi genituen. Etxean egin beharrekoak azkar bukatzen nituen goizean, eskolara azkar joateagatik. Gero babarrunak bildu behar zirela, umeak zaindu behar zirela... herri txikietan ez zen hirietan bezala.

Pelayoetan, egurrezko fusilekin

Leandro: Niri Pelayoetara joatea egokitu zitzaidan. Egurrezko eskopetekin instrukzioa egiten genuen, desfilatz, batzuetan, uniformeekin: “Pelayos, somos de España, decididos a luchar...”

Isabel Agirre

1928an jaioa.
Zaldibar-en.

“Mi madre era una santa y trabajó como una burra”



El soldado malherido

Los soldados venían al caserío y ventilaban lo que podían. Una vez vio como disparaban a uno, pero no le podía llevar a casa para curarlo, si hubieran venido los otros, tendríamos problemas.

La madre trabajó como una burra

Mi madre era una santa y trabajó como una burra. Cuando tocaba sembrar o recoger, solía ir a Erratzu y trabajaba a cambio de comida. Traía patatas o lo que tocara y nosotros encantados. Fregaba los cacharros en el bar Kortaberri también.

Pánico a los aviones

Tuve conocimiento de la guerra cuando bombardearon Durango. Mi hermana había ido a coser allí y se habían refugiado en el jardín de las monjas, creyendo que aquello respetarían. ¡Uy cuando aquel día empezó...!. Los aviones salían así detrás de los pinos de los caseríos, venían de tres en tres. Nuestro caserío estaba en un alto y de allí veíamos como iban. Estuvimos escondidos en la cuadra. Mi abuelo lloraba. ¡Cuanto humo! Desde entonces tenía pánico a los aviones, cada vez que veía uno, me escondía hasta que mi padre venía a buscarme.

Con la escopeta en la mano

Cuando vinieron a registrar el caserío, mi madre quería tirar la escopeta, para que no la encontraran, pero los Guardia Civiles le pillaron con ella en la mano. Aunque mi madre siempre pensó que no vinieron por la escopeta, sino que algún vecino le habría denunciado. Nuestro vecino también tenía una escopeta y la tiraron al tejado para que no la encontraran. Pero allí no fueron a buscar, sólo vinieron a nuestra casa. Estuvieron pinchando la hierba seca del camarote. Mi hermano y yo nos metimos debajo de una higuera y no salimos hasta que mi madre nos llamó. "Umetxuek!" Fuimos y nuestro padre ya no estaba.

En los huesos

Mi padre había reñido con el dueño del caserío. Tuvieron un juicio en Durango y ganó mi padre, pero a los veinte días de entrar los nacionales en Durango, metieron a mi padre a la cárcel y a nosotras nos echaron del caserío. Tuvimos que vender el ganado, las herramientas y todo. Mi hermano mayor estaba herido y prisionero en Bizkaia, había ido obligado, aunque decían voluntario. Mi cuñado vino de esa cárcel y le dijo a mi madre: "ya le puedes llevar comida o algo porque está en los huesos". No recibían los paquetes. Al final fueron a donde las telefonistas, mi madre les solía llevar la leche y gracias a ellas, empezó a recibirlos.

Nosotros no teníamos casa y como mi madre había trabajado para ellos, Artiz, nos ofreció una casa para vivir.

La manta del miliciano

Mi madre comentaba que un día vio a un miliciano escapándose y que le dijo así: "Ama, ama, no se si ya me va a hacer falta", y le dio una manta a mi madre. Le debía de estorbar para correr. Unos entrando y otros escapándose.

Pedro Areizaga eta Mikaela Agirre

1923an jaioak
Urretxun eta Leitzan (Nafarroa).



“Etxaburuko zelaietan bonbak bota zituzten”

Pedro Areizaga

Belokin, Valverde

Gabiria aldetik sartu ziren batzuk, Eitzara, eta beste batzuk Villafranka aldetik. Mandubira jo zuten, eta handik Belokira. Han Valverde harrapatu zuten, karabinero baten semea. Mutil jatorra zen, altua. Eitzara ari ziren tiroka eta atzetik harrapatu zuten.

Valverde Zumarragako plazan ikusi zuenekoak

Gure Legazpiko izeba, Etxaburun egoten zen. Gizona Bilbo aldera joanda zuen. Soldaduak herrira iritsi eta giroa lasaitu zenean, bi-hiru egunera, izeba bere etxera itzuli behar zen, Legazpira, eta egurra eraman behar nion nik. Abiatu ginen, astoak hartuta, eta bidegurutzean, ez zigutela pasatzen uzten. Buelta udaletxera. Salbokonduktoa egin genuen, eta hala utzi zigutenean Legazpira joaten. *Salvoconductoa* ateratzera joan ginenean ikusi nuen Valverde. Zumarragako udaletxe azpian espetxea zegoen, eta han ikusi nuen nik hura. Kamioi kozkor batean sartu zuten, jende gehiagorekin. Valverde soilik ezagutu nuen nik, baina Belokin jende gehago ibili zen, asturiar bakarren batzuk tartean.

Ogi gehiago, badezpada

Hiru koxkorreko ogi bat eramatzen genuen etxera, Estellaneko okindegitik. Kaletxikin zegoen okindegij hura. Aldiko bost ogi eramatzen nituen etxera, baina gerra piztu zenean, okinak hala esan zidan: “Esaiok aitari, ea gehiago edo behar dituzuen, gaur bazeok eta. Gerrea hasi dek, eta bihar, etzi... ez dek bate izango”. Aitari esan, eta beste bost hartzeko esan zidan.

Zelaian sartuta dagoen bonba

Etxaburuko zelaian ere bonbak bota zituzten. Behiak larrean zebiltzan, zelaian, eta mandoak zirelakoan bota ote zieten esaten zen. Nere begiekin ikusi nuen Txata behia nola altxatzen zuen leherketak. Bigarren bonba handik ehun metro ingurura bota zuten. Lehenak lur asko atera zuten, baina bigarrenak zulo txiki bat egin zuten. Nire ustez, oraindik hor dago bonba.

Lanik eman nahi ez

Hemendik jende asko joan zen, herri erdi inguru. Batzuk gero itzuli ziren, baina ez zieten lanik ematen.

Presoak eta mendekuak

Herriko karlistak etorri zirenean, haietan batera etorri ziren Teodoro Urain eta Berriotxoan hori, nazionalistak. Felipe Elgarresta, Alberdi, Simon Salegi,... zortziren bat ziren. Ez zuten inor hil, baina hurrengo egunetik hasi ziren nazionalistak ordaintzen. Batak, botua eman zuelako. Be-laustegik, ziotenez, guardia bat egin zuelako. Zabaleta berdin. Hirugarren bat ere bai, honek Goiko Kaleko sagastian goardia egin zuelakoan.

Kalamas tanborreroa ere hil egin zuten. Hilario horren andreak, ahizpa bat zuen, Urretxun sagardotegia zuena, abenidan. Alkatea eta kuadrila guzti hori hara joaten ziren. Hilario eraman zutenean, andrea bere ahizparengana joan zen, sagardotegira, eta han alkatea eta ikusi zituen. Hala esan zioten: “Bah, gaizki egin izan ez balute, ez zituzten eramango”. Gero, Hernanira joan ziren, eta hango jendearekin hitz eginda, non fusilatu zituzten atzmanen zuten. Han inguruan Hilarioren txapela bilatu zutela zabaldu zen.

Deskargan fusilatuak

Deskargara jende asko eraman zuten fusilatzaera, Bergarako, Antzuolatik... Kamioietan igotzen zituzten, eta behin, batek salto egin, eta ihes egin zuen. Frantziara pasatu zen. Bergararra zen. Ez omen zen izan hortik ihes egiten bakarra.

Isuna ordaintzeko, pinudia bota

Gure aita, Erratzukoa eta Ipiñarrietako Errioxara eraman zituzten. Garai hartan euskal festak egiten ziren hemen, eta gure aita eta horiek sokatiran ibiltzen ziren. Pixka bat berotutakoan ere ez ziren isilik gelditzekoak. Felipe alkatearekin hitz egin genuen, eta ekarriko zituela, ez zituela... Zortzi egun eman zituzten Errioxan. Etxaburuko lurretan pinudi bat zegoen orduan eta hura botata lortu zituen aitak isuna ordaintzeko 30.000 pezetak. Gero, gure aitari itzuli beharrean, dirua Elgarresta alkateari eman zioten, eta ez genuen gehiago ikusi. Ipiñarrieta bi behi saldu behar izan zituzten.

Zubia bota

Urretxu irteeran, Legazpiraka, erreka pasatzen zen lekuaren Zubia zegoen, eta hura bota zuten milizianoek ihesi zihoazenean.

Elgetara begira

Elgeta bombardatzen hasi zirenean, aitak Irimora bidali ninduen, zer gertatzen zen ikustera. Egun osoa pasa nuen han, hegazkinei begira. Aingeruzar bombardatu zuten orduan, eta Irimotik jendea nola mugitzen zen ikusten zen.

2.000 soldadu inguru

Soldadu mordoa etorri zen, 2.000 inguru izango ziren eta Zumarragako plazara sartu ziren. Deskarga aldera jo zuten hurrengo egunean, Irimora eta Bergara aldera joateko.

Soldaduei jana eramatzen

Ipiñarrietara egunero bazkaria eramatzen genien soldaduei. Zumarragako ospitalean jasotzen genuen jana, mojek prestatua, eta astoarekin Ipiñarrietara eramatzen genien, bi zestotan. Italiarrak eta errekeetak egon ziren Ipiñarrieta.

Ogi beltzaren aurka protestan

13 urterekin lanean hasi nintzen, Irimon, eta behin, greba bat egin genuen, ogi beltzaren aurka protesta egiteko. Urretxuko Ederrena pilotalekuaren geunden, eta Uribesalgo ilemotza pasa zen handik. “iQue quereis! ¿Otros treintaise?” oihukatu zigun. Ogi hura eku-irinarekin edo egindakoa zen, ezin zitekeen jan. Baina ogi ona Italiara eta Alemaniara bidaltzen zuten, gerran baitzeuden, eta nolabait, Espainiako gerran jaso zuen laguntza itzuli behar zien Francok.

Aparizion bonbak egiten

Aparizion bonbak egiten genituen. Guk tuboa eta aletak egiten genituen. Tuboari zortzi zulo egin behar zitzaitzion goikaldean, eta beste zortzi behikaldean. Goian aleta jartzen genien, lotuta, eta beste aldean, berriz, tapoi bat. Gero Gasteizera eramatzen zituzten kargatzen. Hiru errelebotan geunden, hegazkinetarako bonbak egiten.

Astoak hil plazan

Gure behiei bota zien egunean, Zumarragako plazan ere bota zituzten hainbat bonba. Udaletxe pareko arkueen ordez pareta bat zegoen, astoak lotzeko anillekin. Asto batzuk hil ziren.

Bandoz aldatu eta etxera

Urretxuko baserri bateko gizon bat, *gorritara* joanda zegoen, Elgetara, eta beste bandora pasa zen. Baimena eman zioten, eta etxera itzuli zen. Aitak hura ikustera bidali ninduen, eta harekin izan nintzen. "Miseria eta beldurra" jasan zituela esaten zuen, etxera itzuli nahi zuela.

Oiloari tiro

Estreinekoz italiar bat gure etxera eterri zenean, asto bila eterri zen. Oiloak libre ibiltzen ziren, eta bat tiro egin zion.

Tratuak gauez, mendien puntan

Antzuolako gizon batek eta gure aitak tratua egin zuten, 30 kilo baba erosteko. Deskargara joan zen aita, eta Behibakar ingurueta txabola batean zuen zita. Antzuolarrak txabolatik urrun lotu zuen astoa, eta isilpean gerturatu zen. Goardia Zibilak han zeuden. Nire aitari bidera irten zitzzion, eta mendi gainean elkartu ziren, traturako.

Mikaela Agirre

Elkarren beldur

Auzoan bertan, elkarren beldurra genuen. Batzuk karlistak ziren, beste batzuk nazionalistak... Kontuak entzuten genituen, baina baserrian ez genuen ez irratirik ez argindarrik. Beldurra genuen hitz egiteko, fusilatzeko arriskua baitzegoen, eta badezpada, beti elizara joan. Orduan oso apaiz gaiztoak zeuden. Batzuek, hil aurretik barkazioa ere eskatu zuten.

Lehenengo tiroak

Esaten zenez, lehendabiziko tiroak Gipuzkoa eta Nafarroa arteko mugan bota zituzten, eta handik Tolosa aldera jo zuten. Leku hartan harri batek gogoratzen omen zuen gertaera, baina kendu egin zuten.

Eskopetak, entregatu

Etxeetan eskopetak egoten ziren, ehizarako, eta koartelean entregatu behar izan zuen gure aitak berea. Goardia Zibilak nahi zuenari ematen zion gero, eta zu gabe gelditzen zinen.

Herrira itzultzeak, lotsa

Gure herrian (Leitzan), eta Ezkurran ere, jende asko engainatuta eraman zuten, voluntario, erreke. Horietako batzuk hil egin ziren. Beste batzuk lotsatu, eta ez ziren gehiago herrira itzuli. Leitzan karlista asko zegoen, ignoranteenak ziren, baina kontuz esaten zenuenarekin, haien esanak balio zuen.

Inork ikusi nahi ez

Baziren beste batzuk etxeetan lapurretan egiten zituztenak, gauzak *errekesatu*, alegia. Gauzak beraientzako hartzen zituzten gero. Horietako batzuek gaizki bukatu zuten. Eskean, inork ikusi nahi ez zituela. Gaitzaok ziren. Gu, kontrakoak, isil-isilik egoten ginen. Herrian baziren fitxatutakoak: gure ama, osabak... Baina gerra hasieran gaitzoena izan zenak lasaitu zituen herritarrak. Gizon txiki bat zen. Bolondres joan zen, eta soldadu zegoela, mendian, ardi bat hil zuen. Harekin zijoala, bakarren batek tiro egin eta han hil zen. Ez zuen inork haren penarik hartu.

Tomate gordina lehendabizikoz, lejionarioekin

Ikusten genituen soldadu gehienak ez ziren bertakoak. Kamioietan pasatzen ziren lejionarioak, eta zenbait herritan egoten ziren, Lakuntzan kasu. Lejionarioek tomateak ekarri zituzten, eta gogoan dut, izebarenean, lejionario horiek ontzi bat eskatzen zutela. Eman eta tomateak puskatu, eta olioa eta ozpinarekin nola jaten zituzten ikusten genuen. Lakuntzarrek nazka aurpegiareakin begiratzen zieten, orduan inork ez baikuenen tomatea gordinik jaten. Probatu genuen eta bai, goxoa zegoen.

Emakumeari ilea moztu

Emakume bat ilea moztu zioten Leitzan. Orduan, eskatutakoa eman egin behar zenuen, eta emakume hari oiloak eskatu zizkion. Andreak eman ez, eta ilea moztu eta herritik bueltaka izaten zuten, egunero.

Ezkabako espoxeko tunela

San Cristobalgo espoxetik Zaragozara tunel bat zegoela esaten zuten.

Hegazkinak baju

Gerra denborako hegazkinak oso baju ibiltzen ziren. Gu ezkutatu egiten ginen, baina orduan ez genuen gu bombardatuko gintuztenaren bel-durrik. Gernikakoa gertatu zenean iada...

Hauteskundeak

Zu Maizterra baldin bazinen, eta nagusiak nazionalistak baldin baziren, zuk nazionalistei eman behar zenien botua.

Eskolan, laurogehitik gora

Pedro: Eskolan, laurogehitik gora ikasle geunden gela berean. Don Rufino Movellan Garcia zen irakaslea. Gauza gutxi ikasi genuen.

Mikaela: Nik ez nuen eskolara joateko gogo askorik izaten. Zaharragoak ginenok, irakasleak gazteagoei erakusten jartzen gintuen.

Xexari Areizaga

1926an jaioa
Urretxun.

“7 urterekin neskame joan nintzen baserri batera”



Behiekin, pinudira

Behiak eta idiak lapurtu egiten zituztela, etxeen harrapatutako danak hil egiten zituztela esaten zen. Etxaburutik Pagoeta auzora bidean dagoen zelaian pinudia zegoen lehenago, eta hara joan ginan, korrikan. Nire anaia Felipek abarka galdu zuen bidean. Txahalak azpian hartu omen zion eta ez da gehiago haren arrastorik izan. Nik zazpi urte nintuen. Neraman arroparekin gogoratzen naiz. Hiru koltxa eraman genituen, bestela lurrean egon behar genuen eta. Bi anaien oheetakoak hartu nintuen, nireaz gain. Pinudian, txahalak arbolari lotu zituzten aitak eta Felipek, eta han egon ginan, etzanda, anaia txikia erdian genuela. Ilundutakoan itzuli ginan etxera, behiek. Soldaduak Belokira joan ziren.

Gorpuak, lerak utzitako bidean

Aizpuru baserriko orduna ziotenez, baserritik Santa Isabelera (Antiora), bidea dago orain, baina lehen lokatz-bidea zegoen. Bidean, lerarekin ibiltzen omen ziren, burdinezko erreberak zitzuten gurdia erabiltzen ziren orduan, eta ziotenez, han, sasien artean gordeta zeuden batzen batzuk, eta Belokitik botatako tirokin hil, eta lerak lokatzetan utzitako bidean sartzen omen zituzten, lurrarekin estalita. Herrira ere tiro egiten zuten Belokitik. Orain etxe berria egin dute, baina esaten zutenez, Aizpurun leihoa danak okupatuta zituzten milizianoek. Orduko baserriak leihoa txikiagoak zituen gaurkoak baino.

Bonbak Etxaburun

Behin bonbak bota zituzten Etxaburuko zelaietan. Behiak larrean zeuden eta haiei bota zieten. Mandoak zirela pentsatuko zuten. Zumarragan ere bota zituzten bonbak. Plazan astoak egoten ziren, eta soldaduena mandoak zirela edo, pentsatuko zuten.

Ipiñarrietañ falangistak

Ipiñarrietañ falangistak egon ziren. Aldamenean etxe bat du, ganadutarako, eta han egoten ziren. Beibakarreko ganbaran ere egoten omen ziren. Jana preparatutakoa izaten zuten beti.

Adoratzen zaitugu, arbola santua

Gure aitari eta ere isuna jarri zioten. 3.000 pezeta kendu zizkioen. Nazionalista zen, eta batarekin eta bestearekin hitz egin zuelako jarri zioten isuna. Gernikako Arbola kantatzen zuen, eta Gernikan ere egona zen. Etorri zenean, amak demandan eman zion. Ez dut gogoan zer esan zion zehazki, baina hurrengo egunean aitak hala erantzuten zion: “Adoratzen zaitugu, arbola santua”, eta belauniko jartzen zen, sukaldean. Amari esaten zion, “benga, atsua, belauniko jarri nirekin”. Amak ezetz esaten zion. “Hortik gauza onik etztorrek” esaten zion amak.

Herriko telefono bakarra

Felipe Elgarrestak denda zuen Urretxun, Goiko Kalen. Gure ama, aita baina pixka bat umilxeagoa zen, eta hara joaten zen. Aitak demanda

egiten zion hara joaten zelako. Elgarrestak gauza asko izaten zituen dendan, horien artean, telefono bat. Nik dakidala, berak bakarrik zuen telefonoa orduan, eta guztiok hara joan behar izaten genuen. Anaia Pedro soldadu joan zenean ere, telefono hartara hots egin zuen. Ama arduratuta zegoen, Afrikara joatea tokatu ote zitzaion, eta hala esan zidan: “Joan hadi dendarra, ea Pedrok hots egiten duen”. Eta deitu zuen, non zegoen esateko. Galizian egin zuen soldaduska, Ferrolen.

Oilaskoekin libratu

Bagenuen osaba bat, mikeletea, oraingo ertzainen modukoa. Oreretan edo Oiartzun aldean harrapatu zuten, eta espoxera sartu. Hilko zutela esaten zuten. Etxaburutik oilaskoak eta oilandak eraman genizkion nagusiari, eta hortik libratu zen. Oreretan beste osaba bat genuen, likore denda bat zuen, eta hura familia osoarekin Etxaburura etorri zen, han guztia sakeatzen eta jendea hiltzen ari zirela eta.

7 urterekin, neskame

Goizean, eskolara joan aurretik, esnea partitzen nuen. Zazpi urterekin neskame joan nintzen, baserri batera. Hala esan ohi zidan: “Eskola itxita baldin badago, etorri azkar etxera, badago lana eta”. Haiek ohera joaten zirenean, nik oraindik ontziak garbitu behar nituen, txahalai ura eman... Etxean ez zuten urik, eta oheratu aurretik, hurrengo egunerako kafea ere egin behar nuen. Gero, Etxaburun arditara, Irimora. Bainha horretaz aspertu, eta eskolan ordubete gehiago gelditzen hasi nintzen, ez bainekien letrak idazten. Sumar egiten ikasi nuen, baina *multiplicar* egiten ez nuen ikasi. Gaztelaniaz ikasi genuen, 14 urtera arte. Cara al Sol abestu behar izaten genuen,

Bortxaketa, ilaran jarrita

Bergarako Isidro hojalateroak esan zigunez, bere arreba 10 pertsona baino gehiagok bortxatu zuten, ilaran jarrita. Hildakoentzako zanga zulo bat egin, eta han. Gaixoa burutik nahastu zen gero.

Fusilatuak Laarregin

Entzunda nago, Azkoitiara bidean dagoen harrobian, Laaregin, jendea fusilatu egin zutela. Gehiago ez zen komentatzen, inork ezer esanez gero hil egiten zuten eta.

Hildakoak lurperatzen

Nire senarra, Genaro Elgarresta, asko ibili zen gerran. Ni baina hamar urte helduagoa zen, eta kinto moduan eraman zuten. Troparen atzetik ziohan, hildakoak lurperatzen. Hildakoak gastatzen zirenean, jendea fusilatzen zuten. Ofizialak presoak ilaran jartzen zituela, eta batii lerrotik irteko agindu. Baten batek “ni ez noa inor hiltzera” esaten bazuen, ofiziala harengana joan, eta “Si no le das tu, te doy yo a ti” esaten ziola. Leon aldean asko ibili zen, eta baita Bizkaia aldean ere. Gerra bukatu zenean, etxera itzultzeko baimena eman zioten. Hala ere, ez zuten Zaragozatik Zumarragara etortzeko treneko txartelik, eta interbentoreak trenean harrapatu, atera, eta gau batez espoxean sartu zituen.

Ezagunari, ihes egiten utzi

Behin kontatzen zuen, nola beste bandoko batzuk harrapatu zituzten, tartean ezagun bat, eta “bueno, joan hadi hemendik, hire beharrik ez zeukeagu eta” esan ziola. Oso gauza tristeak kontatzen zituen. Etxe asko hutsik topatzen zituzten, eta beste batzuetan adinekoak hilda, ohean. Berak lurperatu behar izaten zituen.

Besarrietañ aurkitu, besarrietañ hil

Besarrietañ, jendea besarrietañ ezkutatuta egoten zen, eta soldaduek bayonetarekin belarra zulatzen zuten. Ezkutatuta zegoen jendea aurkitzen omen zuten horrela, eta bertan hiltzen zituzten, bayonetarekin. Batzuei aurpegian, beste batzuei sablean, edo bizkarrean... Bati hau moztu, besteari hau falta... mandoen gainean, kartolatzen bi gizon hartu eta lurperatzen eramatzen zituen. Marokoar batek zatitzen zituen gorputzak, eskatutako moduan.

Apaiiza hiltzera

Bere anaia apaiza zen, eta etxera bila joan zitzaizkion, hiltzeko, baina ordurako Gabirira ihes eginda zegoen.

Pablo Izagirre Lakuntza

1943an jaioa
Urretxun.

“Deskargan lau pertsona fusilatu zituzten behin”



31. oiloa

Gerra hasi zenean, Deskargara errekeeteak eterri ziren, nafarrak. Gure baserri gainean jarri ziren, kaminerón etxeán, taberna ere bazena. Etxe hartan sartuta egoten ziren, bertakoak ihesi joan baitziren nazionalak zetozenean. Ihes egin aurretik, altzariak gure etxeán gorde zituzten. Gaineko baserriko errekeeteak gaiztoak ziren. Gure amari 30 oilo lapurtu zizkioten eta 31.a lapurtzera ere joan ziren. Matxetea bota zioten eta zauritura utzi zuten oiloa. Nere ama atera zen orduan eta hala esan zien, euskeraz:

-“30 jan dituzue zerri hoik! baina 31.a ez dezue jango!!”

Besteek erantzun:

-“¿Como? ¿Como ha dicho señora?”

-“30 jan dittukela txerri horrek baino 31.a ez dekela jango!”

-“Ya haremos las cuentas, ya haremos las cuentas” .- eta alde egin zuten. Amak oiloa hartu eta barrura sartu zuen.

Ezin karrerarik egin

Egunero etortzen ziren baserrira, esne bila edo beste zerbaiten atzetik. Aitzakia horrekin, sukaldean urdaia edo txorixoa baldin bazegoen, eraman egiten zuten. Urdaiazpikoan han baldin bazegoen, matxetearekin moztu, eta erdia eramatzen zuten. “¿Que mira? ¿No esta conforme?” galdeztzen zion amari. Matxetea erakutsi eta: “iMira esto! iAsí que cuidau el!”. Amak aitari kontatu zion gertatzen zena, izan ere, aita falta zenean etortzen ziren beti. Aitak pentsatu zuen: “Bihar mendira nijoanean, bidean gelditu egingo naiz, eta buelta hartuko det, beste aldetik. Haiek azaltzen direnean, ni ere azalduko naiz horrela”. Aizkora hartu, eta mendira joan zen hurrengo egunean, baina buelta hartu eta atzera etxera sartu zen. Bost minutura agertu ziren. “iSeñora, venimos a por leche!” esan zuten. “Pues tengo poco”, amaren erantzuna. “Pues venga, lo que tenga”, eta berriro txorixoa edo dena delakoa hartzen. Aita atera zen orduan, eta haien aurrean jarri zen. “Que pasa aquí. Siempre venís cuando están las dos mujeres solas. Ya os habeis llevado 30 gallinas y un cerdo”. Aita heldu, kanpora atera eta paretaren kontra jarri zuten. “Le vamos a fusilar aquí mismo”, esan zioten. Ama haudun zegoen. Baratzaren ondoan jarri zuten eta fusilaren segurua kendu zuten. Bi ziren, eta batak besteari esan zion: “El quinto mandamiento dice que no matarás y su esposa está esperando un ángel. No lo deberías dejarlo sin padre”. Besteak pentsatu egin zuen, eta gero: “Bueno, porque me lo has dicho tu le perdonaré, pero a la siguiente esté donde esté le voy a dar cuatro tiros”. Hala salbatu ziren egun harten.

Aitona paso ligeroan

Lapurtzen jarraitu zuten, eta egun batean, ama eta aita herrian zirela, aitona bakarrik aurkitzen zen baserrian. 70 urte zituen. Harengana joan ziren, eta esnea eskatu zioten. “Leche no hay” esan zien aitonak, erdi euskeraz erdi erderaz. “Cómo que no, hay una vaca ahí” erantzun zion besteak. “Yo no atrever, iEcha coces!” esan zion aitonak. Behi hari ametrailladora deitzen zioten, beti ostikoka baitzegoen. “Vicente ya sabe ordeñar una vaca” esan zion besteak, eta Vicente hari deitu. Vicente baldearekin gerturatu zen, jarri, eta ostikada batekin paretaren kontra

bidali zuen behiak. Sekulako kolpea eman zion. “Usted ya sabía que hacía eso” esan zioten aitonari, eta paso ligeran oinez jarri zuten. Bergarako batek ikusi zuen, Bergaresa deitzen zioten autobusetik. “Julian, zer ari zera halako abiaduran pasiatzen?” galdetu zion. “Gaztetan ez nian ikasi oinez ondo egiten eta orain hauek erakusten zebiltzek”. “¿Que ha dicho usted? ¡Más ligero!”. Agotatuta utzi zuten aitona.

Bergarako komandantzian kejatzen

Ez zekiten zer egin, eta Bergarako komandantzira joatea erabaki zuten, kexatzen. 30 oilo eta txerri erdia kendu zizkieten, eta behiaren os-tikada jaso ondoren, Zabaleta baserrira joan ziren esne bila eta 30 ardi lapurtu zizkieten. Komandanteari hori guztia esan, eta hark: “Pero si aquellos ya tienen suficiente comida, tienen de todo. Puede que les falte leche pero si os lo piden os tendrían que dar algo a cambio”. Nahiko komandante ona tokatu zitzaien. Gaineko baserriko errekeeteak hartu, guztiei ilea moztu eta Elgetako frontera eraman zituzten. Beste erre-kete batzuk jarri zituzten baserrian, baina hauak askoz hobeto tratatu zituzten bizilagunak. Gertatutako ezagutuko zuten. Esnea bakarrik kentzen zieten, eta kafea eta haragia ekarri.

Aita lasto-pilan gordeta

Soldaduak sartu zirenean, aita lasto pilan gordeta egon zen, ganbaran, baina amak hala esan omen zion: “Jaitsi zaitez hortik, aurkituz gero tiro egingo dizute eta!”.

Etxeko altzariak ere nahia

Erreketeek jakin zuten, halako batean, gaineko baserriko altzariak gure etxeán zeudela. Kamioi batekin eterri ziren, haien eskean. Amak ez zizkiela emango esan zien. Komandantearen sinadura zuen papera ekarriz gero, emango zizkiela baina bestela ezetz. Ez ziren itzuli. Etxeko nagusiak Bizkaia aldean zeuden gordeta, eta itzulitakoan, altzariak itzuli zizkien amak.

Fronterik ez Deskargan

Deskargan ez zen fronterik egon. Tirorik egin gabe hartu zuten. Han inguruan zaintza lanetan aritu ziren baina besterik ez. Nazionalistak ehi-zako eskopetekin omen zeuden, eta segituan egin zuten alde.

Gorpuak Deskargan

Beste batean, Bergarati eterri ziren aitaren gana. Tabernatik 200 metrora, Meaka aldera, lau pertsona fusilatu omen zituzten, eta errekeeteek gure aitak lurpera zitzan nahi zuten. Aitak ezetz esan zien, eta orduan, pala uzteko eskatu zioten. Utzi zien eta hara joan ziren. Denbora batera, fusilatu haien senideak eterri ziren, eta aitak gorpuak zeuden lekura lagundu zien. Gorpuak atera zituzten, baina ez ziren haien bilatzen zituztenak. Gazte batzuk omen ziren.

Artairin bila Etxarrira

Gurean patata, baba, esnea... baina ogi gosea bai pasa nuela. Gurean artoa zegoen eta taloak egiten genituen. Ama Sakanakoa zen, eta Etxarrira trenetx joaten zen, ogia egiteko artairina ekartzera. Behin geltokian konfiskatu egin zioten zekarrena eta ordutik aurrera, Kaminpe inguruan, trenetik artairinaren zakua botatzen zuen, eta aitak astoarekin hartu eta etxera eramatzen zuen.

Bonbak Irimon

Gure aitak Irimon egin zuen lan gerra garaian, bonbak egiten. Fabrika guztiak militarizatu egin zituzten, gure aita zena gerraren aurretik hasi zen lanean Irimon, baina gero bonbak egiten hasi ziren.

Olio litroa 90 pezetan

Errazionamenduko ogia beltza zen. Lastoarekin edo irinarekin egiten zuten hora. Tabakoa eta olioak ere errazionatuta zeuden. Aitak ez zuen erretzen, baina tabakoa lehengusu bat ematen zion. Honek trukean, urte amaieran ardi zahar bat oparitzen zion aitari. Olioak ez zen txarra baina litroak 90 pezeta balio zituen. Hilean bi litro olio genituen. Kaletarrek baserritarrek baina gose handiagoa pasa zuten. Familia asko baserrietara etortzen ziren, ereiteko lur pusketa baten eske. Gure baserrian 3-4 familiek landatzen zuten patata. Errazionamenduko gauza guztiak hartzeko ez zitzaigun iristen batzuetan, eta guri ez bazitzaigun iristen, kalekoek zer egingo ote zuten!!

Maria Rosario Belaustegi eta Ana Mari Zabaleta

1918an eta 1920an jaioak.
Angel Belaustegi eta Angel Zabaletaren arrebak.

“La postal llegó y ellos ya habían desaparecido”



Angel y Angel

Maria Rosario Belaustegi: Fue horroroso, no solemos ni querer hablar de ello. Mi hermano Jose Mari estaba en Bizkaia, con el batallón Loiola. Había huido. Angel estaba estudiando derecho, y casualidad, había vuelto de Valladolid recién acabados los exámenes. Entraron los soldados y pasó lo que pasó.

Ana Mari Zabaleta: Eran unos chicos, que venían de vacaciones y sus aficiones eran andar en bicicleta, ir al monte, la pelota... Eran unos santos.

Detención y asesinato

Ana Mari: Fueron a buscarles a casa a los chicos.

Maria Rosario: Los dos hermanos eran amigos y también Becerra. Vino mi hermana Inés diciendo: "Ha dicho la Guardia Civil que pases por el cuartel". "Ya empezamos", dijimos. Del cuartel, les mandaron a la cárcel que había en el ayuntamiento de Zumarraga, que era una cuadra. Allí no pasaron mucho tiempo.

Ana Mari: Yo algún día les llevé de comer con tu hermana.

Maria Rosario: Mi hermana consiguió hablar con él en la cárcel de Zumárraga. Le preguntó qué le habían dicho y le respondió: "Pues que tenemos muy malos informes de usted y de toda su familia". Era lo que le habían dicho los guardias. De repente, les llevaron a San Sebastián. Nos asustamos. Sabíamos que los que llevaban a San Sebastian desaparecían. Al día siguiente fueron los dos padres a visitarlos. Llegaron a la cárcel de Ondarreta y les dijeron que ya habían salido. Fíjate.

Ana Mari: Ya les habían matado.

La vuelta de los padres

Maria Rosario: Vinieron como vendrían, tu padre como para hacer un disparate.

Ana Mari: Mi padre no hizo un disparate porque no tenía una pistola. Lo demás en aquel momento... Tenía mucho genio y un dína en la calle, le agarró a uno de aquellos que habían mandado



Cárcel de Ondarreta, Donostia

matar a mi hermano del cuello y les tuvieron que separar.

Maria Rosario: Le dijimos al aita: "Hoy hemos recibido una postal de Angel". La postal llegó y ellos ya habían desaparecido. El hermano había escrito una postal nada más llegar allí, pero llegó la postal y él ya no estaba. La última frase que escribió en la postal era: "El domingo es la festividad de Cristo Rey y pensamos comulgar todos". Fíjate cómo eran.

Ana Mari: Empezaron a moverse pensando que estarían en algún otro sitio detenidos pero...

El fraile

Maria Rosario: Entonces había una novenaria en la capilla de Urretxu y ahí vino un jesuita a dar unos sermones. El jesuita le dijo a la superiora, Sor Valentina: "Oiga, me gustaría hablar con una señora que... al hijo...". "Está en la capilla", le respondió. Hablaban de mi madre. El jesuita le dijo. "Imagino cómo estarán. Mire, esto mirando a la tierra no se puede hablar. Hay que mirar al cielo". Mi madre se quedó de piedra. El jesuita no le quiso dar ninguna explicación, pero aquel fraile era el que les había asistido en el último momento.

Ana Mari: Nosotros tenemos una tarjeta del jesuita ese.

Maria Rosario: Pues mi hermano Jose Mari, que estaba en Bizkaia con grado de teniente, estuvo a punto de volverse loco, de lo afectado que estaba.

Perdonando

Maria Rosario: Mi padre el pobre, le estaban dando la extremaunción en casa y le preguntaron: "¿Perdona usted a sus enemigos?". Todavía lo llevaba dentro... Mi padre dijo: "Sí les perdonó, para que también dios me perdone a mí".

Hernani

Dicen que están en Hernani, pero no tenemos ninguna seguridad.

Ana Mari: Debieron de echarlos por un barranco que hay detrás del cementerio de Hernani.

Maria Rosario: No les hicieron ni una declaración ni nada. Llegaron un día y al día siguiente les sacaron para matarlos...

Venganzas de pueblo

Ana Mari: Eso son venganzas de pueblo. Ya sabemos quién andaba detrás.

Maria Rosario: Si los del pueblo no hubieran dado sus nombres, no se los hubieran llevado. Nosotras ya sabemos quiénes son los culpables.

Un hijo asesinado, un hermano en la cárcel y el padre destituido

